

Goienkaria

2006ko irailaren 8a > Egubakoitza > VI. urtea > 255. zenbakia > Doan banatzena

www.goiena.net

“Dirurik ez badago, zailagoa da etorkinen arazoari irtenbidea bilatzea”

Marta Bermejo > 09



G2a

Lehen sektorearen gainerako argazki erakusketa > 43

OSPAKIZUNA

Bihar, Arantzazuko Amaren eguna, erromesaldia izango da > 06

ARRASATE

Autoak mantentzeko gunea zabaldu egingo dute berriro > 18

ESKORIATZA

Hainbat eraikin botako dituzte Santa Marina auzoan > 34



LIBURUEKIN Bergarako San Martin Agirre ikastetxeko ikasle batzuk, aurtengo liburuekin. Ikastetxe hori dago plan esperimentalean.

LEIRE KORTABARRIA

KIROLA > SASKIBALOIA

Garbajosak gogoan du Arrasate

Munduko txapeladun Jorge Garbajosa elkarrizketatu du GOIENKARIAK > 40



Jorge Garbajosa. GOIENKARIA

HEZKUNTZA > IKASTURTEA HASI DA, ETA BERRITASUNEKIN DATOR

Ikasliburuen mailegua bultzatuko dute aurten

ESPERIMENTALA Jaurlaritzaren mailegu plan esperimentalean dago Bergarako ikastetxe bat

IBARREAN Ikastetxe batzuek euren kabuz antolatu dituzte liburuek mailegatzeko moduak > 02-03

Gaur, egubakoitza, bueltatu dira eskola-ume gehienak ikastetxera, aurkezpen egunerako, eta astelehenean hasiko da 2006/2007 ikasturtea. Aurten, gainera, berritasun bat dago: ikasliburuen mailegu plan pilotua ezarri du Jaurlaritzak, eta Bergarako ikastetxe bat dago bertan.

Bada, plan horrek denetari-ko iritziak piztu ditu gurasoen, editoreen, liburu-saltzaileen eta alderdi politikoen artean.

NEKAZARITZA > KANPAINA

Landa ingurunea, bizirik

Debarroa, menditik itsasora delako kanpaina prestatu dute Debagoieneko eta Debarbarreneko nekazari eta abeltzainen elkarteek. Horrekin, jendeari gogorazi nahi diote landa ingurunea bizirik dagoela.

Aurkezpena egunean egingo dute, Elgetan. Lehendakaria eta ahaldun nagusia han izango dira. > 05

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

Ford Focus Trend 1.6 100zp
13.000€-gatik

Atzeko suspentsioan Blade kontrola
Albatura kontrola
Bi zona aire-girogailuarekin
Ordenagailua
Larruzko bolantea
Irrati CDA

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETAKO 1950-2006 ARRASATE

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETAKO

ETXE MODEL
ALTZARIEN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETAKO

ARKAUZ
MUGARRI
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETAKO

Etoko aldatetekin amesgaiztoak? Har ezazu lo goxo! Esperientziadunak gara. Arkauz etxearekin ederto amestuko duzu.

Arkauz zure etxea da.

HEZKUNTZA > 2006/2007 IKASTURTEA

Testuliburu mailegu plan pilotua gureko eskola baten ezarriko dute

BERGARAKOA San Martin Agirre herri eskola izango da planean; hala ere, mailegua erabiltzen zuten lehendik ere

BESTE BATZUK Gurasoek hala eskatuta, ibarreko beste eskola batzuek ere ematen dituzte testuliburuak maileguan

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Ikasturtea hastera doa Debagoieneko ume eta gaztetxoendako. Gaur, egubakoitza, egin dute aurkezpena ikastetxe gehienetan, eta astelehenean hasiko dira eskolak. Haurtzaindegietan, aste honetan hasi da ikasturtea.

Aurten, gainera, albiste da Debagoieneko ikastetxe bat, Bergarako San Martin Agirre herri eskola, izan ere, Hezkuntza Sailak ezarri duen testuliburu mailegu plan pilotu baten sartzen da, Euskadiko Lehen Hezkuntzako beste 40 ikastetxe moduan. Plan horren helburua da testuliburuaren gastua eta murriztea, errenta baxuena duten familiei laguntzea eta umeak erantzukizunean hezte. Plan esperimental horrek arrakasta badu, Euskadiko ikastetxe publiko guztietan ezarriko da, 2010era bitartean, eta itundutako ikastetxe guztietan, 2013ra bitartean.

Plana boluntarioa zen, baina sartu nahi zuten eskola guztiek proiektua aurkeztu behar zioten Jaurlaritzari.

Mailegu sistema ikastetxe mota guztietan txertatu nahi dute 2013rako

Planaren bidez, familiak liburuaren %25 ordainduko du; Jaurlaritzak, %75

SAN MARTIN AGIRREKO EREDUA

Hala ere, San Martin Agirre ikastetxeak badu eskarmentua, izan ere, orain bost urte erabaki zuten liburu mailegu sistema bat, batez ere gurasoen ekimenez. Sistema horren bidez, ikasturte bukaeran, irakasleek liburu berrien zerrenda egiten dute, kontuan hartuta taldeko kopuru aldaketak eta hondatu egin diren liburuak. Urtero, ikasle bakoitzak diru bat ipintzen du -aurten, 63 euro-, eta eskolak liburuak erosten ditu Baikara guraso elkartearen bidez. Gero, liburuak eskolan banatzen dizkiete, eta ikasleak bereak balira bezala zainduko ditu liburuok. Hala, norberak bertan idaztekoak diren liburuak bakarrik erosi behar ditu. Ikasturte bukaeran, eskolaren liburuak bertan geratzen dira.

Esperientzia horrekin oso pozik daude irakasleak, gurasoak zein ikasleak: "Urteko kostua asko murrizten da. Kontuan hartu behar da liburu bakoitza 20-30 bat euro kostatzen dela eta bost edo sei liburu direla", dio Susa-



Bergarako San Martin Agirre ikastetxe ikasle batzuk, aurtengo liburuak eta ipuinak eskuetan

HEZKUNTZA SAILAREN LIBURU MAILEGUTZA SISTEMA

> HELBURUA

Ikasliburuaren kostua familiendako murriztea eta ikasleak konpartitzearen balioan hezte.

> KOPURUAK

Lehen Hezkuntzako 50 eskolatan egingo dute aurten: 300 ikasgela eta 5.100 ikasle. Jaurlaritzak 5 milioi euro inbertituko ditu aurten.

> KUOTAK

Familiak liburuaren kostuaren %25 ordainduko du, eta gainerako %75 Hezkuntza Sailak emango dio ikastetxeari.

> EPEAK


2008/09 ikasturterako, Lehen Hezkuntza osoan ezarriko dute; gero, sare publiko osoan; eta 2010ean hasiko dira sare pribatu indarrean ipintzen.

> DEBAGOIENEAN

San Martin Agirre ikastetxea (Bergara) plan esperimentalean dago. Beste ikastetxe batzuek ere badituzte antzeko sistemak.

> JABEGOA

Ikasliburuak eskolarenak izango dira; ariketa-liburuak, ikasleak.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxe: 945 26 71 73





GURU LANAK

rako Aranzadi ikastolak aukera ematen du liburuak ikastolan bertan edo kanpoan erosteko, baina, arduradunek diotenez, truke sistema ezartzearen gainean hitz egiten hasiak dira.

Beste eskola batzuetan, ikasgaiak proiektu bidez ematen dituzte, eta erabiltzen dituzten liburu bakanak eskolarenak izaten dira, edo norberak erosten ditu.

Bestalde, ikasmateria eskolak ematen du ikasmila batzuetan, batez ere Haur Hezkuntzan, material oso jakina erabiltzen dutelako; ikasle nagusiagoek eurek eramaten dituzte gustuko boligrafoak, arkatzak, errotulagailuak... Materialaren arabera ere, zenbait gauza ikastetxean egoten dira: papera, fitxak...

ALDEKOAK ETA AURKAKOAK

Hezkuntza Sailaren programa esperimentalak aldeko eta aurkako iritziak piztu ditu. Eusko Legebiltzarrean, alde agertu ziren EAJ, EA eta PSE-EE; aurka, PP, eta EHAK-k eta Aralarrek esan zuten ados zeudela, nahiz eta euskarzko liburugintzan izango zuten eraginaz kezka azaldu zuten. Kezka hori bera argi eta garbi erakusten dute euskal editoreek: euskal liburuen errentagarritasuna arriskuan ikusten dute mailegu sistemarekin, eta doakotasuna bermatzeko beste neurri batzuen beharra ikusten du.

Bestetik, liburu-dendei ere kalte egingo die mailegu sistemak, Bergarako Bilintx dendako Josune Lizarralde dioen moduan. Hala ere, hauxe azpimarratzen du: "Oraindik ez dakigu oso garbi zelakoa izango den sistema hori. Kaltea nahitaez izango dugu; baina behar dituzten liburuak dendetara bideratzen badituzte, kaltea txikiagoa izango da".

Gurasoen aldetik, denetarikoa iritziak daude. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioko (EHIGE) Imanol Zubizarretak hauxe dio: "Orokorrean, ados gaude, baina, gure iritziz, laguntza ez litzateke eman behar familiei dirulaguntza moduan, baizik eta diru hori eskolarendako berreskuratutako beharko litzateke. Gure helburua doakotasuna da, baina ados gaude kanon bat ordaintzearekin; hala ere, gure ustez, %25 kanon altua da". Bestetik, baina, orain Debagoienean mailegua aplikatzen duten ikastetxeek gurasoek eskatuta egin dute hala.

Susana Uriarte > San Martin Agirre eskolako zuzendaria
"Irakasleak eta gurasoak ados egon ziren maileguarekin"

L.K. > BERGARA

Oraintxe heldu dio Susana Uriartek San Martin Agirre eskolako zuzendari lanari; hala ere, plan pilotua ez da gauza berria Uriarterendako.



GOIENKARIA

Zelan sartu zarete Jaurlaritzaren plan pilotu horretan?

Gu orain bost urte hasi ginen mailegu sistemarekin. Gerora, Jaurlaritzak deialdia egin zuen eta gure proiektua aurkeztu genuen.

Eraginik izango du planak zuen sistematan?

Ez; orain arte bezala jarraituko dugu. Izan ere, Jaurlaritzak proposatzen dituen neurriak gureen oso-oso antzekoak dira.

Zelan hartu zenuten orain bost urte erabaki hori?

Irakasleen eta gurasoen erabateko adostasuna egon zen. Gurasoak arduratu ziren lehenengo gai horrekin, gastua handia zelako. Gaur egun,

63 euroko urteko kuota ordaintzen du ikasle bakoitzak; kuota barik, gastua bikoiztu egiten da, gutxienez.

Aurten berri duzue libururik?

Hizkuntzako liburuekin arazoa genuen, izan ere, liburu gehienak A eredurako modukoak ziren, eta guk D eredia ematen dugu. Aurten liburu asko aztertu behar izan ditugu.

Olatz Osa > Elkar argitaletxeko zuzendaria

"Euskal liburu produkzioa kolokan jarriko du maileguak"

L.K. > BERGARA

Elkar argitaletxeko zuzendaria da Olatz Osa oñatiarra, eta, bere esanetan, doako liburuen alde daude euskal editore gehienak, baina beste neurri batzuk erabilia.



GOIENKARIA

Zer deritzozue editoreek planari?

Euskarzko merkatua txikia izanik, berez da zaila euskarzko produktua bideragarri egitea. Hori dela eman izan dira euskarzko ikasliburuak ekoizteko dirulaguntzak, eta horrek lagundu du euskarzko ikasliburuak gizartearen egotea. Mailegutza, ordea, sistema bezala izan ditzakeen bertuteak gutxietsi gabe, merkatua lau aldiz txikitzea ekarriko du, eta beraz, euskarzko ekoizpena kolokan jartzea. Alternatibak aztertu gabe egin dute aurrera.

Zein da zuen proposamena?

Familia bakoitzari laguntza zuzena ematea. Direla bekak, txekak, errenta aitopenean kitapenak...

Pausorik eman duzue horretarako?

Hainbat bilera egin dugu talde parlamentario eta Jaurlaritzarekin. Gaia sakon aztertu eta berbideratzeko mahai tekniko bat osatzea ere eskatu dugu eta pentsatu behar dugu aurtengo ikasturtean martxan jarriko dutela. Ikaskuntza arloko sektore ezberdinen partehartzea bermatu beharko litzateke mahai horretan.

na Uriartek, San Martin Agirre ikastetxeko zuzendari berriak. "Ikasleek ere oso ondo hartzen dute: badakite liburua norbere ardura dela, konpartitu egin behar dutela...", gaineratzen du.

Eusko Jaurlaritzaren plana horren oso antzerakoa da: familiek liburuen %25 ordaindu behar dute, erabilera kanon bezala; eta Hezkuntza Sailak beste %75 emango die ikastetxeei liburuak erosteko.

BESTE KASU BATZUK

San Martin, baina, ez da maileguaren edo konpartitzearen alde egin duen Debagoieneko ikaste-

txe bakarra. Aretxabaletako Kurtebarri eskolak sortu zenetik, orain 26 urte, jarraitzen du metodo hori, gurasoek hala erabakitara bere unean. Iaz, adibidez, 100 euro ipini zuten Lehen Hezkuntzakoek. Arrasateko herri eskolek bat egin zutenean ere horixe ezarri zuten. Haur Hezkuntzako kuota 55 eurokoa da, gutxi gorabehera; Lehen Hezkuntzako, 50.

Bestelako formulak ere badaude. Esaterako, Oñatiko Santa Eskolastika ikastetxeak familiei jakinarazten die ikasturte batetik bestera zein liburu errepikatzen diren, horiek euren kasa bilatu nahi badituzte ere. Berga-

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zembakira SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
 Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeke, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
 *Euskaratik deitu: 902 04 02 00 telefonora. / *Vodafone: deitu 123-ra. / *Movistar: deitu 089-ra.
3. ZALANTZAK: Eskoien zailtasunak dituzela, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurritan egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

1,2,3,4... Real!! | REAL
 Alboka | **ALBOKA**
 Athletic luep!! | **IEUP**
 Buztan bertsoa | **BERTSO**
 Hartu... Aitareta semea... | **AITAREN**
 Hartu... Ansar | **ANSAR**
 Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
 Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
 Hartu... Miami | **MIAMI**
 Independentzia | **INDEPEN**
 Irrintzia | **IRRINTZI**
 Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
 Milazu! (pilota) | **MILAZU**
 Suprinua | **SUPRINU**
 Tobera | **TOBERA**
 Txalaparta | **TXALAPA**
 Txanbela | **TXANBELA**
 Txoxtok | **TXOTX**

DEPOR. IZENA. ZENBAKIA
 E. ALONSO | **17**
ETXEBERRIA | **17**

OSAJUNA. IZENA. ZENBAKIA
 KRUTXAGA | **17**
ARANBURU | **11**

ANOETA1 | **MENDI2**
 smsoinu | smsoinu

ARCO | **SADARI**
 smsoinu | smsoinu

IPURUA | **EIBARPOOL**
 smsoinu | smsoinu

BELAK | **ZORIB** | **IKURRIB** | **POPATIK1** | **AIZKORAK** | **ADARIAK**
 smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu

ZORIR | **ZORIR** | **KALABERA1** | **POPATIK2** | **EGUZKILORE3** | **ELORAN**
 smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu

TOPA | **TITULUA** | **MUSKARIA** | **SATANAS** | **ARRANAK** | **IDIAK**
 smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu | smsoinu

WEBGUNEAN ➡ www.smsoinu.com

KEPA JUNKERA

"Hiri" disko berriaren aurkezpena.

MUSIKA

Non:

Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:

Irailaren 16an, larunbatean, 20:00etan.

Prezioa:

12 euro (Servikutxa, www.kutxa.net eta lehiatilan)



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



GRUPO **RK^UZ**
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIARI
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RK^UZ
CUCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RK^UZ
MUCLESI
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Hotzak zaude etxeko altzarien
prezioekin?
Har ezazu lasai!
Arkauz etxean bero-bero hartuko
zaitugu.

Arkauz zure etxea da.



LANDA INGURUNEA Arantzazuko baserritar bat bere artaldearekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

GAIA > 'DEBARROA, MENDITIK ITSASORA' KANPAINAREN AURKEZPENA ELGETAKO ESPALOIAN

Landa ingurunea bizirik dela oharrazteko kanpaina abian da

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia izango dira Elgetan egingo den aurkezpen ekitaldian.

GOIENKARIA > ELGETA

Debagoieneko Deba Garaia eta Debabarreneko Debemen nekazarien eta abeltzainen elkarteek ekintzez baterik kanpaina jarri dute abian. Erakunde horien asmoa da bi eskualdeetako gizartea landa inguruneaz sentsibilizatzea. Alegia, herritarrei oharraztea landa ingurunea bizirik dela eta guztion laguntza behar duela.

Kanpaina egunean aurkeztuko dute Elgetako Espaloia kafe antzokian, eta goizeko hamarretan hasiko da ekitaldia. Aurkezpen handia egingo dute eta agintari ugari gerturatuko da Elgetara: Juan Jose Ibarretxe, EAEko lehendakaria; Gonzalo Saenz de Samaniego, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua; Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, diputatu nagusia; eta Debagoieneko zein Debabarreneko alkate eta zinegotzi asko. Era berean, Gorka Aginagalde aktore gasteiztarak (*Todos nacemos vascos, Coci-dito madrileño...*) antzezlan bat eskainiko du.

MATERIAL DIDAKTIKOA

Debemen eta Deba Garaia elkarteek material didaktikoa presta-

tu dute ikastola eta eskoletan banatzeko. Gainera, lehiaketa bat abiaraziko dute ikasleen artean. Ikus-entzunezko bat ere prestatu dute unibertsitate, hirugarren adineko egoitza eta beste zenbait tokitan eskaintzeko. DVD

Debarroan dauden 99 landa auzoetan 9.500 lagun bizi dira

Egunean egingo den ekitaldian Debarroko landa ingurunearen gaineko datu esanguratsuak emango dituzte. Horietako batzuk aurreratzeko moduan da *Goienkaria*: Debarroko biztanleen %2k zaintzen du eskualdeko azaleraren %80. Nekazari jarduera dute 3.153 etxaldek, eta horien artean 48.850 hektarea gestioan dituzte. Debarroko landaguneak 1.500.000 pertsona baino gehiagoren bisita izaten du urtean. Gure ibarreko baserrietan kalitatezko elikagaiak ekoizten dira: esnea, haragia, gazta, barazkiak, oilaskoak, txerriak, ogia, ezti, marmeladak,...

horretan zenbait baserriarren testigantzak jaso dituzte eta Debarroan ezagunak diren beste hainbat lagun iritziak ere agertzen dira. Besteak beste, Javier Rete-gik, Alfontso Gorroño-goitiak, Alberto Iñurrategik, Asier Riesgok eta Hasier Etxeberriak ematen dute iritzia. Material didaktikoarekin eta ikus-entzunezkoarekin, gure ibarreko eta Debabarreneko baserriarren egoeraren berri eman gura dute Debemenek eta Deba Garaiak.

Bi erakundeetako ordezkariak uste dute jendeak ez dituela baserriarrak aintzat hartzen, eta, horrela jarraituz gero, baserriar belaunaldi berririk ez dela izango.

ERAKUNDEEN BABESA

Aspaldi hasi ziren *Debarroa, menditik itsasora* kanpaina prestatzen. Hasieratik erakundeen babesa eta laguntza izan dute. Bi eskualdeetako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bat egin dute nekazari eta abeltzainen elkarteekin, eta egunean aurkeztuko den kanpaina lan horren guztiaren emaitza besterik ez da. Bultzatzaileek diote lehenengo pausoa dela eta aurrerantzean gizarteak erantzun beharko duela: "Gizarteak jakin beharko luke zenbat lan egingen dugun baserriarrek eta gure produktuak baloratzen ikasi beharko lukete".

MUNDUMIRA > KAMISETA SOLIDARIOAK

Mundumiran jasotako dirua, hiru GKErendako

Hirugarren edizioa non egingo duten hil honen bukaeran jakingo dute; Aretxabaleta eta Bergara dira aukerak

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Mundumirako kamisetekin lortutako 3.000 euroak Debagoieneko hiru gobernuz kanpoko erakunderi emango dizkiete.

Mundumira jaialdia maiatzean egin zuten Oñatin. Mundumirak eta Ternua jantzi enpresak kamiseta solidarioak atera zituzten, eta horien salmentarekin lortutako 3.000 euroak nazioarteko kooperazioko hiru proiektuetan laguntzeko erabiliko dituzte.

HAITI, BALTISTAN ETA SENEGAL

Diru hori erabiliko dute: Oñatiko Misio taldeak Haitin egin gura duen biltegi bat egiteko; Aretxabaletako Felix Iñurrategi-Baltistan erakundeak Baltistango herri baten ur edangarria izateko behar duten azpiegitura jartzeko; eta Antzuolako Anelkar fundazioak Senegalen umeendako ospitale bateko mediku zerbitzua

hobetzeko. Mundumirak eta Ternuak egin zituzten kamisetak 24 eurotan jarri zituzten salgai eta saldutako kamiseta bakoitzeko, hiru euro ibarreko hiru GKEetarako izan dira. Mundumirako lehen edizioan lortu zuten dirua Mundukideri eman zioten.

Lortutako 3.000 euro horiek datorren asteazkenean, irailak 13, banatuko dituzte hiru erakunde horien artean. Oñatiko kultura etxean duten hitzorduan emango dizkiete txekak.

HIRUGARREN EDIZIOA

Duela urtebete egin zuten Mundumira jaialdiko lehen edizioa Arrasaten; bigarrena aurtengo maiatzean egin dute Oñatin. Hirugarrena non egingo duten hil honen bukaerarako jakingo dute. "Eskualdean egingo dugu baina izan liteke Aretxabaletan, Bergaran edo Oñatin. Teknikariekin ikusi behar dugu herri bakoitzak dituen aukerak eta guztion artean erabakiko dugu", dio Kike Zinkunegi *Euskal Herria* aldizkariako ordezkariak.

Hasierako asmoa zen Mundumira jaialdia ibiltaria izatea eta horrekin jarraitu gura dute. Tokia zehazteke dute baina maiatzean egingo dute hurrengo jaia ere ziurrenik.



SALMENTA Jaialdian bertan saldu zituzten kamiseta asko.

GOIENKARIA

C&C
AKADEMIA

Matrikula
zabalik!

LLONGUERAS

IRAKASKUNTZA ZENTROA
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA

Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!

C&C Llongueras diploma ofiziala

Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa



Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.

Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: cc-llongueras@hotmail.com



ERROMES Aretxabaltarrak hilaren 4an joan dira erromes Arantzazura, baita udalbatzako kideak ere, ohiturari jarraituz.

MIRARI ALTUBE

Oñatitik Arantzazura doazen autobusak ordu erdiro aterako dira, 08:30etik aurrera Oñatitik eta 09:00etatik aurrera Arantzazutik; 0,50 euro da joanaldia

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Arantzazuko Ama Birjinaren eguna -Gipuzkoako zaindaria- ospatuko dute bihar, zapatua, Arantzazuko santutegian. Goizean erromes joango dira oñatiarrak Arantzazura eta eguerdiko meza nagusirako Gipuzkoa osotik eta Euskal Herriko beste herri batzuetatik inguratuko da jendea. Hain zuzen ere, Juan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzainak esango du meza. Eta Juan Jose Ibarre-

ARANTZAZUKO AMA > ZAPATUAN DA GIPUZKOAKO ZAINDARIAREN EGUNA

Erromesaldia eta meza nagusia Arantzazuko Amaren egunerako

txe lehendakariak esan du aurrean ere han izango dela.

IRAILAK 9
"Oñatiarrak bizi guztian etorri dira erromes Arantzazura irailaren 9an, Ama Birjinaren egunean. Aurten ere, 07:00etan da lehenengo hitzordua parrokiaren eta 08:00etan bigarrena Zapatan. Handik, kantuan, isilean eta otitzez etorriko gara Arantzazura bozgorailua duen auto batekin

batera", azaldu du Iñaki Beristain frantziskotarrak. "Oñatiar asko etortzen dira egun horretan, 500 bat inguru, eta tartean gazte asko", jarraitu du Beristainek. Bederatziak eta laurdenetan aitorenak egiten dituzte eta 12:00etan meza nagusia.

Oñatiko Etxerat-ek, bestalde, kale agerraldia deitu du 11:45erako santutegiaren aurrean, presoen eskubideak errespetatzeko eta defendatzeko eskatzeko.

AUTOBUS ZERBITZUA INDARTU

Egun horretarako indartu egin dute Oñatitik Arantzazura doan autobus zerbitzua; ordu erdian behin aterako dira, 08:30etik 19:30era Oñatitik eta 09:00etatik 20:00etara Arantzazutik. Joandiko bakoitzak 0,50 euro balio du, euro bat joan-etorriak.

Bestalde, Elgeta eta Aretxabaleako biztanleak astean joan dira erromes Arantzazura eta Arrasatekoak domekan doaz.

Arrasate hobea egiteko lanean

Arrasateko enpresa, erakunde, alderdi politiko eta gizarte mugimenduetako ordezkariak Eskoriatzako Mendigoia hotelean elkartu ziren eguaztenean. Etorkizuneko Arrasate iraunkorra izateko zer egin behar den hausnartzen dabilta joan den apirila ezker, eta oraingo asteko batzarrarekin bukatu dute hausnarketa. Garraioa, energia kontsumoa, hezkuntza, Udalaren ekintzak, eta beste azertu dituzte. Datorren hilean aurkeztuko dituzte lanaren emaitzak.



UBANE MADERA

> ARRASATE

Eak Alkartasun Eguna egingo du hilaren 17an Arrasaten

Eusko Alkartasunak Arrasaten egingo du Alkartasun Eguna irailaren 17an. Eguerdian ekitaldi politikoa egingo dute Monterronen eta batzorde eragileetako ordezkariak, Jaur-laritzako, Aldundiko eta Batzar Nagusietako kideek hartuko dute parte. Gero bazakaria egingo dute, Musakolan.

> DEBAGOIENA

Garbigunek ordu egun berria izango dute astelehenetik aurrera

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko garbigunek ordu egun berria izango dute datorren astelehenetik aurrera: astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara eta zapatuan 09:00etatik 13:30era. Domeka eta jaiegunetan, berriz, itxita egongo dira.

> ARRASATE

ISO 9001:2000 agiria jaso du Athlon kirol zerbitzuak

Kalitatezko eskola kirola antolatzen eta irakasten delako jaso du Athlon kirol eta osasun zerbitzuak ISO 9001:2000 agiria. Aurtengo otsailean K-2 agiria eman zion Aldundiak. Eskola kirolaz gain, kirol medikuntza eta osasun programak enprestan lantzen ditu Athlon-ek.

> DEBAGOIENA

Udal euskaltegiek matrikulazio epea zabaldu dute

Debagoieneko udal euskaltegiek zabaldu dute ikasturte berriko matrikulazio epea. Euskara ikasi gura eta 16 urte baino gehiago duen edonork eman dezake izena. Matrikula bat zozketatuko dute izena ematen dutenen artean. Hain zuzen ere, irailaren 20an bukatzen da epea.

> DEBAGOIENA

Aldundiak ibarrerako proiektuak ditu ikasturte berrirako

2006-2007 ikasturterako Aldundiak dituen proiektuak aurreratu dituzte eta horien artean Debagoieneko dituzten asmoak agertzen dira. Besteak beste: A-1 autobideko Arrasate-Iguskitzea errepidea egitea, Urkuluko landa parkea zabaldu eta Bergara eta Arrasateko zaharren egoitzak berrizatu.

ENPRESA > MARTXOAN EGINGO DUTE ZUZENDARI ALDAKETA

Elias Atutxa izango da Euskadiko Kutxaren zuzendari nagusi berria

Euskadiko Kutxako Errektore Kontseiluak esan du "zuzendaritza postuen txandaketa soila" dela aldaketaren zergatia; "ez dagoela azpiko beste arrazoirik"



GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Euskadiko Kutxak 2007ko martxoan egingo duen batzar orokorrean zuzendaria aldatuko dute.

16 urtez Euskadiko Kutxaren zuzendari nagusi izan den Juan Jose Arrietaren lekua Elias Atutxak hartuko du. Ordura arte biek elkarrekin jardungo dute lanean eta Elias Atutxak Lagun Aro Aseguruak zuzendari izaten jarraituko du, egun den moduan. Juan Jose Arrietak ere erakundearen barruan jarraituko du, baina bere lana definitzeko dago oraindik.

Euskadiko Kutxako Errektore Kontseiluak erabakia hartzerakoan esan duenez, "zuzendaritza postuen txandaketa soila da aldaketa horren zergatia, ez dago bestelako azpiko arrazoirik ez eta desadostasunik kutxaren politikari dagokionez".

Bide batez, azpimarratu egin nahi izan du Juan Jose Arrietaren lana: "Pertsonalki zein arlo profesionalan Euskadiko Kutxari asko eman dio erakunde buri izan den 16 urte hauetan",

esan du Errektore Kontseiluak idatzi baten bidez.

BETIDANIK MCC-N

Elias Atutxa Arestik 50 urte ditu. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean eta Enpresa Zuzendaritzaren gaineko masterrak ere egin ditu. Bere ibilbide profesional osoa MCC barruan egin du. 1988a ezkerro Lagun Aro Aseguruak eta Lagun Aro Vida Aseguruak zuzendu ditu. Lagun Aro Vidaren sorrera dago bere lanik esanguratsuenen artean.

Enpresaren garapenean ere zeresan handia izan du; besteak beste, urrezko Qa lortzeko prestakuntzan. Lagun Aroren barruan hainbat zerbitzu berri abian ipintzen lagundu du, hala nola: enplegu laguntza, langabezia kudeaketa eta lanpostu aldaketa.

Sektoreko jardunaldi eta kongresuetan ere hartu du parte beste herrialde batzuetako aseguru konpainietako zuzendariekin.

LEHORTEA > IBARREKO UR HORNIKETA

Lehorteak oraingoz ez du ur falta arazorik ekarri gurera

Ibarreko herri gehienak urez hornitzen dituen Urkuluko urtegiak edukieraren %71 du beteta eta, oraingoz, ez dago arazorik



MIRARI ALTUBE

JAITSI Ur maila jaitsi arren urkulun edukieraren %71 du beteta.

I.A. > BERGARA

Abuztua hain beroa izan ez den arren, iraileko lehen egunetan tenperatura altua izan da protagonista. Beroak lehortea dakar askotan eta aurtengoa urte lehorra izan da. Hala ere, inguruko urtegien egoera ez da kezkatzeko modukoa.

Ibarreko herririk gehienak urez hornitzen dituen Urkuluko urtegiak edukieraren %71 du beteta; beraz, oraingoz lehortek ez du aparteko eraginik izan.

ARAZOA ARAMAION

Aramaion iturburu propioa dute, eta, auzoetan ur-andelekin moldatzen badira ere, arazoa kalekoarekin dute. Abuztuaren debe-

katu zuten igerilekuak betetzea eta zelaiak ureztatzea, eta gaurtik ortuak garaztatzea ere galaz dute. Oraingoz ur mozketarik ez da izango herrian, baina arazoa larrituz gero gauerditik 07:00etara egingo dituzte etenak.

Gatzagan Ur Partzuergoak kudeatutako depositua dute; orain-

goz ez da mozketarik izan. Hortaz, ur faltan ez daudela dirudi.

Momentuz, beraz, ez dago aparteko arazorik ur horniketarekin gurean, baina ura gero eta urriagoa denez, hainbeste ez kontsumitzeko ohiturak hartu behar ditugula gogorarazi nahi dute adituek.

kontsumoa



Janarietan %70 gastatzen zen 1830ean; egun, %20.

GOIENKARIA

Orain dela mende bete baino %50 gutxiago gastatzen dugu elikaduran

GOIENKARIA > BERGARA

BBVaren ikerketa baten arabera, 1830ean, aurrekontuaren %70 gastatzen zuen Espainian familia bakoitzak elikaduran. Bestelako gastuetara bideratutako kopurua txikiagoa zen (%3,3). Egun, berriz, janarietarako %20 erabiltzen da eta bestelako gastuetarako %50. Izan ere, XX. mendearen hasieran, familiak josteko makinak, argazki kamerak, bizikletak, irri aparailuak, telefonoak zein autoak erosten hasi ziren; eta elikadurako gastua %60an mantendu. 1958an, ordea, %55era jaitsi zen kopurua. 60ko hamarkadaren amaieran, %50aren azpitik kokatu zen elikadura gastua eta 1980tik aurrera joera hori indartu egin zen. Aurten, lehen seihilekoan elikadura gastua 29.083 milioi eurora iritsi da, iaz baino %6 gehiago. Kalitatezko ardoa igo da gehien (%8), baita garagardoa ere (%7). Ur mineralaren, freskagarrien eta fruta eta barazkien kontsumoak ere gora egin du. Jaitsi direnen artean daude oliba-olioa (%6,4 gutxiago) eta esnea.



Gidabaimenaren puntuak salgai ipini dituzte Interneten

Bi hilabete eskas dira puntuko gidabaimena abian ipini zutela, eta jadanik Interneteko foroetan eta baita sareko enkanteetan salgai ipini dituzte puntuak; gutxi gorabehera 400 euroren truke. Puntuen trukea gidaria zein den identifikatu ez denean bakarrik egin daiteke: radar bidezko argazkiak eta garraio publikoarendako bidean autoa uztea, besteak beste. Hain justu, kasu horietan, autoaren jabeak esango luke puntuak saldu dizkiona zela gidaria arau-haustea gertatu den unean.



Iragazi gabeko kafea, kolesterolaren kalterako

Ikerketa baten arabera, kafea iragazita hartuz gero kolesterol maila ez da igoiko ohiko kafe hartzaileen kasuan. Kafeak bi alkohol diterpeniko ditu: *cafestol* eta *kabehol*. Horiek kafea presatatu bitartean askatzen dira eta kolesterol maila igo dezakete. Beraz, kafea nola presatzen den garrantzitsua izan daiteke kolesterol tasaren eraginean. Horrela, paperezko iragazkiak erabiliz gero, alkohol horiek bertan geratzen dira; alderantziz, ordea, alkohol horien kopuruak gora egiten du.

gure artekoak

PK INJEKZIOAK > Moldeen diseinuan eta fabrikazioan jarduten duen enpresa da; bai planotik abiatuta eta baita piezaren eredutik ere. Plastiko injekzioz piezak ere egiten dituzte Migel Altuna institutuko tailerrean.

Oihana Garmendia

"Helburua da enpresa noizbait eskolatik kanpora ateratzea"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Plastiko eta kautxuaren gaineko heziketa zikloa egin ostean, enpresa batean jardun zuen lanean Oihana Garmendia bergararrak. Ondoren, Migel Altuna ikastetxeak enpresa proiektua abian jartzeko eskaintza egin zion eta horretan dihardu gaur egun.

Hain gaztea izanik zure enpresa daukazu. Nola hasi zinen?

Migel Altuna institututik dei egin zidaten ideia bat zutela-eta ea prest nengoen aurrera ateratzeko. Baiezkoa eman nuen eta honetan dihardut.

Zer egiten duzue enpresan?

Beste enpresa batzuetako moldeak diseinatu ditugu plastikozko piezak egiteko. Moldeen diseinua egiten dugu, mekanizatu eta gero doitu edo injekzioa egin.

Zeinendako egiten duzue lan?

Hasieran eskolarako oparitarako lanak egin genituen: supermerkatuetako orgatilendako fitxak, giltzatak... Gainontzean, askotariko enpresak etorri zaizkigu Bergara ingurutik, Getariatik, Gasteiztik, Madrildik...

Zein produktu egiten dituzue?

Askotarikoak: errodameduak, plastikozko koilaratxoak



Oihana Garmendia, Migel Altuna institutuko tailerrean.

I.A.

FITXA TEKNIKOA

> INSTALAZIOAK

Eskolak euren eskuetan jarri ditu makinak, eta irakasleen laguntza dute arazorik izanez gero.

> LANGILEAK

Oihana Garmendia du enpresaren ardura eta injekzioa egiten dute Miren eta Olatz Etxezarretak.

> BEZEROAK

Guztira bederlatzi bezerorendako egin dituzte lanak. Batzuetako produktu bakarra eta besteendako hainbat ekoiztu dituzte.

sukaldaritza eskola batean dastatze txikiak egiteko... Beti pieza txikiak. Batzuek ideia bakarrik ekartzen dute; beste batzuek, planoak.

Zein dira zailtasun handienak?

Gure lana ezagutzera ematea; baina horretarako eskolaren laguntza izan dugu.

Etorkizunerako asmoak?

Gero eta lan gehiago egitea eta bezero gehiago izatea. Eta, ahal bada, eskolatik kanpora ateratzea enpresa; baina hori zaila da, makineriari dagokionez inbertsio handia eskatzen duelako.

etxeke leihotik



Julen Iriondo > GOITBko albistegietako arduraduna

Bainatzera teleferikoan eta "hello" campinge

Beste komeria batzuk aparte, Pirinioetan eta Kataluniako kostaldean ibili gara oporretan. Bidaian egiaztatu ahal izan dut gurea nahikoa herri ezaguna dela han-hemen. Bidean aurkitutako hainbat lagunekin hizketan, batek baino gehiagok ezagutzen zuten Oñati edo zuen haren berri: Madrileko gazte batek, esaterako, berandu baino lehen eskalatzera Araotzera etortzeko asmoa zuela esan zigun; kataluniar bat, berriz, makina bat aldiz Ulmara lanera etorritakoa omen.

Kooperatiba eta gure ingurunea, herrian turismoa bultzatzen hasi aurretik ere ezagun egin gaituzten bi arrazoi. Azkenaldian kanpokoak erakartzeko hasitako ahalegina ere hasi da, ordea, emaitzak ematen: iaz baino %19 bisitari gehiago eduki omen dugu aurten. Eta martxan diren beste egitasmo batzuk ere norabide horretan daude pentsatuta.

Ondo da, baina ez edozein prezioetan; gure eta bizi garen ingurunearen nortasunari eutsiz. Hori behintzat ez dezagun galdu kanpotik etorriko diren erosotasunaren eta hauek ekarriko duten etekinaren truke.

> Kala bat ikusi genuen Gironako kostaldean, erabat urbanizatua eta hondartzara jaisteko teleferiko eta guzti. Ulerzten ditut Euskal Herrira etorri eta ukitu gabeko itsas-bazterrak miresten dituztenak.

> Camping batean izan ginen Blanesen. Ingelesa zuten hizkuntza ofiziala. Eguneko egitaraua zekarten kartelak ingelesez, telebistan futbolera ere bai... Gu ez, kataluniarrek ere ez ziren etxeke.

"Turismoa bultza dezagun, ados, baina gure nortasunari uko egin gabe"

begi-bistan



San Matei egunean dantzaren (Bergara) 2006/09/03

Argazkia: Karmele Agirregabiria.
Testua: Karmele Agirregabiria.

Domekan San Matei eguna ospatu zuten uberarrek. Denetarik izan zen: auzoko umeen dantzaldia, bola jokoa, pintxoak, bazkaria ermitan eta gero, Aritzek eta Enaitzek lagunduta dantzaldia.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Iñaki Riviere

MARGOLARIA



Tomas Larrañaga

NEKAZARIA



Xabier Lijo

LASTERKARIA

Arrasatearrak A *grandes rasgos* izenburuean bakarkako erakusketa ipiniko du Donostian. Kutxaren Bulebarreko erakusketa aretoan izango dira bere 28 lan ikusgai irailaren 8tik 24ra bitartean. Lanen artean amaitu gabeko bi obra ipiniko ditu, jendeak prozesua ikus dezan.

Ordiziako Euskal Jaie barruan egingen den azokan hainbat lehiaketa izaten dira, eta gurea etorri dira sari batzuk. Barazkietan Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañagak eta behietan Bergarako Juan Maiorak bigarren saria jaso dute.

Bergarako korrikalaria bosgarren postuan sailkatu zen domekan Mendatan jokatutako proban. Partaideek 42 kilometroko ibilbidea izan zuten eta Lijok lau ordu eta 20 minutuko denbora egin zuten. Euskal Herriko mendi lasterketen txapelketan ari da lehiatzen Xabier Lijo.

Gurutze Gorriko boluntarioa da Marta Bermejo oñatiarra azken 12 urte hauetan. Txalupetan Kanariar Uhartetara heldu diren etorkinei laguntzera joan da uztaileko azken astean. Zazpi egunean bi txalupa heldu ziren Kanaria Handira; horietako baten 76 senegaldar zihozen, denak gizona. Esperientzia gogorra izan arren, hilaren 15ean bi astetarako doa.

Marta Bermejo > Gurutze Gorriko boluntarioa

"Dirurik ez badago, beti da zailagoa etorkinen arazoari irtenbidea bilatzea"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Kanariar Uhartetara heldu diren etorkin kopuruaz asko hitz egin da aurtengo udan. Etorkin horietako batzuk bertatik bertara ikusi ditu Marta Bermejo erizain oñatiarrak Kanaria Handian: haiei zauriak sendatzen ibili da astebetez, Gurutze Gorriarekin joanda. GOIENKARIARI kontatu dio han ikusitakoa.

Zer ikusi zenuen Kanaria Handira iritsi zinenean?

Hotelera heldu baino lehen deitu egin zidaten txalupa bat heldu zela esateko. Hunkitu egin nintzen, eta beste laguntzaileei esan nien behar bada bakarrik egoteko denbora beharko nuela, baina ez duzu horretarako denborarik. Itsas salbamendukoak etorkinak nola ekartzen zituzten ikusi nuen, eta etorkinek aurpegi goibelak zituztela konturatu nintzen berehala.

Zein zen zure lana?

Bi kanpin denda dituzte jarrita, eta, zaurien eta egoeraren arabera, batera edo bestera eramaten dituzte etorkinak. Egoera onenean daudenei arropak erazten dizkiegu, eta arropa lehorrak, ura, zuku eta gailera batzuk ematen dizkiegu.

Zenbat eguneko bidaia egiten dute?

Nire lehen txalupan, adibidez, 76 lagun etorri ziren eta 11 egun egin zituzten itsasoan. Baina eurek ez dakite nora heldu diren; Europara joateko bidaia hasten dute Senegalen, baina ez dakite nora doazen edo itsasoak nora eramango dituen.

Nongoak dira gehienak?

Senegaldik etortzen dira gehienak, baina Afrikako edozein herrialdetan bizi dena Senegalera joaten da lehenengo, han txalupa hartu eta Europara joateko. Gambiatik ere, adibidez, asko etorri dira.

Erredurak edo deshidratazioa izaten dute askok, baina zer moduz daude psikikoki?

Haiek ez dizute aurpegira begiratu, morala hankapean dute. Urik gabe gelditzen direnean, itsasoko ura edaten hasten dira, eta horrek, urdaila ez ezik, burua ere nahasten die.

Zenbat denbora egiten dute han egoera horretan?

Beharra dutenak ospitalera eramaten dituzte, eta besteak



O.E.

komisariara eramaten ditu poliziak, autobusetan sartuta. 72 ordu egoten dira han.

Egun baten egokitu zitzaidan komisariara joatea zauriak sendatzera. Niretzat, gogorrera izan zen hura: frontoi antzerako baten zeuden denak botata, koltxo batzuen gainean. Afrikarrak irribarretsuak izaten dira, baina han inork ez zuen irribarrerik egiten; handik aurrera zer gertatuko ote zitzaien galdetzen zioten euren buruari. Komisariatik erreklutamentu zentroetara bidaltzen dituzte, Las Palmasera.

Hitz egin duzu eurekin? Zer kontatu dizute?

Bidaia oso garestia da euredako, 3.000 bat euro, eta familia osoak laguntzen du hori ordaintzeko. Etxeko azkarrena bidaltzen dute, hizkuntza ezagutzen duena eta ikasten ona dena, gero Europan ikasteko eta lana aurkitzeko, diruarekin etxean utzi duten familia osoari laguntzeko. Batzuek bazekiten espainolez,

LAGUNTZA

"Zauri fisikoak izaten dituzte, baina psikikoki ere jota daudela ikusten duzu aurpegietan"

BIDAIA

"Bidaia gogorra da, baina eurek ez dakite nora heldu diren, Europara abiatu direla soilik"

HELBURUA

"Etxeko azkarrena bidaltzen dute beti, Europan dirua egiteko eta familiari laguntzeko"

baina aurpegiekin esaten zuten esan beharreko guztia.

Batzuek ekartzen dute etxeko telefono zenbakia, edo Espainian duten senide edo lagun baten, baina beste askoren etxetan ez dakite senide hori non dagoen edo ezer gertatu ote zaion.

Batzuk euren herrialdeetara bidaltzen dituzte bueltan. Bizi duten esperientzia kontatzen diete herrikiideei?

Ghanan egonda nago ni, eta han ikusi dut jendeak ez duela esan gura gaizki pasa duela. Denek dakite bidaia gogorra dela, baina duten azken aukera da eta saiatu egin behar dute. Askok hiru edo lau aldiz saiatu dira.

Diozu beste ate batzuk itxi dizkietelako heltzen direla orain horrenbeste etorkin txalupan.

Itsasoan egin behar duten bidaia oso gogorra da eta, horregatik, gehienek uda aukeratzen dute saiakera egiteko. Egia da aurtun asko etorri direla, akaso

beste ate batzuk itxita dituztelako dagoeneko: Algecirasko hesia, adibidez, handitu egin dute eta handik ezin dira pasatu.

Zein da irtenbidea?

Uste dut Espainiako eta etorkinen jatorrizko herrietako gobernuak bilatu behar dutela irtenbidea. Dirua garrantzitsua da denontzat eta, dirurik ez badago, zailagoa da arazoa konpontzea. Kanariar Uhartetako jendea ere nekatuta dago, baita emozionalki ere. Askok egun guztian dute piztuta segapotoa.

Elorregiko Gurutze Gorrian egoten zara zu. Zer moduzko uda izan duzue?

Lan handia izan dugu abuztuan. Etxetara bidaia-zerbitzu asko egin ditugu, baita gaixoak ospitalera eramateko ere. Oporretan, edadetuak dira etxean gelditzen diren bakarrak eta, urte osoan ere gaixorik baldin badaude, udan areagotu egiten dira egonezinak.



zabalik

Maite Aristegi

Oztopoak gaindituz

Jeeesus! Amaittu da azkenian agostu dontsuori! Bai, bai, ikusi nahiko zintuzket, *Ruta Ignaciana*-ren deiari jarraiki etorritako pelaje guztitako ehunka turistekin ixa turismo bulegoa baino zabalik ez dagon herri batian zer egin asmau ezinda! Urterokua. Baina bisitarixak nahi badittugu, zeozer gehixao eskeintzeko be antolatzen hasi beharko dogu ezta?

Eta *prozesu* ikusezinaren uda honetan lanez lepo baita, euskaldunon hain lagun dan, frankismoaren oinordeko ezaguna, Auzitegi Nazionala. Errepresinuaz, espetxe politikiarren laguntzaz, bidian harri koskorak edo harritzarrak jartzen eten barik. Bederatzigarren hilabetez Madrilerako bidian jarri dittu 18/98ko dozenaka kalbarixo-kideak.

Danonak diran eskubide zibil eta politikoen aldeko Herri oso baten deiadarrak be ez dau lortu lotsagarrikerixa hau eteterik. Politikia egin behar dan garai-xan, Herrixaren alde baino egin ez dabenak, hara eta hona, haurdunaldi luze honen ondoren zer gertatuko dan jakin barik.

Eta aste honetan bertan beste 18 lagun, Auzitegi famatura. *Prebentiboki* atxilotuak, batzuk jada hiru urte eta erdi kartzelan, norbaiti hartutako paperetan euren izenak agertzen dielako. Hau da markia! Norberak jakin barik ixa danok izan geinke ETA-koak!

Oztopoak oztopo, dagozkigun eskubideak aldarrikatzen jarraitu behar, ahalik eta indar gehixen pilatuz, honei ahalik eta bukaera txukunena emon eta zain dauden epaiaketa hasi ez daitezten.

Gure Herri izaera onartzea zortzimilakua igotzea ezinbestekoa egiten bazaie be, kartzelako zein kanpoko euskaldunon oinarritzko eskubideak itzulizaz ariketak egiten hasi beharko dabe. Bestela jai dogu!

"Bisitarixak nahi badittugu, zeozer gehixao eskeintzeko be antolatzen hasi beharko dogu"

"Eta aste honetan bertan beste 18 lagun, Auzitegi famatura"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarritzko diseinua Goia Arana Maketazioa Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Legе Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

PUNTU BIDEZKO
GIDA-BAIMENA

"Nire herriko udaltzainek isuna ipintzen baldin badidate, gero gidabaimenetik puntuak kendu ahal dizkidate?", galdetu digu horren gaineko kezka handia duen irakurle batek.

Arrasateko Udaltzaingora jo dugu argibide bila. Han jakinarazi digutenez, berez puntuak bakarrik ken ditzake Zirkulazio Sailak.

Hori bai, edozein herritako udaltzainek salaketaren bat ipinuz gero, salaketa hori bideratuko dute Udaltzaingotik Zirkulazio Sailera, programa informatiko berezi baten bitartez. Eta salaketa motaren arabera, Zirkulazio Sailean erabaki beharko dute gidari horri puntuak kenduko dizkioten edo ez. Hori bai, gaineratu digute, baita ere, oraindik ez dutela programa informatiko hori instalatu.

OZTOPO
ARKITEKTONIKOAK

Hara beste irakurle batek zer dioten: "Aretxabaletako Udala oztopo arkitektonikoak kentzen hasi

**zen orain urte batzuk, baina kon-
turatu naiz behera jaitsitako espa-
loi batzuk altxatzen dabilela; Kur-
tzebarri eskola inguruan, esate-
rako. Zergatik?**

Abiadura murriztera behartzen duten zebrabideetan –igota dauden zebrabideak– espaloia altura berean egotea komeni da, Udaleko Hirigintza Saileko ardura-dunen esanetan. Bestela, lehenengo jaitsi eta gero igo egin

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

behar dute bai gurgildun aukian doazenek, bai edozein herritarrek ere, eta hori ere oztopoa da. Horregatik beste herri batzuetan bezala espaloia batzuk altxatzen hasi dira Aretxabaletan.

GATZAGAKO JAIK

Leintz aldeko irakurle batek, berriz, esan digu entzun duela nonbait oraingo asteburuan trialsin erakustaldia dagoela Gatzagan, eta jakin gura du hori noiz eta non izango den.

Gatzagatik kontatu digute halaxe dela, bai, trialsin erakustaldia antolatu dutela aurtengo jaietarako, eta, hain zuzen ere, horixe izango dela berrikuntzetako bat.

Kontua da aurten Dorletara bizikleta igoera aurreratu egin zutela-eta, jaietarako beste ekintza hau antolatu dutela bizikleta-zaleendako. Eta gonbidatuen artean, gainera, Diego Barrio munduko junior txapeliduna izango da.

Trialsin erakustaldia Gatzagako Malkorre plazan egingo dute. Eguerdian partean egin dute hitzordua, 12:30ean.

marrakiz

Unai Busturia



Betiko akatsa

Imanol Murua Uria

www.berria.info/blogak/imanol

Nik espero baino atzerabegirako gutxiago argitaratu dira asteburu honetan EAJren zatiketa historikoari buruz, hausturak hogeitau urte bete dituen. Erreportaia argitaratu genuen *Berria*-n larunbatean (eta Arzalluzek eta Garaikoetxeak norbere liburuetan emandako bi bertsioak kontrajarri, artikulua osagarri batean), eta gertaera haietan protagonista izandako bi lagun

elkarrizketatu igandean, Xabier Agirre EBBko orduko bozeramailea eta Manuel Ibarrondo EAren sorrerako presidentea. Eta *Gara*-k, igandean, Arzalluzen eta Garaikoetxearen bertsioak kontrajarri zituen, liburuetako pasarteekin guk bezala, baina elkarrizketa fiktizio orijinala osatuz. (...)

Eta gaur goizean Radio Euskadiko esatariak zatiketari buruz jardun duenean, gaiari buruz prentsak atera duena hizpide izan duenean, *Gara*-k argitaratu duena baino ez du nabarmendu, nik entzun dudanean behintzat.

Gurea errua, betiko akatsa egiteagatik: euskaraz argitaratu dugu.

'Volver'-ek goragalea

Urtzi Urkizu

www.berria.info/blogak/urtzi

Ezin dut ulertu nola eman dioten Fipresci saria *Volver* filmari. Munduko 350 zinema kritikarik eman dute botoa, ondo da. Haietako gehienei gustatuko zitzaien

plazara

Batasuneko ordezkariak orain dela 30 urte ezagun egin zen Bergarako Alkateen Mugimendua ekarri du gogora. Talde hark egindako lana

azpimarratu du: "Alderdien siglen ginetik, alderdikeria alboratuz, herri honen bozgorailua izatera iritsi ziren" dio. Eta orduko egoera

oraingoarekin parekatu du artikularen egileak, "alderdikeria alboratu eta prozesua blindatzearekin behar zaio" esanez.

Aitor Arantzabal *


Alkateen Mugimendua eta egungo egoera

Uztailaren 21ean 30 urte bete ziren Bergaran, Bergarako Alkateen Mugimendua ekitaldi garrantzitsua egin zuela. 1976ko uztail hartan, milaka pertsonaren aurrean, Foruak derogatu zireneko 100. urtemuga ospatzeko aitzakiarekin Euskal Herriaren etorkizunari begira ekarpen izugarria egin zen.

Urtemuga hori ospatzeko ekitaldi xumea baina esanahiaz bete ospatu zen. Mahaiaren bueltan zenbait alkate ohi bildu ziren, banaka batzuk debagoiendarrak. Elkoro, Altuna, Aristizabal, Murua, Iruin, Larrañaga... Batzuk oso ezagunak, besteak ez hainbeste, baina denek 1975etik 1979ra Euskal Herriarekiko konpromiso itzela erakutsi zutenak.

Ausardia politiko ikaragarriarekin egin zioten aurre momentuko egoera politikoari. Hasieratik onartuz beraien kargua herritarrengandik ez etortzearen beraien esanetara eta mesedetara egiteko konpromisoa zutela. Alderdikeria alboratuz, herri honen bozgorailua izatera iritsi ziren. Herriaren eta herritarren beharrak eta nahia bideratzen asmatu zuten.

Bergaran egin ziren mugimendu honek burutu zituen ekitaldi jendetsuenak: 1976ko uztailaren 21eko plenoa eta ekitaldia, eta 1977ko urtarrilaren 19ko Ikurrinaren legeztatapenaren aldeko ekitaldia. Honegatik ezagutua izan da mugimendu hau Bergarako Alkateen Mugimendua bezala. Mugimendu honek erreferentzialtasun handia hartu zuen. Gobernuko ordezkariekin jarri ziren negoziatzen, Xibertako bileretan egon ziren (1977), sekulako ekarpen politikoa egin zuten trantsizio garaian.



MIKEL ARROIABE

Euskal Herriaren aldarrikapen nagusiak bildu eta defendatu zituzten marko ugartan. Herritarren hitza eta nahia bideratzen asmatu zuten. Euskal Herriak jasaten zuen eskubide urraketa (egun ere jasaten duena) eta zapalkuntza ondo definitu eta oso modu egokian konponbiderako urratsak eman zituzten. Euskararen ofizialtasuna, Amnistia, Ikurrina, Lurraldetasuna, Autodeterminazio eskubidea... Ondo baino hobeto definitu eta defendatu zituzten.

Azkenean, eta batzuen alderdi interesetatik (autonomistak) eta besteen itxikeriatatik (estatu interesak) zauria faltsuan itxi zen. Herriari bizkarra emanez, Erreforma Estatutario soil batekin herri

"Alderdien siglen ginetik, alderdikeria alboratuz, herri honen bozgorailua izatera iritsi ziren"

"Herri honek autodeterminazioa eta lurraldetasuna eskuratuko duen bidea behar du, eraiki dezagun beraz"

honen askatasun egarria itotzea nahi izan zuten. Horregatik, 30 urte beranduago, bide honen antzutasuna agerian utzi dugu.

Gaur egun oso egoera antzerakoa bizi dugu. Prozesu demokratiko bat abian jarri dugu, herri honen eskubideak lortzeko helburuarekin. Euskal herritarren hitza eta erabakia bermatuko duen eszenatoki demokratiko bat eraikitzea nahi dugu.

Guiztiok dakigu prozesu hau egoera zailean aurkitzen dela. Blokeoa, krisia, ez atzera ez aurrera. Egoera larria da eta Ezker Abertzalea desblokeorako tresna izan behar du. Ahalegina egingo dugu prozesua bideratzeko, edukiz janzteko, herri hau eszenatoki demokratiko batera eramateko. Baina guk bakarrik ezin dugu, beste alderdi guztiek konpromiso zehatzak hartu behar dituzte. Ezin dute berriro 1979ko jokaldia errepikatu. Alderdikeria alboratu eta prozesua blindatzearekin behar zaio.

Herritar uholde erraldoia behar dugu prozesua bideratzeari eta blindatzearekin begira, 1976ko uztailaren 21eko argazkia errepikatu behar da herri guztietan. Herriko plaza, txoko guztiak konpromisoz beteriko prozesu-kidez bete behar ditugu.

Kablea euskal herritarren hitza eta erabakian badago, hitz egin dezagun, erabaki dezagun, bihur gaitzen Euskal Herriaren eskubideen aldarri. Herri honek autodeterminazioa eta lurraldetasuna eskuratuko duen bidea behar du, eraiki dezagun beraz.

* Batasuneko Mahaikidea.

zer deritzo zu?

www.goiena.net

EA bakarrik aurkeztuko e da. Ondo?

BAI	%42
EZ	%58

> ASKATASUN HANDIAGOA

Ondo iruditzen zait, ze hala askatasun handiagoa izango du EAk, hauteskondeen ostean nahi duenarekin aliantzak egiteko.

Mikel L.

> GERIZPEAN

Bakarrik aurkezteak badauzka alde onak, baina bere arriskuak ere bai. Ikusteko dago azken urteetan jeltzaleen gerizpean ibili direnak zer babes jasotzen duten.

Joxe

> PNV SOZIALISTENGANA?

PNV sozialistengana arrimatzeko arriskua ere hor ikusten dut. Eta hori ez zait horrenbeste gustatzen.

Txirri

> EZ BURU, EZ HANKA

Ez diot ez buru eta ez hanka ikusten Araban, esate baterako, EAJ eta EA banatuta aurkezteari hauteskundeetara. Zertarako, abertzaletasun demokratiko zentrokoa zatitzeko espainolisten mesedetan?

Josefina

DATORREN ASTEKO GALDERA:
Gehiago erabiliko duzu orain autobusa?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

top

Almodovarren pelikula. Ederto. Ba niri ez zitzaidan batere gustatu. Batere. Puxtarri bakarria eman nion eta gaizki jarri nuen. Oso gaizki. Benetan pelikula kaxkarra iruditu baizitzaidan. Gustueta-rako daude koloreak. Hala diote. Zer egingo diogu. Agian gustu txarra izango dugu. Ez dugu ondo apreziatuko filmaren balorea. Enfin, behintzat entzun diot baten bati pelikula ez zitzaiola gustatu. (...) Ni behintzat Almodovarren mundura itzultzeko gogo gutxiarekin nago. Ez naiz itzuliko zinta ikustera. Ni por el forro.

ERANTZUNA

Aurreko baten ere idatzi nuen hemen, eta esan nuen ez naizela almodovar-zalea baina *Volver* asko gustatu zitzaidala. Berriz diot gauza bera.

Dena dela, ez larritu: 350 kritikariren botoetatik erabaki badute *Volver* pelikula ona dela, ona izango da. Aukera asko daude hori horrela izateko. Beharbada ez, eta denak okertu dira. Edo beharbada zu zara kritikari txarra, eta orain arte ez zara konturatu. Ez dakit, aukera guztiak aztertu behar dira, ezta?

Ez dakit kasualitatea ote den (ez det uste), baina azken urteotan Donostian Fipresci saria jaso duten pelikulak niri zoragarriak iruditu zaizkit.

Bego

Mila 'Berria' esker

Urtzi Urkizu

www.berria.info/blogak/urtzi

Ostiralean 1.000. *Berria* aterako da. Milaka irakurleri esker. *Egunkaria*-ren itxieraren ostean, Euskal Herri osoan lan egin zuten mila lagunei esker. Milaka harpidedunei esker. Blog honetatik denei soilik bi hitz, bihotzez bi hitz baino ez: Mila esker.

koplak

Iratí Agirreazaldegi

Kontxa: arraunaren borroka hotza

Hori ta urdin, gorri a zuri Kontxan jokoan bandera. Trapu zaharrak hainbat eromen baina normala ote da.

Hiru kantabro ohorezko tandan Orio han da, ordea, ur harroetan defendatzeko euskaldunon ohorea.

Gaixorik ere indarrean da noiznahi hainbat arraunlari, botikak nonbait izan liteke traineruentzat mirari.

Orietarrek jasotzen zuten lehen bergararren babesa, Candy tostetan ez dutenetik lana ez da hain erreza.

Dirua banu Portaletasen horra nire apustua: indarrak indar Oriok ezetz aurten lehenengo postua.

Arraun munduko olinpiada beti izan arren Kontxa auzi uretan zipiztintzeak ez al die eman lotsa.

Autobus zerbitzu berria

Arantxa Iturbe
Bergara

Hasiko naiz esaten ostiralean, irailak 1, GOIENKARIAn agertutako notizia batekin benetan poztu nintzen: "Autobus eskaintza berria indarrean dago".

Hau irakurri eta gero ordenagailura jo nuen (Bergara-Oñati-Bergara) ordutegia kontsultatzeko. "Oso ondo, 30 urte pasatu eta gero lanera joateko autorik ez dut behar, esan nuen nire artean".

Astelehen honetan, autobus geltokira abiatu nintzen, baita azkar etxera bueltatu ere, autoaren giltzaren bila. Autobusaren ordutegia egokia zitzaidan, baina Oñatin, geltoki bakar bat zuen, eta nik handik lanera joateko 20 minutu behar nituen oinez eta ez nintzen garaiz iristen.

Suposatzen dut ezarri den autobus zerbitzu honen helburuetako bat bailaran gora eta behera gabiltzan jendea aukera ematea dela, zerbitzu publikoaren bidez gure joan-etorriak egiteko, horrela autoen erabilpena, kutsadura eta trafikoa arazotuz gaituz.

Dudarik gabe, auto erabiltzaileen parte nagusi bat langileak gara. Langileok autoaren ordezkari autobusa erabiltzeko zera beharko genuke:

Kanpoko igerilekuak Bergaran

Oihana Rodriguez > Bergara

Irakurri dut Bergarako San Martin jaietako egitaraua eta ikusi dut irailaren 16an, San Martin egunean, inauguratuko dutela Agorrosin berria. Gogo handia daukat igerileku berriak eta beste guztia ikusi eta disfrutatzen, urte asko izan direlako igerileku barik edo bainuleku eskasarekin Bergaran.

Entzun dut, dena den, ez dituztela egin behar kanpoko igerilekuak. Zergatik ez? Bergaran beti eduki ditugu kanpoko igerilekuak, lehenengoetakoak izan zirela uste dut. Eta orain bat-batean kentzea ez zait ondo iruditzen, atzera egitea dela iruditzen zait.

Horregatik eskatu nahi diot Bergarako alkateari egin dezala ahalegina Bergaran kanpoko igerilekuak ere egiteko. Udan astialdirako guneak beharrezkoak ditugu Bergaran eta aquapark horretarikoa izan daiteke irtenbidea. Hernanin zabaldu berri dute eta uste dut arrakastatsua gertatu dela. Ez dakit hori egitea oso garestia izango den, baina halako zerbaiten beharra badauka Bergarak eta ahalegin serioa egiteko eskatuko nioke alkateari. Eskerrik asko.

1. Geltoki gehiago: gure lantoki inguruetan eta ondo adierazita (seinale bat).

2. Ordutegia: lantokietako ohiko orduetara egokitutako ordutegi bat.

3. Eta abar

Ni bezala ehunka lagun ari gara industria-gune horietan lanean, horietatik hainbat Bergarakoak. Zergatik ez ditugu autobus ordutegi eta geltokiak behar hauetara egokitzen eta gero jendea erabiltzera gonbidatu?

Ni neu nire autoa utzi nire ordutegia pixka bat

moldatu eta autobusez lanera joateko prest nago, behar bada beste batzuek ere bai, egoki jarriz gero horrela jokatuko lukete.

Urkulu ezin hobeto

Jon Agirre
Arrasate

Idazten dizuet azpimarratzeko zein ederto geratu den Urkulu urtegiaren ingurua. Egia esan,

aspaldi ez ginen joaten hara; sasoi batean bai, sarritan igotzen ginen paseatzera, baina aspaldian utzita geneukan. Eta aurtengo udan behin baino gehiagotan egon gara umeekin. Paseatzeaz gain, bizikletan eta patinetan ibili dira gustura neska-mutikoak, koadrila handia.

Oso ondo dago bidea asfaltatuta, oinezkoendako oso egokia da, goiz edo arratsalde pasa joateko eta ibiltzeko ez ezik, jarrira egoteko ere bai, inguruaz disfrutatzen, ipini dituzten begiratokietatik bista ederraz gozatzeko, panelak ikusteko...

Bai, zorionak eman behar dizkiegu oraingoan erakundeei lan bikaina egin dutelako. Eta, eskatzen hasita, eskatuko nioke aparkaleku gehiago egokitzeko. Izan ere, nahiz eta onartu autoa beheko industrialdean utzita ere erraz igo daitekeela eta paraje ederrez goza daitekeela bidean, ume txikiagoak ditugunoi, bizikleta eta traste guztiekin harantz eta honantz ibili beharra dugunoi, zailago egiten zaigu autoa etxean utzita oinez igotzea.

Kontxako zirkua, urteroko zita

Miren Elortza
Oñati

Ezerean aurretik zera aitortu nahi dut: ez zaizkit estropadak gustatzen. Lehorrekoa

naizelako izango da. Ez dakit. Akaso. Uda datorren bakoitzean sufritu egiten dut telebistaren aurrean jarri eta ETB ipintzerakoan: estropadak eta pilota egun santu guztian, eta Oterminen faktoriako dantza, bertso edo trikiti saioen bat.

Estropaden kasuan, gainera, batez ere Kontxako bandera datorrenean, ematen diguten *tufarra* ezin daiteke jasan ere egin. Urtero igual: hasteko, sailkapen saioa; traineru gipuzkoar edo donostiarren batek parte hartu behar duen edo ez... Eta, gero, bi saio, bi domekatar jarraian. Ez, mesedez! Eta, jakina, betiko ika-mikak, urte bakoitzean ukitu ezberdinarekin. Aurten dopinga. Hala! Landys-i kendu zioten Tourra eta hemen ere gogor egin behar dugu. Baina, jakina, oilartxoak tartean dabiltzanean, kaka! Odon handia berekoikerietan, Korta ezin isildu, zelan ba! Jaurlaritza ezin bete legea, federazioa ez dakit nora begira. Lotsagarria!

Berriz diot: berez ez dit batere graziarik egiten kirol honek ikusle moduan, baina horri gehitzen badiogu urtero udan ematen diguten pelmada... Eskerrak La Sextak ez dituela ematen estropadak zuzenean (*Korta el rollo kogollo*), bestela telebista aparailua leihotik behera bota beharko genuke. Hamai-ka ikusteko jaiok gara!.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Gura bezain laster

Itsaso zakarra izango ote, olatuak...? Kontxako banderaren giroa bizitzeko irrikan nago. Laster batean.

Lurraldebusek, Debagoieneko autobus zerbitzu berriak, **50 minututan** eramango zaitu **Bergaratik Donostiara**.

LURRALDEBUS



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!

IKER**SUKALDEAK:**ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48**BAINUAK:**ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42**FAGOR** **UDAL**
EUSKALTEGIAKwww.udaleuskaltegiak.net**matrikula
zabalik****ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz.

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena

etxean bezala25 urte
43 zentro
Todos los niveles
Horarios personalizados
Bekak. HABEko
diplomak...Cristina López (Elgoibar), Oscar Tena (Tolosa), Leticia Viafara (Leintz),
Juan Andrés Rodríguez (Azpeitia), Mari Carmen Barreiro (Pasaia), José Valdivielso (Legazpia), Jesusa Esnaola (Lasarte).

Herriak


Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Bigarren eskuko bizikleta azokarako materiala batzen hasiko dira > 19



> **BERGARA**
Bihar, zapatua, egingo dute San Martinetako azoka > 24



> **ARETXABALETA**
Igerileku ikusgarria eta trinketa proposatu dituzte > 31



> **GATZAGA**
Eguenaz geroztik jaietan dira gatzagarrak, domekara arte > 39

BERGARA > 2003KO MAIATZETIK DAGO ITXITA

Hilabete honen hirugarren astean zabalduko dute Urteaga kalea

LANAK

Zirkulaziorako zabaldu arren, lanak azaroan bukatuko dituzte

DENBORA

Lanek baino denbora luzeagoa iraun du ardura hartzeak

BOST FAMILIA

Etxetik kanpo dauden bost familiak ez dakite noiz bueltatuko diren

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Hil honen hirugarren astean, irailaren 18tik 24ra bitartean, zabalduko dute Bergaratik Antzuolara doan Urteaga kalea. 2003ko maiatzean itxi zuten, mendiko maldatik behera lurra jauzi zelako errepidera eta itxita dago ordutik. Aldundiak jakin arazi duenez, hil honetan bertan zabalduko dute, "gauzak asko okertu ezean". Lanek, hala ere, azaroa arte jarraituko dute, baina ez diote zirkulazioari arazorik sortuko.

LAU PARETA

Lanak bi fasetan egin dituzte eta bukatzeaz dute bigarrena. "Lehenengoan goiko bi paretak egin zituzten, lehenengo trenbidearen azpian, eta guk beste bi egingo ditugu", dio Belen Ortegak, Aballa-Geocisa enpresako obra arduradunak. "Paretak handiak eta sendoak dira; hirugarrenak, adibidez, 54 metro ditu luzeran eta laugarrenak, 35", esan du Belenek.

Pareta horiek egiteko eta lurjauzirik berriro ez gertatzeko, lurra kendu dute menditik eta harrobian sartu egin dute. "Harrobiagatik, lurra apurtuta dago, kraskatuta. Horrek arazoak sortu zizkigun zulatzen hasi ginenean. Goian belarra erein dute eta zuhaitzak landatu dituzte. Ez da asko falta; kalea zabaltzen dute-nean, beste hilabete eta erdi baka-



PARETAK Lur-jauzirik berriro ez gertatzeko lau pareta egin dituzte mendian.

ENEKO AZKARATE

rrik beharko dugu dena bukatzen," dio Belen Ortegak.

HIRU URTE PASA ITXITA

2003ko maiatzean itxi zuten Bergaratik Antzuolara bidean dagoen Urteaga kalea, lurjauziengatik. Inork ez zuen gertatutakoaren

erantzukizunik hartu nahi. Hilabete batzuen ostean, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen arazoa konpontzeko ardura. Hark ordaindu ditu lanak; 2,6 milioi euro gastatu ditu. Udalak, etxebizitza utzi behar izan duten bost familiaren alokairua ordaintzen

du. Lanak adjudikatu ostean hasi ziren arazoa konpontzeko obrak. "Obrek berez ez dute askorik iraun", dio Belenek, "gu martxoaren 16an hasi ginen bigarren fasea egiten eta lehenengoarekin 2005eko ekainean hasi zirela uste dut. Lanek baino denbora luzea-

goa iraun du ardura banaketak eta gestioak".

KALTETU BAT BAINO GEHIAGO

Lur-jauziengatik, errepidea ixteaz gain, 29. zenbakian bizi diren bost familia etxetik atera behar izan dituzte eta Udalak beste etxebizitza bana eman die herrian, euren etxeetara bueltatu bitartean bizi izateko. "Ordubete eman ziguten gauzak hartu eta etxea uzteko. Lehenik hotel batera joan ginen eta orain hiru daramatzagu Masterrekan", diote Julian Del Mazo eta Mari Angeles Lopez senar-emazteek. "Ondo gaude, baina denbora honetan guztian ez dugu lanen berririk izan, inork ez digu inolako informaziorik eman, eta oraindik, behintzat, inork ez digu esan irailan, urrian edo noiz bueltatuko garen gure etxera", diote.

Jose Gazteluk Urteaga kaleko Arregi aroztégian egiten du lana. Luze egin zaizkio obrak eta errepidea zabalik ikusteko gogoia du. "Zuzen lanera etorri ezinik egon gara denbora luzez", dio Gazteluk. Alberto Gullon, berriz, egunero joaten da lanera Bergaratik Antzuolara. "Lehen, Ibargaraitik zuzen joaten nintzen, baina orain saihebidetara hartu behar dut eta kilometro gehiago egiten ditut egunero", dio.



Alberto Gullon
Antzuolan egiten du lan

"Bolun bizi naiz eta Elayra joateko, sei bat kilometro gehiago egiten ditut orain egunero eta ondorioz denbora luzeagoa behar dut lanera joateko", dio Albertok. "Luze egiten dira lanak, hasi aurretik ere denbora luzez egon da eta itxita errepidea", dio.



Julian Del Mazo eta Mari Angeles Lopez
Urteaga kalean bizi dira

"Etxe eroso eta hornitua dugu orain ere, baina ez da gurea eta gure etxera bueltatzeko desiratzen gaude", esan dute senar-emazteek. "Hiru urte hauetan behin bakarrik sartu gara gure etxera, paper batzuk hartzera, eta ez dakigu zein egoeratan egongo den", diote.



Jose Gaztelu
Arregi aroztégikoa

"Desiratzen nago errepidea zabaltzeko. Hilabete batzuetan oinez etorri gara lanera, autoa behean utzita eta saihebidetik bueltan ere ibili gara Bergarara joateko. Bezeroak ere hona etorri ezinik ibili dira, bidea itxita ikusten zutelako", dio Jose Gazteluk.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 9	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Domeka, 10	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Astelehena, 11	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Martitzena, 12	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65
Eguaztena, 13	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguena, 14	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 15	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 9	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 10	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 11	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 12	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 13	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguena, 14	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 15	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 9	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 10	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 11	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 13	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 14	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 15	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 9	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 10	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 11	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 12	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 13	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 14	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 15	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urizarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urizarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurrao, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	09:15
	11:15	10:30
	13:10	13:45
	16:20	17:00
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 9

Bezperan baino laino gehiago izango dira. Arratsaldean ekaitz arriskua handituko da eta tantaren bat bota dezake. Temperaturak berdintsu.




Domeka, 10

Haizea hegoaldeetik sartuko zaigu eta eguna zapatuan baino garbiagoa izango da. Hori bai, iluntzean ekaitz arriskua izango dugu.

EUSKAL HERRIAN

Giro atsegina izango dugu, temperaturei dagokienez, behintzat. Dena den, domekan zapatuan baino gehiago berotuko du, hegoaldeko haizearen eraginez. Hori bai, ezin esan eguzkitsu egongo denik, batez ere arratsalde-iluntze partean ekaitz arriskua izango delako, bereziki, domekan.



oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

> Helduendako dantza ikastaroak

Helduendako euskal dantza ikastaroa antolatu du Leizarra musika eskolak. Izena emateko, joan musika eskolara edo kultura etxera.

OÑATI

> IT txartela ateratzeko azterketa izango da

Informazioaren Teknologien erabiltzaile txartela ateratzeko aukera egongo da gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00-13:00.

ARRASATE

> Boluntariotzako oinarritzko ikastaroa

Boluntario lan egin nahi dutenek bost eguneko oinarritzko ikastaroa izango dute irailaren 22tik aurrera. Hezikide eskolak eta Udalak antolatu dute.

OÑATI

> Udal Euskaltegia izenemate epea

Udal Euskaltegia matrikula egiteko aukera dago irailaren 20ra bitartean, 09:00-13:00 eta 16:30-19:00 ordutegian. Argibideak: 943 78 24 96 edo euskaltegia@oinati.net.

BERGARA

> Kofraixetako zozketako zerbaki saritua

Osintxuko kofraixetako zozketan 3571 zerbakia da sariduna. Mallorcara bidaiaria da saria, eta eskatzeko epea zabalik dago.

BERGARA

> Aranzadi ikastolako ikasleen bazkaria

Aranzadi ikastolan batxilergo egin dutenek bazkaria egingo dute hilaren 23an, ikastolan bertan. Izenemate epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Txartelak idazkaritzan hartu behar dira, 10 euroko fidantza ordaindu ondoren.

ARRASATE

> Emakumeendako tailerrak Ekin-en eskutik

Ekin Emakumeak elkarteak eskulan, orratz-lan eta hip hop-funky dantza tailerrak antolatu ditu. Irail bukaeran hastekoak dira. Izenemate zabalik dago euren egoitzan edo 943 79 83 70 / 651 70 79 36 telefonoetan.

BERGARA

> Euskara ikasten hasteko ikastaro berezia

Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaroa antolatu dute

DEBAGOIENA

> Capoeira ikastaroak antolatuko ditu Senzala Euskadi taldeak hainbat herritan

Senzala Euskadi capoeira taldeak hainbat ikastaro antolatu nahi ditu Debagoien osoan. Ikasturte honetan, bi adin-talde osatu nahi dituzte. Oraingo, Eskoriatzan hasi dute ikastaroa, eta bi irakasle brasildarrek beste bat emango dute laster. Argibide gehiago duzue www.goiena.net/blog/capoeira helbidean.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMO
Egubakoitza, 1

11 °C

MAXIMO
Martitzena, 5

37 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

0 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	25 °C	16 °C	- l/m²
Eguena, 31	34 °C	15 °C	- l/m²
Egubakoitza, 1	28 °C	11 °C	- l/m²
Zapatua, 2	29 °C	15 °C	- l/m²
Domeka, 3	31 °C	12 °C	- l/m²
Astelehena, 4	33 °C	11 °C	- l/m²
Martitzena, 5	37 °C	14 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA UZTAILEAN

Ilbehera 17	Ilberri 25	Ilgora 3	Ilbete 11

BERGARA

> Lotura afektiboaren gaineko ikastaroa

Emakumei zuzenduta, lotura afektiboaren gaineko ikastaroa antolatu du Udal Gizarte Ongizate Sailak. Izenemate zabalik dago 943 77 91 25 telefonoan edo udaletxean.

BERGARA

> Afaria egingo dute 1948an jaiotakoek

1948an jaiotakoek elkarrekin afaltzeko batuko dira hilaren 23an, zapatua. Frontonko plazan batuko dira, 21:00etan. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako euren kontuan.

BERGARA

> San Martinetako danborradako entseguak

Honakoak dira danborradako entseguen egunak: irailaren 11, 12a, 13a eta 14a, Seminarioko patioan. Umeek 19:00etatik 20:00etara entseatzeko dute; helduek, 20:00etatik 21:00etara.

ARRASATE

> Emakume Txokoaren ikastaro eskaintza

Denetariko ikastaro antolatu ditu Emakume Txokoak: idazkera tailerra, maitasunarena, emakumeen aurkako biolentziaren gainekoa, ipuin eta jolas ez sexistena... Izenemate zabalik dago, eta argibideetarako telefonoa da 943 79 41 39.

kale inkesta

Indarberrituta bueltatu zara oporretatik? Helburu berriekin?



Maialen Gonzalez
Ikaslea
Arrasate



Lorea Lorenzo
Ikaslea
Arrasate



Juanito Lizarralde
Langilea
Arrasate



Iñaki Vazquez
Langilea
Arrasate



Aitor Urtubi
Langilea
Arrasate

Oporrak motzegiak izan dira, abuztua bakarrik izan dut jai. Orain, lehenik eta behin azterketak gainditu gura ditut. Gero, kirola egin eta jatearekin zaintzeko asmoa dut. Gero betetzen ez direnak.

Azterketak prestatzen ibili bitartean, abuztuan mila gauza egin gura nituen. Orain, berriz, azterketak bukatzen nabil, baina ez daukat asmo handirik: lagunekin parrandaren bat egin.

Oporretan ez naiz kanpora joan, baina txango dezente egin ditugu. Atsedena hartu baino gehiago nekatu egin gara. Niretzat uztaile eta iraila antzekoak dira, eta ez dut helburu berririk jartzen.

Abuztuan atsedena hartu dut, hala behar nuen-eta. Horretarako baliatzen ditut oporrak. Ikasturte berriarekin erretzeari uztea erabaki dut. Horretan nabil, baina oso gogorra da.

Oporretan ez dut gura beste atsedena hartu, baina baliatu dut lasai egoteko eta indarberritzeko. Ikasturteko helburuak dira gauza berriekin bat ikastea eta Fagorren lanean jarraitzea.

txaloak eta txistuak



J.A.

San Martzialgo ermitaren atea apurtuta



Irakurle batek haserre deitu digu, San Martzialgo (Bergara) ermitaren atea apurtuta dagoela esateko. Asteburuan izan zen han eta atearen erdiko taula goitik behera indarrez apurtuta dagoela ikusi zuen. Udalarari konpontzeko abisua ere eman nahi dio lerroon bidez.

usteak uste

Mirari Altube

Arantzazu, arantzan zaude zu

Arantzazu. Arantzan zu. Amabirjina arantza gainean agertu eta Arantzazu jarri. Ez dakit benetan hala den, baina niri halaxe erakutsi zidaten. Txikitan sarri eramaten ninduten, baina aspaldian joan barik nengoen eta astelehenean iritsi nintzen erromesaldian joan ziren beste aretxabaletar askorekin batera.

Ahaztuta neukan hango handitasuna: mendiak, amildegia eta isiltasuna. Ahaztuta harrien gogortasuna eta darien bakea. Ahaztuta neuzkan frantziskotarren ibilera pausatua eta berba egiteko daukaten ausardia. Harrituta utzi ninduten. Fedeak gizon izaten lagundu behar duela esan ziguten: bizi dugun gizarte honetan aurrera egiteko, politikan zintzoki jokatzeko, inmigranteen alde otoitz egin beharrean laguntza emateko eta beste mila kontutarako. Argi eta garbi azaldu zizkiguten elizak gaizki egindakoak, eta beti gizonaren alde azaldu zitzaizkigun.

Bai, ia mendi tontorrean bizi dira soineko marroiz jantzitako fraideok, baina hankak eta burua lurrean dituztela erakutsi zidaten. Bihar amabirjinaren aurrean agertuko diren politikari askok badaukate zer ikasia Arantzazun.

5 galdera...

Amaia Alberdi

Zangitu estankoa
Bergara

1. Irailero moduan, bilduma ugari ipini dituzue salgai, baina saldu, saltzen dira?

Lehenengo zenbakiak-eta, bai; merke daudenak. Gero, apur bat gutxiago, bildumaren arabera. Izan ere, badaude bilduma batzuk ez dutela merezi jarraitzea.

2. Aurten zenbat iritsi zaizkizue? Badago berezi edo berriren bat?

30 bat-edo izango ditugula pentsatzen dut. Abuztuaren erdialdean hasi ziren iristen eta oraindik ere iristen dabilta. Mordoa dira eta, gainera, formatu handia izaten dute; ez zaizkigu ia kabitzen. Gero, abenduan, Gabon inguruan berriro bidaltzen dizkigute bildumak; batzuk iraileko berak eta beste batzuk berriak. Bereziei buruz, berriz, azkenaldian modan ipini dira muntatzekoak edo eskulanen antzerakoak: trenak, automobila, itsasontziak, kuku-ordulariak, etxetxoak...

3. Eta, berriz, zein da urte-tik urtera gehien errepikatzen direnak?

Auto txikien eta muntatzeko automobilen bildumak. Eta baita liburuenak ere.

4. Eta zein da gehien saldu izan den bilduma mota?

Bada, lehengoa antzera. Liburuak, batez ere idazle jakin batzuenak: Stephen King, Vazquez Figuerola, Isabel Allende, Barbara Wood... Eta auto txikiak ere asko saldu izan dira beti. Muntatzekoak, berriz, ez horrenbeste. Esan beharra dago, baita ere, bildumak ondo erakusteko leku falta izaten dugula hemen; hortaz, asko barruan gorde behar izaten ditugu, eta argi dago gehiago salduko lirakeela kanpoan izango bagenu, baina guztiak ezin ditugu bistan ipini; beraz...

5. Zuek aprobetxatu duzue sekula bildumaren bat egiteko?

Ez. Libururen bat hartu izan dut, baina bilduma osoa sekula ere ez dut egin.



asteko datua

4

Ohorezko lau kofradiakide egingo ditu irailaren 17an Bergarako Erreileno eta Tostoiako kofradiak: Aitor Zabaleta, Pol Pol Mendizale Elkartea, Antxoni Zumelaga eta Bixente Lazkano. 115 lagun inguru etorriko dira ekitaldira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



HESIA Garagartzako eremua itxi egin dute hesiarekin, jendeak ordutegiz kanpo ez erabiltzeko.

U.M.

OBRAK > GARAGARTZAKO AUTOEN MANTENTZE-LANETARAKO EREMUA BIRMOLDATUTA

Ezustekorik ezean, gaur zabalduko dute autoak mantentzeko eremua

Urte pasatxoan itxita izan dute Garagartzako eremu hori; orain, funtzionamendu eta ordutegi berriarekin zabalduko dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Autoak garbitu eta haien mantentze-lanak egiteko eremua goitik behera birmoldatu du Udalak. Lehengo baino handiagoa da, eremuko elementuen banaketa ere bestelakoa da eta baita araztegi sistema ere.

GUNEAK BEREIZTUTA

Batetik, lehen bi auto garbitu ahal izanen lekuan, orain lau edo sei erabiltzaileen antolaketa araberak garbitu ahal izango dira: "Dago lau automobil garbitzeko eremua eta apur bat aurrerago ipini dugu sikatzeko eremua. Bestalde, bukaeran, autoen azpiko aldea ikuskatzeko zegoen gune hura (pezoia) lekuz aldatu dugu; eta gainera, pareta bat jarri dugu zelabait bereizteko bi eremuak: garbiketa eta mantentze-eremuak". Hala jakinarazi digu Ingurumen Saileko teknikari-buru Rafa Ugartek. Gaineratu digu erabilitako olioak botatzeko biltzia ere lekuz aldatu dutela, orain artekoa baino erabilgarriago egiteko asmoz eta olio isurketa arriskua txikitzeko.

HONDAKINAK ETA ARAZTEGIA

Sortzen diren hondakinak bideratzeko araztegi sistema berria ipini dutela ere azaldu digu Ugartek: "Lehen araztegi sistema bakarra zegoen eta arazoak ematen zituen; orain, berriz, bi araztegi ipini ditugu: bata garbitzekoak eta kolektorerak bideratzeko eta bestea olioak araztegi bideratzeko".

Garbiketa kontuekin jarraituz eta legeak esaten duenari

DATUA

24.000 euro gastatu ditu Udalak garbiketa lanetan

Bestelakoen artean, kutsadura garbitzeko lanak egin behar izan dituzte Garagartzan, eta bakarrik hori egiteko 24.000 bat euro inguru gastatu du Udalak: "Jendeak eremua errespetatzen ez badu eta haren mantenua oso garestia baldin bada, ikusi egin beharko dugu zer egin: pertsona bat ipini hura zaintzen edo erabilera kobratu edo zerbait egin".

erreparatuz, bestelako hondakinak batzeko orduan –balazten zapatak, olio filtroak, ez izozteko likidoak eta horrelakoak– ere ontzi berezietan batuko dituzte; hondakin toxikoak batean eta organikoak bestean. Eta hondakin mota bakoitzak tratamendu berezitua izango du.

ERRESPETU BEHARRA

Bestalde, eremua bera birmoldatzeaz gainera, haren funtzionamendua ere birmoldatu gura du Udalak: "Egingo duguna da behin-behinerako kartelak ipini, ikus-teko jendeak zela erantzuten duen. Hori bai, funtsezko gauza da eremua hesiarekin egin dugula eta gauez itxita izango dela. Gainera, ez du argindarririk. Hortaz, eguneko ordutegiarekin ibili beharko dugu. Oro har, hiruzpau hilabete barru zehaztuta izango dugu ordutegia. Baina printzipioz, orain, udan, egongo da zabalik 20:00ak edo 21:00ak arte eta neguan 17:00ak edo 18:00ak arte". Ugartek jakinarazi digunez, kontua da orain arte erabiltzaile askok ez duela behar bezala erabili Garagartzako mantentze-eremua: "Edozein lekutara botatzen dituzte hondakinak, itxita izan denean ere ibili da han jendea... Eremua bera ez dute askok behar bezala errespetatu".

HIRIGINTZA > GELMA AUZIA

Osoko bilkura berezian landuko dute Gelmaren gaia

Irailaren 18an egingo dute batzarra eta han onartu beharko dute Obenerrekaren eta Udalaren arteko hitzarmena

U.M. > ARRASATE

Uztailaren amaieran finkatu zituzten Udalaren eta Obenerrekaren arteko hitzarmenaren nondik norakoak. Eta horri esker, Gelmako etxeak eraikitze proiektua desblokeatu egin dute.

Hori horrela, oraingo asteaz geroztik etxeak eraikitzen segitzeko baimena eskuratu du Obenerreka promotoreak. Hain justu ere, eta Hirigintza Sailetik jakinarazi digutenez, baimena eman diote 143 etxebizitza izango dituen lehenengo blokea eraikitzeko.

ZIRRIBORROA EGITEN

Edozelan ere, hitzarmena oraindik ez da behin betikoa. Jakinarazi digutenez, haren zirriborroa lantzen dabilta Udalan eta irailaren 12an Hirigintza Sailean aztertuko dute, dikta-minatzeko. Dikta-minatu ostean, hitzarmena gauzatu ahal izateko osoko bilkurak onespina eman beharko dio. Udaletik aurreratu digutenez, ezustekorik ezean osoko bilkura bere-

zia egingo dute gai hori lantzeko, irailaren 18an.

ALEGAZIORIK EZ

Bien bitartean, prozesuak aurrera jarraitzen du. Gelmako proiektua bera jendaurrean egon da eta ez du alegaziorik izan. Hala, oraingo asteko Gobernu batzarrak onartu egin du Gelmako konpentsazio proiektu aldatua. Hori bai, onartu dute, baita ere, urbanizazio proiektuari zenbait zuzenketa egin behar zaizkiola, obra aldetik. Eta aldaketa horien gaineko txosten teknikoak aurkeztuko dizkiotela promotoreari.

EB-K HELEGITEA IPINIKO DU

Bestalde, eta fiskaltzak alkatearen kontra zabaldutako diligentsiak artxibatu eta gero, Ezker Batua Berdeak udal taldeak jakinarazi du helegitea jarriko duela Bergarako Instrukzio epaitegian. Alderdiko zinegotzi Ander Rodriguezek azaldu du bere alderdiak errespetatzen duela fiskaltzak esaten duena (Udalak Obenerrekarekin sinatutako hitzarmenean emandako urrats guztiak legezotasunean eman direla), baina gaineratu du ezin duela bat egin erabaki horrekin. Kritikatu du, besteak beste, fiskaltzak artxibatu egin duela salaketa alde formalari bakarrik erreparatuz eta salatu du fiskaltzak inolako azterketa ez egitea eta Ines Aldai zinegotziari galdeketa ez egitea.

> LANA

Sei hilabete iraungo duten bederatzi kontratu egingo ditu Arrasateko Udalak, irailean hasita

Espainiako Enplegu Institutuarekin (INEM) sinatutako hitzarmenari esker, Udalak bederatzi langabe kontratatuko ditu: bi baso langile, berdintasunerako agentea, administrari laguntzailea, delineaizalea, lorazaina edo baso-langilea, ingeniari tekniko elektronikoa, historialari/arkeologoa eta ikus-entzunezko teknikaria. Enplegu zerbitzuan bertan erabakiko dute hautagaien zerrenda.



Lorenzo M. Joosten m.s.

Medikuntza naturalean espezialista (Ereg. zenb. 9700118)

- Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa
- Insomnioa, estresa eta menopausia
- Masajeak (Tuina - Sihatsu - Moxa)
- Alergiak eta defentsen handitzea
 - Haurren hiperaktibitatea
 - Sinusitisa
 - etab.

Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.

Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behea
Arrasate

653 133 281
943 792 913

EMAKUME TXOKOA > IKASTURTE HASIERA

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Irailetik abendura arte emakumeei zuzendutako hamaika ikastaro antolatu dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE

Ikasturte hasiera iritsi zaio Emakume Txokoari baita ere. Inaugurazioa iragarri dute irailaren 22rako. Baina ikastaroak, hasi, irailaren 18an hasiko dira. Hori horrela, ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute: irailaren 4tik irailaren 12ra arte.

YOGA, INGELESA ETA BESTE

Hamaika ikastaro antolatu dituzte Arrasateko eta inguruko emakumeei begira: arte dekoratiboak, tai-chia, yoga, ingelesa, autoestimua, asertibitatea eta komunikazioa, *femeninoaren* boterea, gorputzaren kontzientzia mugimenduen bitartez, dantza afrikarrak, saltsa eta iturgintza.

Ikastaro guztiak arratsaldean dira, yogaren hastapen ikastaroa izan ezik. Era berean, astean egun bakarrean izango dira eskolak, yogarenak eta tai-chiarenak izan ezik.

Prezioei dagokienez, honakoak ezarri dituzte: arrasatearrenak 24 euro, langabeendako 12 euro eta Arrasateko kanpokoendako 30 euro.

Ikastaroetan izena emateko 16:00etatik 19:30era bitartean deitu (943 79 41 39) edo joan behar da Emakume Txokora.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Ikasturtea, berriz, lehen esandako moduan, irailaren 22an estreinatuko dute. *Emeki* izeneko ber-

tso-kabaret saioa aukeratu dute horretarako, Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea bertsolarien eskutik. 19:00etan egingo dute, Herriko Plazan.

ARRETA ZERBITZUA ETA LANTEGIAK

Ikastaroen gainera, ohikoa den moduan, hitzaldiak eta bestelako ekitaldi puntualak ere egingo dituzte Emakume Txokoan irailetik abendura bitartean. Esaterako, emakumeendako lantegiak urrian hasiko dituzte; *Idazkera Tailerra: Gorputza eta Zentzumenak* izango da lehenengoa.

Eta horrez guztiaz gainera, orain arte moduan, Katxalin elkartearen eskutik (Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Emakumeen Elkarteak) arreta zerbitzua izango da eguazteneko, 10:00etatik 12:00etara bitartean.



LEKU BERRIA laz Jokin Zaitegi plazan egin zuten azoka; aurten, Seberren da. A.G.

INGURUMENA > BIGARREN ESKUKO BIZIKLETA AZOKA

Bizikleta azokarako materiala batzen hasiko dira

Irailaren 23an da azoka, Mugikortasun Astearen barruan

dikoak, errepidekoak, umee-nak, eta beste.

IRAILAREN 16TIK AUERRERA

Hiru egun zehaztu dituzte materiala batzeko: irailaren 16an (zapatua), 11:00etatik 13:00etara eta irailaren 19an (martitzena) eta 21ean (egue-na) 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Udal azokara eraman behar da materiala eta salneurria materiala daraman pertsonak berak ipini beharko dio. Hala, azokan saltzen dena materialaren jabe-ari emango diote eta saltzen ez dutena, berriz, bueltatu egingo diote.

U. M. > ARRASATE

Hirugarren aldiz antolatu du Udalak bigarren eskuko bizikleta merkaturia, Bizikleta izeneko. Eta herritarrei dei egin gura die azoka horretan parte hartzeko. Ekimenaren helburua da "berrerabilpena eta birziklapena bultzatzea eta, aldi berean, bizikletaren erabilera bultzatu eta herritarren sentsibilizazio maila indartzea".

BIZIKLETAK ETA BESTE

Zera batuko dute: egoera onean dagoen edozein material: kaskoak, gorpilak, eskularruak, maillotak, patinak, patineteak... Eta baita edozein motatako bizikletak ere: men-

AZOKA EGUNA

Bizikleta azoka irailaren 23an egingo dute, Seber Altube plazan, goizez eta arratsaldean: 11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 19:30ak arte.



U.M.

Presoen aldeko solidarioak Seber Altube plazan

Zenbait presoren egoera salatzen esku-orriak banatu zituzten martitzenan. Besteak beste, salatu zuten zenbait presori erredentzioak eta baldintzapeko askatasuna ukatzen zaiela, "salbuespen neurri ezberdinak" erabilita. Gogorarazi zuten, hori salatzen, Iñaki de Juana gose greban dagoela abuztuaren 7a ezkerre; Arrasateko Gaztañaga presoaren kaleratzea eskatu zuten; eta bi mobilizazio deitu zituzten: egubakoitzean, 20:00etan Arrasateko PSE-EEren egoitzaren aurrean eta domekan, Donostian, 13:30ean.

> BOLUNTARIOTZAKO IKASTAROA

Elkarteetako boluntarioei zuzendutako ikastaroan izena emateko epea irailaren 16an bukatzen da

Ikastaroan, besteak beste, honako edukiak landuko dituzte: gaur egungo errealitatearen azterketa, munduaren egoera ezagutzeko; motibazioak landuko dituzte eta baita komunikazio trebetasunak ere. Parte hartzeko, besteak beste, derrigorrezkoa da 18 urte izatea eta elkarteetako boluntario izatea. Eskolak izango dira irailaren 22an, 29an eta 30ean eta urriaren 20an eta 21ean, euskaraz.

UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armaruak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Eider Zumalde > Arrasateko Euskalgintzaren historia ikertzen dabil

"Lehenengo, garrantzitsuena da sakabanatutako informazio guztia batu eta ordenatzea"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko Euskalgintza osatzen duten taldeek Espainiako gerra ostetik gaur egunera arte herrian euskalgintzak eman duena jaso gura dute. Horretarako, historian diplomadun Eider Zumalde arrasatearra kontratatu dute.

Arrasateko Euskalgintzaren historia jasotzeko asmoa aspaldikoa da, ezta?

Bai, Arrasateko Euskalgintzak berak buruan aspalditik zeukan asmo hori, baina poliki-poliki ideia egituratzen joan dira, eta orain dela gutxi hori bideratzeko dirulaguntza jaso zuten. Hor-taz, aurrera jo eta lagun bat kontratatzea erabaki zuten. Hainbat elkarrizketa egin zituzten eta ni hautatu ninduten.

Noiz kokatzen duzue horren hasiera, eta zeintzuk dira historia horren eragile garrantzitsuenak?

Berez euskalgintza aspaldi hasi zen. Esteban de Garibai, Sebero Altubek... ere landu zuten. Baina gu Espainiako gerra ostetik ikertzen hasi gara, muga bat jartzearen. Historia horretan ezinbestekoa izan da Arrasate Euskaldun Dezagun Elkartea. Ez bakarrik Arrasaten, kanpoan ere oso erudugarria izan da-eta. Beste talde batzuk ere garrantzia handia izan dute. Horietako asko AEDren baitan jaio ziren. Horrez gain, ikastolen aldeko mugimendua ere nabarmentzekoa da.

Lan zientifiko eta dibulgatzaile egiteko asmoa daukazue?

Bai, zientifikoa da ni egiten nabilena, ikerketa hain zuzen ere. Horren ostean, badago asmoa jaso-



Eider Zumalde arrasatearra dabil euskalgintzaren historia ikertzen.

I.B.

"AED ezinbestekoa da euskalgintzan, baita horren baitan sortutako taldeak ere"

"Informazio guztia batu eta ordenatu ostean, aztertzen gabiltza hori guztia zelan zabaldu"

tako guztia moduren baten zabal-tzeko, baina oraindik ez dago erabakita horretarako zer gailu erabiliko den. Hala ere, garrantzitsuena da hainbat artxibo, bulego eta

bestelakoetan banatuta dagoen dokumentazioa batzea, ordenatzea eta zentralizatzea.

Dokumentazioa batzeaz gain, hainbat lagun ere elkarrizketatu beharko dituzu...

Bai, une honetan AEDn dagoen dokumentazioarekin nabil. Horren ostean, Udaletxeko eta Monterron jauregiko artxibotara ere jo beharko dut, han ere informazio ugari dago-eta. Horrez gain, euskalgintzaren alorrean zeresan handia izan duen jendearen testigantzak jasoko ditut. Horretarako, hainbat lagun eta eragile elkarrizketatzeko asmoa daukat.

ESKULTURA > LEHIAKETA

Kooperatibismoaren gaineko eskultura

Kooperatibismoaren gainean antolatutako eskultura lehiaketan dozena bat lan aurkeztu dituzte, eta Monterronen egongo dira ikusgai

I.B. > ARRASATE

Dagoeneko bukatu da Udalak antolatutako eskultura lehiaketarako izena emateko epea. Joan den egubakoitzean bukatu zen epe hori, eta dozena bat lan aurkeztu dituzte. Hain zuzen ere, Bergaratik, Madril-dik, Arrasatetik, Egileortik (Araba), Oñatitik, Berriatutik (Bizkaia) eta Donostiatik etorri dira lehiaketan esku hartzera.

Lehiaketa hori antolatzeko arazoia da 50 urte bete direla Arrasateko mugimendu kooperatibista jaio zela. Hainbat herritarrek hori irudikatuko lukeen eskulturaren bat egitea aproposa litzatekeela argudiatu zuten.

Azkenean, Udalak bere gain hartu du eginkizuna eta uda aurretik abian jarri zituen lehiaketa horren oinarriak. Ezinbestekoa izango da eskultura horrek kooperatibismoaren balioak irudikatzea; kooperatiben mugimenduaren eta Arrasateko herriaren arteko lotura erakustea; eta Arrasate-

ko herriari hainbeste emandion mugimendu horri merezitako omenaldia egitea, besteak beste.

HERRITARREK, BOZKATU

Martitzenetik, irailaren 12a, hilaren 22ra bitartean aurkeztutako lagunen artelaren maketak ikusgai egongo dira Monterronen. Herritarrek euren gustukoena bozkatzeko aukera izango dute.

Eskultura gaietan aditua den epaimahaia ere izango da, baina herritarren iritzia ere aintzat hartuko dute. Hain zuzen ere, herritarren iritzia %30ean hartuko da kontuan.

SARIA, 6.000 EUROKOA

Hilaren 22an emango dute epaia, eta irabazleak 6.000 euro jasoko ditu. Hortik aurrera, aukeratuak azaroaren 22ra arte izango du eskultura egiteko epea.

Eskultura hori Garibaiko aparkalekuaren gainean jarriko dute, Maalatik daukan sarreatatik oso gertu.

> JAIK

Uribarri-Erguingo jaietan herri kirolak, umeendako jokoak, kontzertua eta mariachiak

Gaurtik, egubakoitza, hasita domekara bitartean Uribarri-Erguingen jaiak ospatuko dituzte. Egubakoitzean meza emango dute eta gauean kontzertua egingo du Arrasateko Denial metal taldeak.

Zapatu goizean, gaitariak, umeendako jokoak eta janaurrekoa egingo dute. Bazkalostean, berriz, pilota partiduak, mariachiak eta dantzaldia egingo dituzte. Bukatzeko, domekan, pilota partidua, herri kirolak eta beste egongo dira.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Hizkuntza gehiago denontzat haur, gazte, helduentzat

txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera

Beste zerbitzu batzuk

- itzulpengintza eta interpretaritza
- ikastaro trinkoak
- murgiltze ikastaroak
- atzerriko ikastaroak
- ikastetxeko irakasgaietarako laguntza-eskolak

matrikula epea zabalik

Klaseak:

Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin



Arrasate

Araba Etorbidea 4 ■ Tel.: 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Oñati

Olakua 14 ■ Tel.: 943 71 60 00
mloinati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaia baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAn artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



AITOR KORTABARRIA > DATORREN ASTEAN JOANGO DA HIMALAIARA

"Perun hotz igaro nuen, eta Himalaian horrek ematen dit beldurra"

Aitor Kortabarría datorren astean abiatuko da Himalaian dagoen Ama Dablam mendi tontorrerantz (6.856 metro); zazpi lagunek osatuko dute espedizio hori

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aitor Kortabarría (Arrasate, 1979) Perun izan da abuztuan. Arrasateko beste bi lagunekin batera izan da han –Iban Okina eta Iñaki Egiluz–, eta Himalaian helduko dion erronkari begira Perun igo dituzten bost mila metroko mendiak entrenamendu saio ezin hobeak izan dira: "Eder-to ibili gara han, Peru paradisua da-eta". Horrelako garaieran inoiz egon barik, Peruko espedientzia baliagarria izan da oso: "Ez dut altuerako gaitzik izan, ez naiz horren beldur. Hori bai, Perun hotz egin zuenean gaizki ibili nintzen, eta horrek ematen dit beldur handiagoa".

ZAZPI LAGUNEKO ESPEDIZIOA

Aitor Benasquen izan zen orain dela hiru urte, mendiko gida izateko ikastaroa egiten. Eta, lanean ere egin zituen hiru hilabete: "Baina ez zitzaidan lan hori larregi gustatu. Mendia bera lan egiteko leku paregabea da, baina nekagarria zen. Askotan, mendia zer zen ere ez zekien jendearekin joan behar izaten genuen, eta ardura handia zen". Kontuak kontu, orduan ezagututako mendizaleekin egingo du espedizioa: hiru euskaldun, eta Kataluniako eta Huescako beste lau lagun: "Gauza da, martxoan Cho Oyura joateko espedizioa bertan behera utzi behar izan genuela, ez geneukalako nahikoa diru. Eta orain, Ama Dablamera joateko aukera izan dugunean denok



EZBEHARRA Perutik motxila barik itzuli ziren hiru arrasatearrak. XABIER URTZELAI

esan dugu baietz, amorratzen geunden-eta".

Sei mila edo zortzi mila metroko mendien artean dagoen aldearen gainean egin dugu berba Aitorrekin: "Zamaketari gutxiago behar dira, eta materialak ere ez du punta-puntakoa izan behar. Horrekin batera, mendira joateko baimena eskuratzeko ere gutxiago ordaindu behar da".

Ama Dablamera igotzeak, baina, badu bere zailtasuna: "Gure aurretik espedizio komertzialen bat joaten bada asko erraztuko digute igoera, soka finkoak jarrita izango ditugu-eta. Baina, lan hori guk egin behar badugu, niretzako, behintzat, ez da txantxa

izango. Sasoi onean nago, baina harkaitzean 6a zailtasuneko hormak igo beharko ditugu, bost mila metrora, gainera; eta hori erronka izango da niretako".

EUSKO TRENEN LAGUNTZAREKIN

Arlo ekonomikoari dagokionez, espedizio horietarako gero eta gaitzagoa da babesleak aurkitzea: "Eusko Trenek laguntza txoa eman digu, baina gehiena gure poltsikotik ordaindiko dugu". Perutik ez moduan, Himalaiatik material guztia ekarri gura du bueltan: "Peruko maleten zain gaude oraindik; Himalaiatik, badaezpada, jantzita ekarriko ditut mendiko botak".

KIROLDEGIA > IKASTAROAK

Astelehenean ireki zuen Aukeak izenemate epea

07:45ean hasi eta 20:30era arte izango dira ikastarook, astelehenetik egubakoitzera arte

X.U. > ARRASATE

Aukeak gertu du aurtengo ikasturterako kirol eskaintza. Astelehenean ireki zuten ikastarotuan izena emateko epea, eta datorren egubakoitzera arte, hilak 15, goizez irekiko dituzte bulegoko ateak (09:00-14:00). Hilaren 15etik aurrera, berriz, goiz eta arratsalde izango dira lanean.

AUKERA ZABALA

Kirol ekintzei dagokienez, jakin, 19 ikastaro ezberdin antolatuta dituztela. Ikastaro horiek astelehenetik egubakoitzera arte emango dituzte, Iturripen eta Musakolan. Hala, interesatuek fitness, igeriketa, mantentzeko gimnasia, pilates, aerobik, aguagym eta spinning jarduerak izango dituzte aukeratzeko. Gainera, ikastaro batzuk astean birritan edota hirutan egin ahal dira, prezio ezberdinean. Eta, bi jarduerak batzeko modua ere izango da: adibidez, bi egunetan muskulazioa landu eta beste bi egunetan aerobika edota gimnastika egin. Horrela, sasoiaren erabil-tzaileek lan osoa egin ahal izango dute.

EZ DA GORPUTZA BAKARRIK

Gaur egungo bizi erritmoari aurre egiteko, eta norbera hobeto ezagutzeko, jendeak geroago eta gehiago eskatzen ditu arlo fisikoa eta psikologikoa lantzen dituzten jarduerak. Pilates metodoa da horietako jarduerak bat. Gorputza eta pentsamendua orekan izatea du helburu, baina ez da arlo psikologikoa landuko duen eskaintza bakarria izango.

GORPUTZA ETA KONTZIENTZIA

Hala, gorputza eta kontzientzia izeneko jarduerak ere egongo da aukeran. Ikastaro hori ere norberaren gorputzaren ezagutzan eta zaintzan arduratuta daudenentzako da. Horretarako luzaketak, yoga, higiene posturala, stretching orokorra, lasaitzea eta norbere zaintzarako metodoak landuko dituzte. Ikastaro horretarako, adibidez, bazkideek 30,20 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 40,20 euro.

Aurtengo aukerak, baina, ez dira hor amaitzen. Musakolako bulegoetan izango duzue informazio gehiago, edo 943 77 16 77 telefono zenbakian.



24,65 EURO Ordainduko dute bazkideek spinning egitearren.

GOIENKARIA

OKENDO ETA SANTA MARINAKO UDAL LUDOTEKAK

2006-2007 ikasturterako izena emateko epea: irailaren 18tik 29ra. Ludotekan bertan (irailaren 18tik aurrera, 17.00etatik 20.00etara)



Arrasateko Udala

■ Gazteria Saila

nire bidaiia hura

Miren Segurola
Kubara > 2006ko udan

"Langileak etzanda ikusi genituenean pentsatu genuen atsedenaldea zutela; ez zen horrela"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Ingeniaritza ikasketak egiten dabil Miren, eta MUK eta Mundukidek elkarrekin abiarazi duten proiektu bati esker hiru aste egin ditu Kuban, egurgintzan jardungo lukeen enpresa baten proiektua jarraitzen. Begiak itxita itzuliko litzateke Miren Kubara, "esperientzia ederra izan delako".



Miren Segurola.

"Egia esateko, egurgintzan jardungo lukeen enpresa sortu aurretik Kuban badaude beste behar batzuk. Hau da, lehenengo oinarritzko lehengaia lortu beharko genuke, egurra, eta horretarako arazoak ikusi ditugu han. Hala, lehenengo eta behin zerrategi bat beharko genuke".

Hori da Mirenek eta Mondragon Unibertsitatetik joan diren gainontzeko ikasleek atera duten ondorioetako bat. Hainbat lantegitan bisita egitearekin batera, baina, Kubako hainbat bazterretan izan dira Miren eta lagunak: "Habanan, Santiagon eta Holginen izan ginen, eta Santiago da gehien gustatu zitzaidana. Ez zitzaidan batere turistikoa iruditu eta harritu egin nintzen hango kutsadura ikusita. Baina bertako jendearekin batera egin genuen hango egonaldia, eta oso aberasgarria izan zen".

LANTEGIETAN, LASAI

Kubatarrak patxadatsuak direla egiaztatu ahal izan du Mirenek, baita lanean ere: "Lantegira sartu eta han zeuden guztiak, lasai. Bazter batean lo ikusi genuen langile bat, eta besteak lan handirik egin barik. Hasieran pentsatu genuen atsedena izango zutela, baina ez, ez zen horrela. Eta, kontua da pare-parean zutela arduraduna".

Mirenek dioen moduan, dantzarako askoz ere trebeagoak dira: "Gure artean esaten genuen ezin ginela Kubatik joan kubatar batekin dantzan egin barik, eta horren kontura barre galantak egin genituen. Kontua da, bikotea ondo hel-

duta egiten dutela dantza. Hemen ez gaude horrelakoetara ohituta, eta lagunak dantzarako bikoteari esaten zion tarte handiagoa uzteko, hemen horrela egiten dugula dantza". Izan ere, jakina da kubatarrak zein neskazaleak diren: "Horrela da, bai. Kaletik gindoazenean edozein momentutan hasten ziren txistuka, edo beste-lakoak esaten, eta lasai-lasai gertzen ziren, gainera".

ARAZO BARIK

Kuban proiektu hori egitera joateko ez dute inongo zailtasunik izan: "Mundukidekoak izan dira hango egonaldia antolatu dutenak, eta ez dugu inongo arazorik izan. Egia da Santiagon Holginen baino askoz ere hobeto hartu gintuztela. Eta, guk uste duguna da Holginen horrenbeste behar ez zutelako zela hori. Aireportuan dituzten babes neurrien gainean ere egin dugu berba: "Nire ustez, itxura besterik ez dute egiten,

antzerkia. Zain egon eta gero, gizona eta emakumezkoak bi lerrotan jartzeko esan ziguten. Nire txanda iritsi zenean, poltsa eman, eta begiratu ere ez zuten egin".

Seguruenik, Fidel Castro agintaria gaixotu zenean babes neurri horiek areagotu egingo zirela, baina Mirenek ezin digu horren berri eman: "Gu joan eta gutxira gaixotu zen Fidel, eta lagun batzuk han geratu baziren ere, guk ez genuen egoera hori bertatik bertara bizi izan. Lagunak Kubatik itzultzen direnean galdetu beharko diegu egun horiek zer nolakoak izan ziren".

Kubatik itzulita Miren Grezian izan da oporretan: "Antzik ere ez du, ez nuke Kubako egonaldiagatik aldatuko. Grezia azken batean Europa da, eta Kuban aldaketa askoz ere handiagoa bizi izan dut. Ezer gutxi dute han, baina pozik bizi dira; batzuk behintzat bai".

"Santiagon egin genuen egonaldia izan zen onena, bertakoekin batera izan ginen"

"Fidel gaixotu zenerako gu hemen geunden, eta ezin izan geuen hori bertatik bertara ikusi"



Proiektua jarraitzearekin batera, Mirenek eta lagunak turismoa egin ahal izan dute.

bere ustez



Antton Mendizabal

Quosque tandem Arrasaten?

Urribarrin nago, txoraturikan. Zabal-zabalik begiak, hara Arrasate... desastre handiagoa ez da Europa guztian. Iparragirreraren abestia Arrasaten gaurkotua dugu. Jakina, Mañarian oraindik okerrago dago, eta Euskal Herri honetan lasterketa dago ea nork egiten duen okerrago.

Ez nago Garaia egitasmoak daraman filosofiaren aurka. Unibertsitate eta enpresak lotzen dituen ikerketa guneak ezinbestekoak dira gure etorkizun ekonomikoaren bermatzeko, eta ekimen aurrera-

"Zabal-zabalik begiak, hara Arrasate... desastre handiagoa ez dago Europa guztian"

koi baten aurrean gaude. Baina irizpide ekologiko eta sozialik gabe eta bereziki eztabaida sozialik gabe gauzatu eta gauzatzan dabilzan Garaia egitasmoak, etorkizun oparoaren ordez etorkizun iluna eman diezaguke.

Botere ekonomikoaren izan da beti Arrasateko bilakaeraren eragile garrantzitsuena. Eta beraien helburu ekonomikoari lehentasuna emanez hemen dauzkagu ondorio ekologiko eta sozialak. Azter ditza-gun nekazaritza sektorea, dena txikiak, ibai eta airearen kutsadura, etxebizitzarako eskubidea, gure mendietako kudeaketa eta bioaniztasuna.

Etsipenaren pean nongoen, egia esan, egoera onartuz, baina erne jarri nau Urribarrin ikusitakoak. Quosque tandem Arrasate? Noiz arte Arrasate?

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak



GAZTA LEHIAKETA Zapatuan egingo dute, udaletxeko osoko bilkuran egingo dute aurten.

GOIENKARIA

SAN MARTINAK > ZAPATUAN DA SAN MARTINETAKO AZOKA

Hegaluzea eta perretxikoak ere egongo dira zapatuko azokan

Gazta lehiaketara 40 gazta aurkeztuko dituzte, frutenean sei eta barazkietan 12; aurten ez da lore moztuen lehiaketarik egongo

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Zapatuan egingo dute San Martin jaietako azoka. Hiru gunen nagusi izango ditu: San Martin plaza, seminarioko patioa eta Munibe plaza. Gazta lehiaketa udaletxeko osoko bilkuran egingo dute aurten.

BERGARAR GUTXI

Aurten ez dute lore moztuen lehiaketarik egingo, aurkeztu ez direlako, eta beraz, hiru lehiaketa

ta egingo dituzte: fruta, barazki eta gazta lehiaketak.

Fruta lehiaketan sei lagunek hartuko dute parte eta barazkietan 12k. Guztietatik, hiru bakarrik dira Bergarakoak. Debagoieneko beste herri batzuetakoak, Martutenekoak, Berrizkoak eta Errezilgoak dira gainerakoak. Gazta lehiaketan, Idiazabal izendapena duten 40 gazta aurkeztuko dituzte eta horietako bat bakarrik da Bergarakoa. Joan den

urteko irabazlea ere badator aurten, Elgoibarrekoa. Gipuzkoako beste herri batzuetatik eta Arabatik ere ekarriko dituzte gaztak lehiaketara.

HEGALUZEA ETA PERRETXIKOAK

Seminarioko patioan saltzen jarriko dituzte hainbat produktu gastronomiko eta Munibe plazan, hegaluzeen dastatzea egingo dute, Kalitatea fundazioak lagunduta. Aritzeta abesbatza ere hantxe izango da. Bestalde, udaletxeko arkupeetan perretxiko erakusketa jarriko dute.

Goizez izango da azoka, baina kaleak zabalik egongo dira zirkulazioarendako.

HEZKUNTZA > ESKOLA TXIKIAK

Haur hezkuntza soilik eskainiko dute Angiozarren

Jangela eta zaintza zerbitzua eskainiko dute eskolan urritik aurrera

O.E. > BERGARA

Angiozarko eskolan Haur Hezkuntza soilik eskainiko dute gaur, egubakoitzea, hasi duten ikasturte berrian. Hezkuntza Sailak erabakita, ikasturte honetan ez dute Lehen Hezkuntza eskainiko, orain arte egin duten bezala.

ZAZPI UME GUTXIAGO

2 eta 5 urtera bitarteko umeak egongo dira aurtengo ikasturtean Angiozarko eskolan. "Zazpi ume Bergarara jaitsi dira eta eskolan zortzi gelditu dira gutzira", kontatu digu Mila Egurennek, Angiozarko eskolako ume baten amak. Irakasleak, ordea,

orain arteko berak izango dira, Anselmo Vega Mito eta Paddy Rekalde.

Ekainean jakin zuten Angiozarren Hezkuntza Sailak aldaketak egin nahi zituela: "Zeraingo eta Aginagako eskoletan ere kendu egin dute lehen hezkuntza. Eskola ez ixteko negoziatzen ibili gara Hezkuntza Sailarekin eta Udalak asko lagundu digu. Eske-rrak eman gura nizkieke udal ordezkariari", dio Milak.

Oraindik ez dakite hurrengo ikasturteetan zer eskainiko duten, baina Gipuzkoako Eskola Txikien Federazioarekin batera saiatuko dira eskola zabalik edukitzean.

JANGELA ETA ZAINTZA

"Izugarrizko garrantzia du eskolak eta etor daitezkeen umei begira ere, jangela eta zaintza zerbitzua jarriko dugu eskolan urritik aurrera", aurreratu du Mila Egurennek.



GOIATZ ARANA

Arcelorren lan istripua salatu dute

34 urteko langile oñatiar batek hanka biak apurtu zituen joan den astean Arcelorren izandako lan istripuan. Gertaera hori salatzeke, kale bilkura egin dute, LAB eta CCOO sindikatuek deituta. Istripua formazio faltaren ondorioz izan dela eman dute aditzera sindikatuek, eta enpresari egotzi diote horren errua.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada


Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

B - O - L - U

Harane Erreka 9. tel.: 943 76 72 91 . 20570 Bergara



3rd Karate World Cup
Seminary of Shinkyokshin
Osaka Japan

SPINNINGA
AEROBOX
SHINKYOKUSHINKAI KARATEA
AEROBIKA / STEPA
MUSKULAZIOA
TONIFICACION

SASOIAN EGOTEKOA
ARETOKO DANTZAK
SEVILLANAK
TAI-CHIA
MASAJEA
PILATES

SAUNA
YOGA
CAPOIRA
HIP - HOP
KIROLA EGITEKO OSAGARRIAK
(arropa, janaria)

EGUNEAN AUKERA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

ESKOLA GUZTIETARA
JOATEKO AUKERA

BAZKIDEAK SPINNINGeko
aukera

GUZTIRA EUROTAN

2 EGUN + LARUNBATA
PREZIOA: 36,50€ / HILABETE

HIP HOP
KARATEA
SASOIAN EGOTEKOA
AEROBIKA / STEPA
TONIFICACION
PILATES
AEROBOX
MUSKULAZIO GELA
SAUNA
CAPOIRA

2 ESKOLA 45 MINUTU
PREZIOA: 15€ / HILABETE

51,50€ / HILABETE

3 EGUN + LARUNBATA
PREZIOA: 40,50€ / HILABETE

55,50€ / HILABETE

5EGUN + LARUNBATA
PREZIOA: 44,50€ / HILABETE

59,50€ / HILABETE

SPINNINGA

2 ESKOLA 45 MINUTU + SAUNA
PREZIOA: 34 € / HILABETE

JAIK > SAN MARTINAK

Zazpi elkartek hartuko dute parte San Martin bezperako helduen danborradan

Bi martxa baino ez dituzte joko: San Martinena eta aurten 25. urteurrena betetzen duen Artatse elkartearena

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zazpi elkartek hartuko dute parte aurten San Martin bezperako helduen danborradan. Aritzeta, Artatse, Lasai-Toki, San Joxepe, Sustar Berri, Urdinak eta Zuloa izango dira giroa alaitzeaz arduratuko direnak. Nagusien danborrada hurrengo egubakoitzean, San Martin bezperan, abiatuko da eta Udal Musika Bandaren laguntzaz ohiko ibilbidea egingo du, Errotalde jau-regi ondoko Udal Biltegitik 22:30ean abiatuta.

Guztira, 170 lagun inguruk hartuko dute parte eta aurten go nobedadeetako bat zera izango da: partaideek bi martxa baino ez dituzte joko: San Martine-



DANBORRADA Ohi denez, San Martin plazan amaituko da danborrada.

na eta aurten 25. urteurrena betetzen duen Artatse elkartearena. Bestalde, azken urteotan banderadunak topatzeko zailtasunak izan dituzte antolatzaileek: aurten emakume talde bat arituko da zeregin horretan.

Hurrengo astean ere danborradako entseguak egingo dituzte: astelehenetik eguenera izango dira, Seminarioan. Hurrendako entseguak 19:00etatik 20:00etara eta nagusien entseguak jarraian, 20:00etatik

21:00etara. Haurren danborradan Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako neska-mutilak aterako dira.

Bestalde, irailaren 15erako beste hainbat ekitaldi iragarri ditu Udaleko Kultura Zerbitzuak: arratsaldean, 18:30ean, hurrendako bomba japoniarrak izango dira San Martin plazan eta 19:00etan erraldoi, kiliki eta buru handien konpartsaren kalejira egongo da, Udal Txistulari Bandak eta Kobok gaiteroen taldeak lagunduta.


Kirolak ere tartetxoa izango du San Martin bezperan: gazte mailan eta amateur mailan, Bergara Hiria txapelketako finalen errebantxa jokatu da 19:30ean Udal Pilotalekuan. Gauean, danborradaren ostean, Trikidantz taldearekin dantzaldia izango da San Martin plazan.

PAILAZOAK GAUR MUNIBEN

Gaur, egubakoitza, Jardunen eskutik, hurrei zuzendutako Kiki, Koko eta Moko pailazoan emanaldia izango da Munibe plazan, 18:00etan.

Mahaster River-en lehen diskoa kalean hurrengo astean

Mahaster River taldeak uztailean Andoaingo Garate estudioan grabatutako diskoa hurrengo astean kaleratuko dute. *Irtenbidetik gabeko autobiak* titulupean, hamaika kantu batu dituzte Unai Azkaratek, Mikel Azkargortak eta Fernando Laskurainek. Hamabi sokako gitarrarekin, baxuarekin eta gitarra elektroakustikoarekin, bluesa, countrya eta flamenko estiloak landu dituzte. Gai propioak eta bertsioak dira diskoan. Gaztelupeko Hotsak etxeak kaleratu du diskoa.



GAZTELUPEKO HOTSAK

> ARGAZKIAK

Argazki erakusketa osoko bilkuren aretoan

Euskadi rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu izenburupean, argazki erakusketa inaurratu zuten eguaztenean Bergarako udaletxean. Aipatutako erakusketa irailaren 16ra arte izango da zabalik osoko bilkuren aretoan. Mikel Arrazolak egindako hainbat argazki osatzen dute aipatutako erakusketa. Ondoko ordutegian izango da zabalik: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

> ERAKUSKETA

Saharako argazkiak Aroztegi aretoan, irailaren 17ra arte

Bubisher elkarteak antolatuta, *Sahara. Herri bat; bi errealitate* izenburuko argazki eta bideo erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan, irailaren 17ra arte. Saharako argazkiak eta Manu Izagirrek egindako bideoa ikusteko aukera dago.

Aroztegi aretoaren ordutegia honako hau da: martitzenetik egubakoitzera 18:30etik 21:00etara; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

> IKUS-ENTZUNEZKOAK

Film laburren lehiaketarako epea zabalik dago

Film laburren lehiaketan parte hartzeko epea irailaren 15era arte dago zabalik. Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak deitu du lehiaketa eta Debagoienek bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak. Gaia librea da: film laburra, abesti baten bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketza, dokumentala...

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarren saria 250 eurokoa da. Argibideak 943 77 91 60 telefonoan.

FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2006-2007 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera:
urriaren 2aIzenematea: irailaren 29ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00
eta 18:00-20:00

943.76.30.55

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak

• Zuen komunitateko administrazioa

• Konponketa orokorrak

• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialiaErrekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

ESKAIOLAZKO DEKORAZIOA

J. GIL

Artekale 20 - 3

• Tel.: 615 74 40 95

• 20570 BERGARA



Euskarak merezi du! Bai horixe!



**Ikasi erabiltzeko eta
erabili ikasteko**

**Merezi duela uste baduzu, etorri gugana!
Euskaltegietan euskara ikasi edo hobetu
ahal izango duzu, eta Jardunen egin eta
eragin. ANIMO!**



Bergara Udaleko
Euskara Batzordea
Tf: 943 77 91 66



Jardun
Euskara Elkarte
Tf: 943 76 36 61



Akulu
AEK Euskaltegia
Tf: 943 76 05 18



Udal Euskaltegia
Tf: 943 76 44 53

Kana zuk zeuk atera!

Kartan:
berezitasun alemanak
(ukondoa, haragi-pastela,
saltxitxak,...), ensaladak,
arrazioak eta plater
konbinatuak.

Gosariak • Garagardo karta

Terraza

Pintxo hotz eta beroak

PAULANER

Iparragirre 2
Bergara

Tel.: 943 53 43 68

Bierhaus

Egunero irekita

Aste barruan 9etatik aurrera
Asteburuetan 11etatik aurrera

Nicasio 'Neka' Galan > Bergara futbol taldeko entrenatzailea

"Hutsetik hasi beharko dugu, jokalaria asko berriak dira-eta"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Neka Galanek eta Nedza Zibojeviček gidatuko dute aurtengo Bergara taldea. Urteak daramatzate entrenatzaile lanetan, eta ondo baino hobeto ezagutzen dituzte ibarreko talde eta baita jokalaria ere. Neka-ekin izan gara berbetan.

Aurten erronka handia duzue aurrean.

Bai, hala da. Joan den urtean Josu Zubiari laguntzen ibili nintzen, eta aurten taldearen gidaritza hartu dut, Nedzarekin batera. Erronka handia da, taldea asko aldatu delako.

Horrenbeste?

Joan den urtearekin alderatuta, Bergarak 16 aurpegi berri ditu. Taldearen bizkarrezurra ziren bospasei jokalaria betarok taldea utzi dute, eta gazte mailako lau jokalaria inguru gurekin geratuko dira. Gainera, ez dira aulkian geratuko, seguruena jokatu egingo dute. Eta, horrekin batera, Aretxabaletatik lehendik ezagutzen genituen hainbat jokalaria etorri dira Bergara taldera.

Eta horrenbeste aldaketa izanda, zein da taldearen helburua?

Egia da talde berriarekin hutsetik hasi behar dugula, baina nire asmoa da aurrealdean ibiltzea. Gure helburua da lehenengo hiru taldeen artean ibiltzea, eta Preferente mailara igotzen ahalegindu. Baina badakigu gaitza izango dela, urtero egoten dira-eta ondo sendotzen diren taldeak.

Joan den urtean Bergarako entrenatzaile izan zen Josu Zubiak dio erregional mailan Preferentean baino gehiago sufritzen dela.

Bat nator harekin, oso kategoria gaitza da-eta. Gainera, goiko mailara talde bakarra igotzen da, eta oso zaila izaten da sailkapeneko lehenengo taldea izatea. Beti egoten dira maila oneko hiruzpalau talde.

Aurre-denboraldiko lehenengo torneoa, Bergara Hiria, etxean geratu da.

Bai, baina neure ustez, hori ez da inongo erreferentzia. Esan gura dudana da jokariendako



16 URTE Denbora hori darama Neka-k taldeak entrenatzen.

GOIENKARIA

garrantzitsua dela Preferentean dabilzan taldeak mendean hartzea. Motibatu egiten du horrek, baina niri ez dit askorik balio; txapelketa horiek ez ditut erabiltzen erreferentziak hartzeko. Ligan eman behar da neurria.

Eta taldeak zelan hasiko du liga?

Uztailean entrenatzen ibili ginen, baina jokalariek abuztuan ez dute horrenbesteko lanik egin. Orain gabilza lan hori egiten. Ilusiorik, behintzat, ez zaigu falta.

> ESKUBALOIA

Deialdia egin dute infantil mailako taldeendako

Bergarako eskubaloia taldeak jokalaria behar ditu infantil mailako mutilen eta nesken taldeetan jokatzeko. Hala, 1993an eta 1994an jaiotako gaztetxoak animatu gura dituzte eskubaloian jokatzera. Neskek martitzenetan eta eguenetan entrenatzen dute (18:00), eta mutilek eguaztenetan eta egubakoitzetan (18:00). Hala, kirola egin eta eskubaloia gertutik ezagutu gura duten gazteek orain dute aukera onena.

> MENDIKO LASTERKETAK

Xabier Lijo, bosgarren Mendatako proban

Xabier Lijo bosgarren postuan sailkatu zen domekan Mendatan jokaturako mendiko lasterketan. 42 kilometroko proba izan zen eta Lijok lau ordu eta 20 minutuko denbora egin zuen.

Euskal Herriko mendi lasterketen txapelketan ari da lehiatzen Xabier Lijo. Txapelketako azken proba irailaren 23an izango du, Baigorri. 70 kilometroko proba izango da Behe Nafarroakoa.



Amaia eta Iñigo Zabala

ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala *Optiko Optometrista*

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

2 erosi eta 1 ordaindu

**99 €
bakarrik.**



Erosi betaurreko pareta eta eraman beste bat opari.

26 armazoi desberdin aukeran.

nire bidaia hura

Maialen Madariaga
Bosniara > 2006ko udan

"Balkanetako gerraren ondorioak sumatzen dira bai eraikinetan eta baita familietan ere"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Sos Balkanes taldearekin Gorazde herrira (Bosnia) joan dira uda honetan Maialen eta Nerea Madariaga ahizpak. Bertako familia batekin bizi izateaz gain, gerraren ondorioak eta kontakizunak bertatik bertara bizi izan dituzte, eta hango umeekin lanean jardun dute.

Uztailaren 28an abiatu ziren autobusez Bosniara, eta abuztuaren 17ra bitarteko egonaldia egin dute Maialenek eta Nereak. Denbora luzeen Gorazde herrian eman dute bi ahizpek: "Bidaian bi gau Belgrad-en egin genituen, Serbian", esan digu Maialenek.

Sos Balkanes taldearen bitartez egin dute bidaia: "Kasualitatez izan genuen bidaiaren berri eta hangoari buruz ezer gutxi genekienez animatu egin ginen".

Gorazde herrian, hamar egunetan Adiskidetasun Jaialdia ospatu dute eta han umeei laguntzera joan dira: "Egunero kontzertuak izaten ziren eta azken egunean desfilea umeekin. Egun hura iritsi bitartean, goizetan tailerrak egin genituen, dantzak ikasteko, arropak gertatzeko...".

Laguntzeaz gain, inguruko herriak ezagutzeko aukera ere izan dute: "Bosniara joaten den jende gehienak Mostar, inguruan dauden ur-jauziak eta Sarajevo bisitatzen ditu, tokirik turistiko-enak dira. Ingurua ere oso polita du: berdea, erreka garbiak...".

Bosniako gaua ere bizi izan dute: "Gauetan kontzertuak izaten ziren. Euskal Herritik Nekin taldea izan zen eta jaialdian ez ezik tabernetan ere egin zituzten emanaldiak. Guk dantza egin eta jendea begira geratzen zen".

ERAIKINAK HONDATUTA

Jaialdi batera joan badira ere, Balkanetako gerraren aztarnak ez dira oharkabeen pasa Maialenek: "Ikusten da gerra izan dela. Zenbait etxetara jendea itzuli eta etxeak berritu baditu ere, asko dira oraindik abandonatu-



Maialen Madariaga.

"Mostar eta Sarajevo bisitatzen dituzte Bosniara joaten diren turista gehienek"

"Logela bakarrekote etxe batean izan gara, eta etxeokoe euren gela utzi digute lotarako"

riko eta zulatutako eraikinak. Familiak sakabanatuta daude eta batzuek senideak galdu dituzte gerran. Gu bertako etxe batean izan gara; aita gerran hil zen eta neska-mutilek aurten ikusi dituzte lehen aldiz lehengusuak".

Egonaldia hango familia batekin egin dute: "Etxea nahiko txikia zen. Logela bakarra zuen eta bizimodua egongelan egiten zuten. Logela guretzat utzi zuten eta euren egongelan egin zuten lo, gu han egon ginen egunetan", kontatu digu Maialenek. "Gu egon garen herrian garai batean hotelak baziren, baina egun turista gutxi joaten da".

Jatekoarekin ere ongi moldatu dira: "Ogiaren antzerako ore baten barruan okela, patata purea... sartzen dute; goxoa da".

JENDE IREKIA ETA JATORRA

Bertako biztanleak irekiak eta jatorrak dira, Maialenen esanetan: "Edozein aitzakia nahikoa da

euren etxera bazkaltzera gonbidatzeko; irteerak ere antolatu dituzte guretzat... Lagunak egitea erraza da han". Hangoekin hitz egiteko bosnierako hiztegi txiki bat erabili dute, eta keinu bidez ere lortu dute elkar ulertzea: "Gu egon garen etxeko alaba gerra garaian Espainian egondakoa zen; beraz, gaztelaniaz zekien, eta erraz moldatu gara".

Bosniara joanez gero, bertako jendearekin hitz egiteko gomendioa egin digu Maialenek: "Gerra gertutik bizi izan dutenei gogorra egiten zaie gauzak kontatzea, baina gertu egoten dira. Srebrenica herria gerrak asko gaztigatu zuenetako bat izan zen eta bertako emakume bati entzuteak zirrarara eragin zigun", esan digu Maialenek.

Jendeak bizi izandakoa bertatik bertara ikusita, "burbuila batean gaudela dirudi", Maialenen esanetan. Hala ere, berriz itzultzeko gogorik ez zaio falta.



Maialen eta Nerea Madariaga, Gorazdeko etxe baten aurrean, umeen desfilerako gertatutako moztorroekin.

bere ustez



Lander Juaristi

Bazkaltzeker? 36 hildako Iraken

Informazioaren gizartean immune bilakatu gara. Albisteak irentsi egiten ditugu bazkaltzen edo afaltzen gauden bitartean, haragiarekin edo entsaladarekin batera, barrura, dastatu gabe, pentsatu gabe.

36 hildako Iraken, 1.198 pertsona lurreratu dira espainiar estatuan azken aste bukaeran, atzean familia lagunak eta zuten guztia utzita.

Saturatuta gaude, ikusitakoa edo entzundakoa asimilatzen denborarik ez dauka.

"Saturatuta gaude, ikusitakoa edo entzundakoa asimilatzen denborarik ez dugu"

gu, eta agian, nagai xamarrek ere bagara. Zergatik ez erakusten digutenera mugatu?

Hondartzetako turistak gizajo afrikarrei laguntzen, ze hungigarria! Irakeko infernua, ze tragedia!

Zifrak, albisteak, hildakoak, odola... barrura. Teletista, irratia, Internet, egunkariak, munduko edozein txokotan gertatzen denaren berri izateko aukera daukagu, ikuspuntu ezberdinetatik, zergatien bila abiatzeko tresnak ere, baina zertarako?

Gure herrian, Bergaran, gertatzen dena ere jakiteko aukera badaukagu. Edo? Horren polita al da gure herria?

Informazioaren gizarte honetan inoiz baino desinformatuago edo manipulatuago gaudela sentitzen dut.

INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK



Artzamendi 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87
E-posta: imprentagarbil@euskalnet.net


PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN ESKAINTZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZAhemen bada
giro!

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**Gustuko musika**

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

IOSUtaberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia

Kroasantegia

Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08**EXPRESS TABERNA**Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Loteria primitiboak
eta kizielakDORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA**HIRUSTA JATETXEA**

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Gurea
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95**Matikua jatetxea**

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



Trinketa egitea aurreikusi dute, eta Debagoieneko bakarretakoa izango da

Zazpi kaledun igerileku ikusgarria eta eguzkia hartzeko gunea proposatu dituzte hirugarren solairuan

Kanpoan lau kantxa padel eta teniserako eta futbol zelai txiki bat egongo dira

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Herrian daukagun kirol etxearekin zer egin erabakitzeko ideien lehiaketa deitu zuen Udalak. 19 lan aurkeztu zituzten, eta, guztiak ondo aztertu ostean, uztaile bukieran hartu zuen erabakia Gobernu batzordeak.

HIRU SOLAIRU GORA, BAT BEHERA

Oraingo kirol etxea bota eta berria bertan egitea proposatu dute Donostiako Asier Akuriola eta Gasteizko Fernando Bajo arkitektoek, biak Donostiako Arkitektura Eskolako irakasleak.

Beheko solairuan, harrera gela, administrazio bulegoak, aldagela batzuk eta erabilera askotariko gimnasioa egongo dira -hainbat gelatan bana daitekeena-. Solairu bat behera jaitzita zera proposatu dute: aldagela batzuk, kantxa handia -gortina bidez bi edo hirutan banatzeko- eta atzeko partean, trinketa eta alboan rokodromoa. Biltegiak, masaje gela, kirol medikuntzarako gelak, kirol elkarteentzat bulegoak eta proiektzio gela ere solairu horretan egongo dira.

IGERILEKUA HIRUGARRENEAN

Lehenengo solairuan, ostera, honakoak egongo dira: fitness gela handia, administrazio bulegoak, harmaila gutxi batzuk kantxako partiduak ikusteko eta egonlekua, zerbait jateko edo egunkaria irakurtzeko.

Bigarren solairuan makinentzat gela egongo da. Eta hirugarren solairuan: aldagela eta hiru

KIROL ETXEA > UDALAK ANTOLATUTAKO IDEIA LEHIAKETAREN EMAITZA

Igerileku ikusgarria eta trinketa proposatu dituzte



ONDO INTEGRATUTA Hautatutako ideiak proposatzen du eraikin berria lehengoaren lekuan egitea, eta aurrean ingurunearekin bat datozen bost kantxa.

M.A.

Kiroldegia ez den kirol etxea

Arexabaletako kirol etxea sekula ez da izan kiroldegia. Hala dio Asier Muxikak, Kirol teknikariak: "Frontoi erraldoi bat egin zuten, eta gero, 1987an, berrikuntza batzuk egin zizkieten kiroldegi izateko. Hala funtzionatzen du, baina mila arazo ditugu: igerilekua txiki geratu da, hezetasun arazoak, egestura eta barne-dinamika arazoak, gimnasioak ere ez dauka behar bezalako baldintzarik... Eta gero eta arazo handiagoak. Bestalde, gure herria hazitua da, eta gizarte demanda gora; hortaz, kirolerako baldintza duinak behar ditugu".

Bederatzi milioiko aurrekontua dauka proposatutako ideiak. Dirutza da; hortaz, poliki-poliki emango ditu Udalak hurrengo pausoak: lehenengo aurreproiektua egiteko esango diete arkitekto biei eta ondoren, proiektua etorriko da. Maiatzean udal hauteskundeak dira, eta hortik aurrera zer gertatuko den ikusi egin beharko da.

igerileku. Handienak zazpi kale izango ditu eta beste biak txikiak izango dira: bata oso sakonera txikia duena eta bestea sakonera handiagokoa, igerilekua ikastaroak egiteko. Sauna eta baporezko tratamenduentzat gelak alboan izango dira. Gainera, pasabide batek igerilekutik kanpora ateratzeko aukera eskainiko die erabiltzaileei, eguzkia hartu ahal izateko. "Igerilekua dagoen gela ikusgarria izango da fatxada kristalezkoa aurreikusi dutelako, eta bertatik, Aretxabaleta ez ezik, ia bailara osoa ikusiko delako", dio Asier Muxika Kirol teknikariak.

KANPOAN LAU KANTXA

Kanpoaldean, gaur egun zelaia dagoen lekuan, tenisean jokatzen dituzten lau kantxa bi, padelean egiteko beste bi eta futboleko jarduteko zelai txiki bat aurreikusi dituzte. Lau kantxak luraren maila baino beheraxeago egongo dira, baina estali barik.

"Hautatutako eraikina polita iruditu zaigu eta oso ondo integratuta geratuko da ingurunean", aipatu digu Muxikak. Hala, herri-tarek kirol etxe berriaren gaineko argibideak izan ditzaten, erakusketa jarriko dute maketa eta panelekin.

Morti

erloju-denda

Viceroy Fashion eta Lotus Style

Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABALETAKO



Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



JAUSQI OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61



ITXITA Ikastaroak eta azterketak bertan behera geratu dira konexioa berreskuratu bitartean.

GOIENKARIA

LAPURRAK > ABUZTUAREN 17AN SARTU ZIREN

Itxita dago KZgunea, lapurren 'bisita' izan zuelako abuztuan

IT txartelaren azterketak eta ikastaro guztiak bertan behera geratu dira; hala ere, lehenbailehen hasi gura dute berriro lanean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gaur bertan egin behar zuten IT txartela ateratzeko azterketa Aretxabaletako KZgunean, baina bertan behera geratu dira bai hori, bai ikastaro guztiak.

ABUZTUAREN 17AN

Abuztuaren 17an, Andramari hirugarrena ospatzen zebiltzala herritarrek, sartu ziren lapurrak Markole auzoan dagoen KZgunean. Goizean egin zuten *bisita*, egun argiz, eta zerbitzaria eta bost

ordenagailu –pantaila barik– eraman zituzten. Paseoan zihoan emakume batek lagun batzuk ikusi zituen KZgunetik ordenagailuak ateratzen, eta susmo txarra hartuta ertzainei egin zien dei. Etorri zirenerako alde eginda zeuden lapurrak. "Emakumea ikusterakoan alde egitea erabaki zutela uste dugu, eta horregatik ez zituzten eraman gainerako ordenagailuak, eskanerra edo inpresora", azaldu digu Martin Garai udaltzain-buruak.

KONEXIO BARIK

Guztira 15 ziren KZguneko ordenagailuak, baina hamar bertan daude. Arazoa da zerbitzaria eraman zuten konexiorik gabe daudela. Horregatik bertan behera utzi dituzte azterketak eta ikastaroak. "Aste honetan bi azterketa egin behar genituen. Izen emandakoak beste herri batzuetara bideratzen saiatu gara, deialdia ez dezaten galdu", esan digu Aitor Madrid arduradunak.

Ikastaroetan izena emandakoei telefonoz eman die abisua Aitorrek, eta irailean bertan hasi gurako luke lanean. "Ez dakit noiz izango den ez dago eta gure esku, baina erabiltzaileei jakinaraziko diegu jakin bezain azkar".

JAIK > AGORREKO ANDRAMAIXAK

Areantzarrek jai giro polita izango dute asteburuan

Auzo afaria egingo dute gaur, eta bihar, zapatua, meza nagusia eta jolasak

dute Ama Birjinaren eguna ospatzeko eta iluntzean auzo afaria egingo dute. Afalostea sorpresaz beteta dator: arentzarren erretratuak, zozketak eta, zela ez, dantzaldia Iñigo-rekin.

M.A. > ARETXABALETA

Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte asteburuan Arentza auzoan. Zalantza barik jai giro bikaina sortuko dute.

MEZA ABESBATZAREKIN

Auzoan estimuan duten Martin Kabarrixa pertsonaia iturriko erromaran jarrita hasiko dituzte jaiak gaur arratsaldean. 19:00etan meza izango

Zapatuan, meza nagusia izango dute 12:00etan abesbatzaren laguntzarekin, eta ondoren luntxa. Egun honetan jolasak izaten dira nagusi: 22. gimkana txapelketa, auzoko jolasak eta 21. aro-sartze txapelketa.

Domekan, Kurtzebarrira joango dira gainerako herritarrekin batera, eta 14:30ean bukatuko dituzte jaiak Martin Kabarrixa jasotakoan.

> JAIK

Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domekan, inoiz baino talde gutxiagorekin

Domekan, hilak 10, ospatuko dute Haur Dantzarien Eguna. Ez da etorriko talderik Antzuola, Soraluze eta Bergararik; hortaz, herrikoarekin batera Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak eta Oñatiko Oñatz ibiliko dira. 10:30ak inguruan elkartuko dira guztiak plazan mokadutxoak jateko eta gero banatu egingo dira dantzan egiteko. Eguna alardearekin bukatuko dute, 17:00etan, plazan.

> JAIK

San Migelak irailaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean ospatuko ditugu eta ez da egongo dantzarik

Irailean ospatzen ditugu San Migel jaiak, baina ez daukate data zehatzik. Horregatik herritarrek nahastuta dabilta. Bada, irailaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean ospatuko ditugula. Hortaz, produktu biologikoen eta artisauen azoka hilaren 30ean egingo dute.

Azken urteotan bezalaxe aurten ere ez dute egingo Beinke-Loramendi dantzarik jaietan. Loramendi EE saiatu zen taldetxoak sortzen, baina erantzun eskasa jaso zuen.



M.A.

Hemeretzi lagun azterketara

Udaleko diru-bilketa eta idazkaritzako administrari postua betetzeko lehen azterketa eguaztenean egin zuten. 52 lagunek eman zuten izena, baina horietatik 19 agertu ziren, aretxabaletarrak sei. Azterketa hori gaitzen dutenek hilaren 15ean izango dute hurrengo, diru kontuen gainekoa. Eta bukatzeko proba praktikoa egingo dute.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

KIROLA > KIROL ETXEKO JARDUERAK

Hamasei jarduera eskaini ditu kirol zerbitzuak, hiru berriak

Hirugarren adinekoentzako dantza eta konbat eta fitball delakoak dira berriak, eta taldeak sortu ahala jarriko dituzte abian kirol etxean



BATUKA Musika, dantza eta ariketa fisikoa lantzen dituen jarduera.

M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kirol eskaintza zabaltzeko asmorekin jarduera asko jarriko ditu abian Udako Kirol Zerbitzuak, Goiena Sport enpresaren bitartez. Herritarrek etxean jasoko dute guztien berri ematen duen liburuxka, eta astelehenean bertan hasiko dira abian hainbat jarduera.

LEHENDIK DAUDEN JARDUERAK

Hasi dute ikasturtea kirol etxean, jardueraz gainezka hasi ere. Askok arrakasta handia izan zuten iaz, eta beste batzuk berriak dira proba egiteko: "Eskaintza zabala egin gura izan diegu herritarrei; denek egiten badute aurrera, ederto", aipatu digu Asier Muxikak, Kirol teknikariak.

Hona eskainitako jarduerak: spinninga, tonifikazioa -tonu muskularra garatzeko-, igeriketa, aquagyma, aerobika, batuka -musika, dantza eta ariketa fisikoa nahasten ditu, eta iaz arrakasta handia izan zuen-, banakako entrenamendua, bizkarra lantzeko jarduera, hirugarren adinekoentzako gimnasia, mantentze gimnasia, Atzegiko gimnasia, multifitness delakoa -hainbat jardueraren konbinaketa- eta stretch-pilates delakoa -gorputz harmonia berreskuratzeko-.

JARDUERA BERRIAK

Lehendik ezagunak diren kirolekin batera hiru berri sartu dituzte aurtengo eskaintzan: hirugarren adinekoentzako dantza eta konbat eta fitball delakoak.

Hirugarren adinekoek dantzarako daukaten zaletasuna hartu dute kontuan Kirol Zerbitzuko arduradunek, eta dantzan egiteak dauzkan onurak. Hala, hainbat dantza landuko dituzte: saltsa, merengea, samba, txa-txa-txa, eta beste batzuk. Ordubeteko bi saio eskainiko dituzte astean, eta goizetan izango dira.

Konbat saioa, ostera, kardio-baskularra da, boxearen eta borroka-arten mugimenduetan oinarrituta dago eta musikaren laguntzarekin koreografiak osatzen dituzte lantzeko. Saio bakarra eskainiko dute astean, eguinetan, eta ordubetekoa izango da.

Berrien artean dagoen hirugarrena fitball jarduera da. Goi zein behe atalen tonu muskularra garatzen da, eta baloia ezinbestekoa da jarduera honetan. Hain zuzen, erlaxazioa, luzaketak eta barne orekaren edukiak lantzen dira baloi handi baten laguntzarekin. Ordu erdiko bi saio egingo dituzte astean.

MASAJEA ETA KIROL MEDIKUNTZA

Aipatutako jarduera horien artean konbinaketak egin daitezke, eta gainera, gura izanez gero tonifikazioa edo bizkarreko saio gehigarriak hartu.

Masaje zerbitzua ere eskaintzen dute kirol etxean, eta txanda hartzeko aurrez deitu behar da. Ez da beharrezkoa Aretxabaleko kirol etxeko abonatuia izatea masajeak hartzeko, baina horiek prezio bereziak dituzte.

Kirol medikuntzak ere hainbat urte daramatza abian, eta azterketak egiteko aukera izango dute kirolari interesatuek: oinarritzko azterketak 43,50 euro balio du, esfortzu probak dituen azterketa osoak 74,55 euro eta lesioen tratamenduak 55,90 euro.

ORDUTEGIA ETA ABONUAK

Aipatutako jarduera batzuk astelehenean, hilak 11, hasiko dira. Hala ere, taldeak oraindik osatzen dabilta kirol etxeko arduradunak eta eskertuko dute interesatuek lehenbailehen dei-

tzia. Hona kirol etxeko ordutegia: asteleheneetik ostiralera 08:30etik 21:30era; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 09:00etatik 13:15era. Edozein zalantza izanez gero bertan galdetu.

Bestalde, abonatuak merkeago dituzte ikastaro guztiak; hortaz, norbaitek interesa izanez gero ondorengoak eraman dituzten kirol etxera: NArekopia eta argazki bat, kontu korrante zenbakia edo dirua eta ikasle, langabe edo elbarria izanez gero horren ziurtagiria. Gainera, irailaren 1etik aurrera %50eko beherapena egingo dute abonuen prezioetan, eta azaroaren 1etik aurrera %75eko beherapena.

> KARATEA

UDAko karate taldeak irailaren 15ean, egubakoitza, hasiko ditu entrenamendu saioak

Aretxabaleta kirol elkarteko karate taldea hurrengo egubakoitzean, hilak 15, hasiko da entrenamendu saioak egiten. 18:30etik 20:00etara bitartean elkartuko dira Kurtzebarri eskolako gimnasioan. Urrietik aurrera, ostera, bi talde egingo dituzte, eta martitzen eta egubakoitzetan elkartuko dira: lehenengo taldea 18:30etik 19:30era, eta bigarrena 19:30etik 21:00etara.

> FUTBOLA

Hainbat taldek hasiko dute denboraldia asteburuan, eta bostek etxean jokatuko dute

Preferenteko taldeak Pasajes hartuko du domekan, 16:30ean, Ibarrran. Goizean, ostera, ohorezko kadeteek Aloña Mendiren aurka jokatuko dute, 11:45ean, eta lehenengo mailako kadeteek lagun arteko partidua izango dute Bergararen aurka, 10:00etan.

Zapatuan ere izango dira partidua: ohorezko infantilak Ondarroako Aurrerarekin eta Infantil txikiak Aloña Mendirekin.

OSPAKIZUNA > KURTZEBARRI EGUNA

Kurtzebarri tontorrera igotzeko deia domekarako

Meza esango dute 11:00etan, eta gero mokadutxoa eskainiko du Murruxok

MEZA ETA MOKADUTXOA

Familiakoen inguruan zein lagun giroan eta eguraldiak laguntzen badu, herritar asko hurreratuko da Kurtzebarri. Tontorrera igotakoan salda eskainiko dute antolatzaileek, indarrak berreskuratzeko. 11:00etan meza esango dute hildako mendizaleen alde, eta ondoren txorizoa eta gazta eskainiko dizkiete hurreratutako guztiei, ardo eta xanpainarekin bustita. Ospakizunari bukaera emateko, 13:00ak inguruan Mendiolara jaitziko dira guztiak, bermuta hartzera.

M.A. > ARETXABALETA

Etzi, iraileko bigarren domeka, Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko du Murruxok mendizale elkarteak. 78 urte pasatu dira gurutzeta jarri zutela Kurtzebarri, eta horixe izango dute gogoan domekan mendizale askok.



GURUTZEA Ikurrinak adieraziko du Kurtzebarriko eguna dela.

M.A.


MAPFRE



MAPFRE
ETXEBIZITZA OSOA

ETXEBIZITZAREN ARRISKU
OROTAKO ASEGURUA
Etorri eta galdetu.

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

LANAK > UDALAK HARTU DU ESKORIATZA SUSTAPENAK EGIN BEHARREKO LANEN ARDURA

Intxaurtxueta eta Ibarraundi arteko urbanizazioa egiteko akordioa sinatu dute

Udalak egingo du Intxaurtxueta eta Ibarraundi arteko urbanizazioa, eta Eskoriatza Sustapenak enpresak 310.957 euro ordainduko dizkio horretarako

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Aspaldikoa da Intxaurtxueta eta Ibarraundi museoa dagoen ingurunea urbanizatzeko proiektua. Eskoriatza Sustapenak enpresak hartu zuen lan hori egiteko ardura, baina beste lan batzuk egiten atzeratuta dabilenez, Udalak hartu du bere gain lan hori.

San Pedro kaleko lehenengo zenbakitik 9.enera ez dago irteerarik. Horregatik, aspaldi erabaki zuten hortik errepide bat egin eta Ibarraundi baserri aurretik errepide ondoko zubira arte eramatea.

Gerora, Udalak erabaki zuen proiektu hori ez zela oso egokia izango, eta aldatzea erabaki zuen.



INGURUA TXUKUNDU Ibarraundi inguruan bide txukuna egin gura dute. I.B.

ENPRESAK ORDAINDUKO DU
Hortaz, Udalak proiektua aldatu du. San Pedro kaleko seigarren eta bederatzigarren zenbaki artean Ibarraundira bitartean errepide berria egingo dute. Horrez

gain, erreka albotik espaloia egingo dute; eta Ibarraundi museoa eta kiroldegiko kanpoko igerilekua ere lotuko dituzte.

Udalak lan horren balorazioa egin du eta Eskoriatza Sustape-

nak enpresarekin harremanetan jarri da.

Azkenean, bi aldeak akordio batera heldu dira. Udalak hartu du lan horiek egiteko ardura, baina enpresak Udalarikostu hori ordainduko dio. Kopuru horri kontzeptu batzuk kendu beharko dizkiote. Hain zuzen ere, Eskoriatza Sustapenak Intxaurtxueta plazan kulunkak jarri zituen-eta. Hortaz, enpresak Udalarik 310.957,86 euro eman beharko dizkio.

PROIEKTUA ERAKUSGAI JARRI

Udaleko ordezkariak jakinarazi digute proiektu berri hori eguneratu bezain laster, jende aurrean jarriko dutela. Eta, osoko bilkuran onartu ostean, alegazioetarako epea zabalduko dute. "Proiektua aurretik onartuta dago, baina aldaketak egin ditugunez, gurago dugu berriro jende aurrean jartzea", azaldu ziguten Udaleko ordezkariak.

URTARRILEAN LANAK HASI

Prozedura aurreikusitako epeetan egiten badute, urrian proiektua erakusgai jarriko dute, eta urtarrilean lanak hasiko dituzte.

ZERBITZUAK

Hemen-ek garbituko ditu udal eraikinak

Eskoriatzako Hemen enpresak irabazi du zerbitzu horren lehiaketa publikoa

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Hemen enpresak irabazi du udal eraikinak garbitzeko lehiaketa publikoa. Hemen enpresaz gain, beste bat aurkeztu zen lehiaketara, baina Udalak herrikoa aukeratu zuen.

Aurretik ere Hemen enpresak ematen zuen zerbitzu hori. Orain, berriz, eraikin gehiago garbitu beharko ditu: besteak beste, ludoteka, Helduen Heziketa Iraunkorra (EPA), gaztelekua eta pilotalekua. Azken hori, pilotalekua, orain arte pilota elkar-tekoek garbitzen zuten. Beste hirurak, berriz, zerbitzu berriak dira.

Zerbitzu horren truke, Hemen enpresak 123.584 euro jasoko ditu.

SANTA MARINA > ERAIKUNTZAK ERAISTEN HASIKO DIRA

Santa Marinako lur-jabeekin batuko dira, eraisten hasteko

Bi fabrika, hainbat etxe, txabola batzuk eta hainbat ortu kendu beharko dituzte aurreikusitako lanak egin ahal izateko

I.B. > ESKORIATZA

Santa Marina auzoa urbanizatu eta etxebizitzak egiteko proiektua ez dago geldirik. Izan ere, datoren astean, hilaren 11n eta 12an hain zuzen ere, Visesa-Orubide eta Udala Santa Marinako lur-jabeekin batzartuko dira kalte-ordainak eman eta dagozkien aktak sinatzeko.

ERAISPENA LASTER HASIKO DUTE
Behin lur-jabeen kalte-ordainak ordaindu eta aktak sinatuta, Udalak Amenabarrekin sinatuko du ingurua urbanizatzeko akordioa.

Hortik egun gutxira eraispena egiten hasiko dira. Hain zuzen ere, Arbiñosteko etxe batzuk, bi fabrika zahar, beste hiru etxebizitza, txabola batzuk eta hainbat ortu botako dituzte etorkizuneko lanak egin ahal izateko.

ETXEBIZITZA TASATUAK

Etxebizitza tasatuak egiteko proiektuak ez du aldaketarik izan, eta Udalak esan digu urtarilerara bitartean zabalduko dutela izenematea.



ERAISPENA Egun gutxi barru hasiko dira fabrika eta etxeak botatzen. I.B.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63

MUGARRIAK > BARRUNDIA ETA ESKORIATZA ARTEKO MUGAK AUZIAN

Barrundia alboko mugak zehazteko eskaera Jaurlaritzari

Eskoriatzako Udalak Aldundiaren eta Jaurlaritzaren babesa jaso du arabarrekin daukan auzian

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Barrundia eta Eskoriatza arteko mugen arazoak bere horretan jarraitzen du. Eskoriatzako Udalak behin eta berriro deitu die Barrundiako Udaleko ordezkari-

riei, mugarriak bisitatu eta horiei dagozkien behin betiko kokapena zehatz dezaten.

Izan ere, 2001ean Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eskaera egin zien aipatutako bi udalei euren arteko mugak aztertu eta behin betiko finka zituzten.

JAURLARITZAREN LAGUNTZA
Esandako moduan, Eskoriatzako Udalak egin ditu halako saiakera batzuk, baina ez du arabarren aldetik inolako erantzunik jaso. Hain zuzen ere, uztailean Esko-

riatzako Udaleko hainbat ordezkari mugara joan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat lagunekin. Arabarrik ez zen izan, jakina.

JAURLARITZAREN LAGUNTZA
Aurretik, Espainiako Geografiko Institutuak muga horien gaineko ikerketa egin zuen, Jaurlaritzak hala eskatuta. Ikerketa horrek arrazoia eman zion Eskoriatzako Udalari. Horregatik, orain, Udalak Jaurlaritzari eskatu dio ondorioztatutakoa betetzen lagun diezaion.

AUTOBIDEA > ZARATA ETA INGURUNE-INPAKTU AZTERKETAK EGITEKO ESKAERA

Auzotarrak haserre daude Bidegirekin, euren eskaerak aintzat hartzen ez dituelako

Mazmelako zubia egin ez izanak, Zarimuzko tunelaren inguruan ezabatutako zuhaitzek eta Antontxu baserriak arduratzen dituzte

I.B. > ESKORIATZA
Eskoriatzako auzotarrek jakinarazi digute Bidegirekin lehen baino haserreago daudela, gauzak gero eta gehiago okertzen dabiltzalako. Euren esanetan, Aldundiak autobidearen proiektuari aldaketa egin zizkionetik, udalerriko auzoetan eragindako kalteak handiagoak izan dira.

MAZMELAKO ZUBIA
Hain zuzen ere, aditzera eman dute kaltetuen batzordeak, Udalak eta auzotarrek eskatutako Mazmelako zubia egin beharrean, inguru horretan izugarritzko lur betelanak egiten dabiltzala. Horrekin batera, aipatutako hiru taldeek Zarimuzko tunelaren inguruan ezabatutako zuhaitzak eta Antontxu baserriak arduratzen dituzte. Euroestudios enpresak egindako ikerketa baten ere hala ondorioztatu zuten.

Azkenean, Bidegik erabaki du tunelaren iparraldean 60 metro luzetza, baina hegoaldean ez du halakorik egingo. Horren harira salatu dute tunelaren inguruan zeuden babestutako haritzak eta grosiak deuseztatu egin dituztela.

EUSKO LABELDUN USTIAPENAK
Bestalde, auzotarrek salatu dute autobidearen proiektuaren eraginez, gutxienez udalerrian dauden bi nekazari-ustiapen garrantzitsu ezabatutako egingo dituztela. Ustiapenok Euskolabel izendapena daukate eta belau-naldiz belau-naldi ibili dituzte.



KAMINOKUE BASERRIA Autobidearen sarbidea jartzeko bota dute.

I.B.

Bietan gazteek daramate ustiapenen ardura.

Zarata eta ingurune inpaktu neurtzeko azterketen beharra

ere aldarrikatu dute, eta Antontxu baserriak jasan dezakeen arriskuaren gainean ohartarazi dute Bidegi.



JUAN LUIS MERINO

Kalabaza erraldoia, Torrebason

Uda honetan izugarritzko tomateak eta kalabazak hazi dira ibarreko hainbat ortutan. Eskoriatzako erretiratuek urtean zehar Torrebason fin-fin lantzen dituzten ortuetan ere agertu da halakorik.

Argazkian, Jose Moreno Ordoñez erretiratua bere ortuan jasotako kalabaza erraldoiarekin. Tomate eta kalabazin handiak ere jaso ditu.

KULTURA > HAINBAT EKITALDI INKERNUN

Domekan emango dute postal lehiaketako epaia

Postal lehiaketaz gain, margolan erakusketa, kontzertuak, eta abar

Dagoeneko 40 bat postal jaso dituzte Txinatik, Perutik, Irlandatik, Pazko uharteetatik...

Postal guztiak erakusgai daude Inkernun.

I.B. > ESKORIATZA
Aitzorrotz elkarteak eta Inker-nu tabernak postal lehiaketa antolatu zuten uda aurretik. Etzi, domeka, bukatuko da esku hartzeko epea. Egun horretan egingo dute zozketa tabernan, 13:00etan. Irabazleek bazkari edo afari bat eskuratuko dute.

GARAGARDOA ETA KONTZERTUAK
Hilaren 15etik 17ra ekitaldi gehiago egingo dituzte. Unai Azkarate bergararrak margolanen erakusketa jarriko du. Horrez gain, garagardo jaia egingo dute, eta egubakoitzean bi kontzertu izango dira: 19:00etan, Azkater Pelox bakar-laria; eta 23:00etan, Mahaster River taldea, hain zuzen ere.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

ILE APAINDEGIA



APAINDU

San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

ANAITASUN EGUNA > AURTEN AIHERRAN IZANGO DA

Irailaren 17an Aiherrara joateko autobusa egongo da

Antzuolako pilotariak, dantzariak eta abeslariak hartuko dute parte herritarrekin batera

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Iparraldeko Aiherra herriaren eta Antzuolaren arteko senidetzearen 20. urteurrena ospatu zuten 2004an lasterketa batekin. Urte urte bi herrietako batean ekitaldiak antolatu ohi dituzte senidetze hori gogorarazteko, eta aurtentzen Aiherrari egokitu zaio txanda. Senidetze eguna, hain zuzen ere, irailaren 17an, domekan, ospatuko dute Aiherran, eta egun horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte. Bertakoek eta Antzuolatik Nafarroa Beherera joaten direnak hartuko dute parte ekitaldi horietan.

AUTOBUSA DOAN

Hain zuzen ere, Udalak autobusa antolatu du hilaren 17an Aiherrara joan nahi dutenentzako. Herritarrek animatu nahi dituzte.

Irailaren 17ko egitaraua

09:00: Autobusa Antzuolan.

11:00: Aiherrako ongietorria.

Ondoren, Aiherrako inguruak ezagutzeko aukera.

12:00 Herri kirol eta jolasen jaialdia Xiba taldearen eskutik. Iparraldeko ezkerreko horma gabeko frontoian Aiherrako pilotariak Antzuolako pilotarien aurka.

Gero, Antzuolako dantzarien saioa.

te jai horretan parte hartzera; horretarako, doaneko autobusa 09:00etan irtengo da Aiherrara joateko.

EGITARAU OPAROA

Egunerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: herri kirolak, dantzak, musika eta baita bazkaria ere. Aiherrako zein Antzuolako ordezkariak hartuko dute parte. Besteak beste, Antzuolako eta Aiherrako pilotariak elkarrekin lehiatu jardungo dute; eta kantariak eta dantzariak ere bazkal aurreko zein ondorengo saioetan euren abilezia erakutsiko dute.

Udal ordezkarien esanetan, egun horren helburua da "bi herrien senidetasuna mantentzea eta kulturaren eta euskaren bidez loturak indartzea".

Ondoren, bazkal-aurrekoa.

Segidan, herri bazkaria.

Bazkal ostean, kantaldia Kuxuxtu taldearekin. Beñat Elizondok eta taldekideek eurekin abesteko aukera emango digute.

Amaitzeko, herri dantza eta larrain dantza.

21:00 Antzuolara autobusa bueltan irtituko da.



ARKUAK Plazaren alde banatan bi arku daude.

I.A.

HIRIGINTZA > PLAZAKO OBRAK

Plaza zulatzean agertutako bi arkuak bota egingo dituzte

Gertu Gaek eskatu du aztertzeke ea balio historiko eta arkitektonikorik baduten

I.A. > HERRIA

Plazan erreka obrak egiten hasi eta lurra zulatu dutenean, bi arku bistarazi dituzte. Arku horiek harridura eragin dute herritarren artean, eta Gertu Gae plataformak horren gaineko mozioa aurkeztu du Udalean. Mozioaren bidez eskatu dute plazan ezer gehiago egiten hasi aurretik azter dezatela historikoki eta arkitektonikoki zein balio duten aztarnek.

GANGAREN BI ZATI

Udaletik jakinarazi digute bi arkuok orain arte plaza azpian erreka pasatzeko zegoen gangaren sarrera eta irteera baino ez direla. Esku artean dituzten txostenen arabera lur azpiko galeriak ez du aparteko esanguririk arkitektonikoki. Beraz, bota egingo dituzte eta horien ordezkariak bi aldeak elkartzeko altxatutako pasabideak ipiniko dituzte.

HEZKUNTZA > IKASTURTE HASIERA

Lehenengo mailatik gorako ikasleak aterpetxeetara joango dira datorren astean

Eguaztenean hasi zen kurtsoa haurreskolan eta aurtentzen 12 umek eman dute izena; gainontzekoak gaur, egubakoitza hasi dira

I.A. > ANTZUOLA

Gaur hasi da ikasturtea Herri Eskolan goizez eta astelehenean ere 09:00etatik 13:00etara arteko ordutegia egingo dute.

Ondoren, lehenengo mailatik gorakoak aterpetxeetara joango dira egubakoitzera arte: Segurara eta Oriara.

Txikiak egun osoko ordutegia izango dute: 09:00etatik 12:30era



IRAKASLEAK Haurreskolan hiru irakasle izango dira; Herri Eskolan, lehengoak. I.A.

eta 14:30etik 16:30era. Aurtentzen eskolan bi urtekoen gelan 19 ikasle hasi dira eta beste gelaren baten ere bada ikasle berririk.

HAURRESKOLA

Eguaztenean hasi ziren haurreskolan 12 ume eta aurtentzen hiru irakasle jardungo dute egun osoz.

KIROL ESKAINTZA > BOST KIROL JARDUERA AUKERAN

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago udaletxean

Saioak Eguzki auzoko lokalean, eskolako gimnasioan eta Olaranen izango dira

Saioak Eguzki auzoko lokalean, eskolako gimnasioan eta Olaranen izango dira. Taldeek gutxienez hamar lagunekoak izan behar dute. Aerobik, gimnasia eta yoga eskoletan ezin dira 20tik gora egon; eta tai chi chi-kung taldean, 16 gehienez.

I.A. > ANTZUOLA

Ikasturte berriarekin hainbat kirol jarduera antolatu ditu Udalak. Aurtentzen eskaintza honakoa da: aerobika, gimnasia, erretiratuendako gimnasia, yoga eta tai chi chi-kung.

IZENEMATEA

Udaletxeko kultur-kirol bulegora joanda eman daiteke izena; telefonoz deituta (943 76 62 46) zein e-posta (kultura@antzuola.net) bidez ere egin daiteke.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

ERREPIDEAK > GI-2632 ERREPIDEAN HASI DIRA LANAK

Errepidea konpontzeko lanak ondo bidean abenduan amaituko dira

Bi errepide zatitan erabat berrituko dute zorua: Bizkaiko mugatik Pagatzara artean eta Jalotza eta Altube baserrien arteko zatian



AREKAK Bizkaiko mugatik Gipuzkoa alderako arekak altxatu egin dituzte. I.A.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Abuztuaren amaieran hasi ziren GI-2632 errepidea konpontzeko lanak. Zoladura nahiko zaharra da eta altxatuta dago, nahiz eta errepidearen oinarriko egitura hondatzeko arriskurik ez duten ikusi adituak. Konponketa horiekin nahi dute errepidea egokitu datozen 20 urteotan zirkulazioak bidean izango duen eraginari; baita segurtasun eta erosotasun neurriei ere.

Elgetari dagokionez, bi errepide zatitan egingo dituzte lanak: Jalotza baserriaren paretik Altube baserriaren parera, batetik; eta bestetik, Pagatza industrialde-tik Bizkaiko mugara. Bien arteko zatia aurrez konponduta dago. GI-2632 Bizkaiko mugatik Elgetako lurretara doan zatian arekak (kunetak) altxatu dituzte.

ZORUA ETA AREKAK BERRITU

Zorua erabiltzeko ohi-prozedura erabiliko dute; hau da, dagoen zorua altxatu eta ondoren hainbat geruza ipini zoruari oinarri sendoa emateko, eta beste geruza bat zorua amaitzeko. Arekak ere berritu egingo dituzte.

Lanak amaitzeko lau hilabete epea aurreikusitako du Foru Aldundiak; baina eguraldia dela eta izan daiteke gorabeherarik.

Lanak egunez egingo dituzte eta errepidea itxiko ez bada ere, seinale eta semaforo bidez mugatu egingo dutela jakinarazi nahi diete gidariei.

GARRAIOA > ZERBITZU BEREZIA

Hiru autobus eta bi taxi astegunetan Elgeta eta Bergara arteko ibilbidea egiteko

Elgeta eta Bergara artean astegunetan bost bidaia egingo dituzte autobusek eta taxiak; ordutegi berria gaur ipini dute abian

Pesa autobus konpainiak eskainiko du zerbitzua, 07:40an, 14:40an eta 14:55ean; taxiak 11:30ekoa eta 11:45ekoa.

Autobuserako bonoak jasotzeko udaletxera jo beharko da. Bidaia bakoitzaren kostua euro bat da, baina bonoak dutenak 0,90 euro ordainduko dute.

eta Bergararako Donostiako gain, 14:05ean. Bilbotik Elgetarako autobusak 08:30ean eta 16:30ean dira; Donostiatik 07:00etan eta 16:30ean; eta Bergarara 08:35ean, 13:45ean eta 18:05ean.

ARRASATERAKO ZERBITZURIK EZ
Aurreko denboraldian zerbitzu berezia Arrasatera joateko ere eskaini zuen Udalak; baina izan zuen harrera eskasa ikusita aurtur ez da izango. "Hiru hilabetean lau lagunek baino ez zuten egin bidaia eta hori guretzat defizitarioa da", esan digu alkatetza.

Zerbitzu berezia gain, ohi autobusak ere egingo dute galdialdia Elgetan. Elgetatik Bilbora joateko 08:45ean eta 18:15ean izango dira autobusak; Donostiarako 09:25ean eta 17:25ean;

I.A. > ELGETA

Gaurtik, barikutik, aurrera ipiniko du abian Udalak Garraio Zerbitzu Bereziaren ordutegi berria. Astelehenetik barikura bitartean Elgetatik Bergara arteko bidea hiru aldiz egingo da autobusez zein taxi bidez: 07:40an; 11:45ean eta 14:55ean, plazatik abiatuta. Bergaratik Elgetara etortzeko, berriz, bi aukera izango dira: 11:30ean bata eta 14:40an bestea, taxi bidez bata eta autobusez bestea.

> NEKAZARITZA

Herriko baserrietako produktuen azoka irailaren 16an

Baserritarren batzordeak antolatuta, irailaren 16an, zapatuan, azoka izango da herriko plazan, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Herriko baserrietako produktuekin erakusketa egingo dute eta ondoren saltzeko aukera ere izango dute baserritarrek. Antolatzaileek espero dute hamar postutik gora izatea eta helburua da baserritarren lana eta produktuak ezagutzera ematea. Azokaren ostean parte-hartzaileek bazkaria izango dute. Joan nahi dutenek 943 76 80 22 telefonora dei dezakete.

> HERRI ESKOLA

Lehen astean goizez izango dituzte eskolak umeez

Gaur, egubakoitza, hasi dute ikasturtea herri eskolan. Datoren eguenera bitartean goizez bakarrik izango dituzte eskolak eta hortik aurrera, 09:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 16:00etara. Aurten eskolan zenbait ikasle berriak izango dira eta baita bi irakasle ere. Bestalde, haur eskolan eguaztenean hasi zuten ikasturtea lau umek, bi irakasleekin. Aurrerago ume gehiago izango dituztela esan digute. Ordutegia 08:15etik 18:30era artekoa da.

> JAIA

Sagardo eguneko zozketarako txartelak salgai

Irailaren 16an Sagardo eguna izango da, Gazte Asanbladak antolatuta. Aurten hamargarren aldian izango da. Egun horretan egingo duten zozketarako txartelak ipini dituzte salgai herriko hainbat denda eta tabernatan. Euro baten truke eskura daitezke txartelak. Bi sari izango dira: lehenengoa, urdaiazpikoa, ardo botila eta kontzerturako sarrera; eta bigarrena, ardo botila eta kontzerturako sarrera.

bere ustez



Beatriz Zabalondo

Berba hi(u)tsen gainera maitasuna

Hiriburuko bulego dotore batera eraman naute gurasoek, psikologo batek hartu behar gaituela eta.

Aspaldi galdetu zidaten aita-amek ea urrutiko ahizpa bat edo bi (edo anai-arrebak) onartuko nituen etxean. Jakin bazekiten zer erantzungo nuen, baina, gurean, familiako gauzak ez dira erabakitzen berba egin barik. Denbora batera, luzetsita egon ni, eta neronek bota nuen zergatik ez genuen osatzen familia handi hori.

"Aspaldi galdetu zidaten aita-amek ea urrutiko ahizpa bat edo bi onartuko nituen etxean"

Amatxori begiak busti zitzaizkion eta aitak hartu zuen berba orduan: "Batzuetan, asko-asko maite duguna ere galdu egiten dugu, baina aurrera begiratu behar da". Pena handi baten jabe zirela esan nahi zidan? Halere, aurpegian marraztu zuten irribarreak asko lasaitu ninduen.

Amonak azaldu dit gure aitaita ere beste herri bate-tik ekarria zela, baina etxeko guztien poz eztieta izan zela beti, eta eman zioten gozotasuna maitasunarekin itzultzen jakin zuela.

Psikologo horren galde-erantzunetan ez dut gozotasunik nabaritu. Zergatik egin dit zimiko ariman haren berriketaldiak? Nik asko maite izan nuen aitaita.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



SARRERA Aurten gura dute ermitarako sarrera egokitu zailtasunak dituztenendako eta ume-kotxeendako.

U.M.

KULTURA > ANDRE MARI EGUNA

Andre Mari egunean, kofradiaren eguna eta Eguzkierripako jaiak

80 bat lagun elkartuko dira domekan, Andre Mari Ibabe kofradiaren eguna ospatzeko; mezaren hitzordua aurreratu egin dute, 12:00etara

UBANE MADERA > ARAMAIO

Etzidamu, domekan, dute hitzordua Andre Mari kofradiako kideek. Aurten sekula baino lehena; izan ere, meza 13:00etan izan beharrean, 12:00etara aurreratu dute: "Gero, bestela ez dugu astirik izaten-eta lagun eta senide artean lasai berba egiteko", esan digu kofradiako presidente Juan Luis Nafarratek. Hark jakinarazi digunez, meza aurretik eta ostean, hamarretakoa banatuko dute eta gero, urteko batzar nagusia egingo dute kofradiako kideek. Han, besteak beste, ikasturte berrirako egitasmoak aztertuko dituzte. Eta batzarraren ostean, bazkarirako hitzordua ere egin dute. Aurreikuspenen arabera, 80 lagun inguru elkar-tuko dira domekako ekitaldian.

ERMITARAKO SARRERA EGOKITU

Nafarratek aurreratu digu kofradiaren iazko helburua parkeko pareta konpontzea izan zela, eta hori eginda dagoela. Aurtengo egitasmo nagusi moduan,

berriz, ermitaren sarrera egokitu gura dute: "Eskailera nagusian baranda ipintzea gura dugu eta sarreran pasabidea egitea zailtasunak dituztenendako eta ume txikien kotxeendako. Parkea da Arabako Diputazioarena eta parkean zerbait egin behar bada Diputazioari egin behar diogu eskaera".

APURKETAK ETA BESTE

Eskaera horrekin batera, beste bat ere egin gura diote Foru Aldundiari: "Ermitaren itxiturari irtenbideren bat eman diezaioten gura dugu. Izan ere, azkenaldian arazoak ditugu ermitara datozen zenbait gazterekin; burukomin dezenterekin ibili gara". Nafarratek kontatu digunez, apurte egin dute itxituraren giltzarrapoa eta apurketak eragin dituzte komunetan; horrez gainera, afariak-eta egiten dituztenean zaborra bertan lagata joaten direla gaineratu digu: "Guk ondo ikusten dugu gazteek inguru hau aprobetxatzea baina gura-

ko genuke modu zuzenean erabiltzea".

PRESIDENTE ALDAKETA

Horrekin batera, batzar nagusian egingo dute, baita ere, iazko ekitaldiaren balorazioa.

Hori guztia kontatu digu kofradiako presidente Juan Luis Nafarratek. Hain justu ere, bera izendatu dute datozen bi urteotan kofradiako presidente izateko, Adrian Abarrategiri txanda hartuta.

EGUZKIERRIPAKO JAIK

Bestalde, Andre Mari egunarekin batera, Eguzkierripakoek auzoko jaiak ospatuko dituzte. Gaur, barikua hasi, eta domekara arteko egitaraua antolatu dute. Hala, besteak beste, gaur auzotarrek afaria egingo dute, trikitilariak girotuta. Bihar, berriz, 12:00etan auzokoen aldeko meza esango dute; eta afal ostean, mus txapelketa jokatu dute auzotarrek eta auzora datozen gonbidatuek: "Ohitura da jaietan, auzoko base-rietako seme-alaba eta senideak, kanpoan bizi direnak, auzora etortzea"; hala esan digu Paulino Ibabe auzotarrak.

Bukatzeko, domekan, kofradiako jaiarekin bat egingo dute.

> GIZARTEA

Zailtasunak dituzten pertsonendako laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute, urrira arte

Honako beharretarako laguntzak eska daitezke: pertsonak bere kabuz moldatzeko laguntzak; etxerako laguntza teknikoak (zaintze eta higie pertsonalerakoak); etxeko lanak egiteko laguntzak; ingurukoekin harremanak sustatzeko (komunikaziorako eta informaziorako); joan-etorriak egiteko arintasuna areagotzeko (pertsonaren mugikortasunerako laguntza teknikoak); laguntza espezializatua eta lanbide sustapenerako laguntzak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egin du laguntza horiek eskatzeko deialdia. Hain justu ere, urriaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak.

ZERBITZUAK > ARGİ-KENTZEAK

Argia kentzeagatik argibideak eskatu dituzte

Ekainetik abuztura bitartean bost bider kendu diete argindarra aramaioarrei

U.M. > ARAMAIO

Ikusita azken hilabeteotan izan diren argi-kentzeak, Udalak argibideak eskatu dizkio Jaur-laritzako Industria Sailari. "Iberdrolak bidali digu erantzuna, esanez gertatu diren argi-kentzeak saihestu ezinekoak

izan direla eta, gainera, halako kasuetan legeak zehazten duena bete dutela. Baina gu ez gaude ados erantzun horrekin. Uste dugu akaso saihestu ezinekoak izango direla argi-kentzeak, baina pentsatzen dugu, baita ere, norbaitek arduraren bat izan beharko lukeela", esan digu Mertxe Mondragon alkateak. Hala, jakinarazi digu oraindik Industriaren erantzunaren zain daudela, baina hala ere, Udala ahaleginduko dela arduradunen bat aurkitzen, "baina horrek luze joko du".



BIDEA Etxea bota eta haren lekuan etxe berrietarako bidea egokituko dute. U.M.

OBRAK > URBANIZAZIO PROIEKTU BERRIA

Laster bota egingo dute iturri ondoko etxe txikia

Iturrostetik Olabetxo zubiraino sarbidea egingo dute, etxe berrietara iristeko

U.M. > ARAMAIO

Errekaren beste aldean, Iturrostetik Olabetxorainoko eremuan, hamaika etxebizitza eraiki behar ditu Promociones Aramaixo enpresak; lauko blokeak izango dira, etxe elkarri atxikiak. Hala, etxe horietara iritsi ahal izateko sarbidea egokitu behar dute, erdiguneko biribilgunearen ondotik. Eta hori

gauzatu ahal izateko bota behar dute iturri ondoko etxea. Hain justu, Udalak dagoeneko eman die etxea botatzeko baimena. ...

DATA BARIK

Dena den, Promociones Aramaixo enpresatik jakinarazi digute oraindik ez dutela datarik zehaztu, ez etxea botatzeko ezta etxe berriak eraikitzen hasteko ere.

Jon Sasiain > Kultura zinegotzia

"Kanpokoan zain egon barik, geuk girotu behar ditugu jaiak"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Atzo hasi zituzten Andramari jaiak Gatzagan, eta domekara bitartean hainbat ekitaldi dituzte herri-tar zein kanpotarrek ondo pasatzeko.

Zeinen artean antolatu dituzue jaiak?

Udala da antolatzaile nagusia, beste batzuen laguntzarekin, noski. Gazteek rock kontzertuaren ardura izan dute eta mendi bizikleta zeharkaldia Txirindularitza batzordearen eskuetan utzi dugu.

Badago berrikuntzarik aurtengo egitarauan?

Bai, trialsin erakustaldia munduko txapeldunarekin batetik, eta adardunak beste-tik.

Garai baten zezentxoak egoten ziren jaietan; ohitura berreskuratzea pentsatu duzue?

Bai. Gatzagako jaietan beti egoten ziren zezentxoak, eta jende asko hurreratzen zen. Azken urteotan ez da egon baina herritarrak eske izan ditugu, eta aurten ekartzea pentsatu dugu. Bihar goizeko bostetan jartzea, oster, gazteen burutazioa izan da.

Rock kontzertua ere urtero egon ohi da, ez?

"Herri afariak arrakasta handia izan zuen, eta aurten ere izatea gurako genuke"

Azken lau urteotan bai, behintzat. Gazteen eskaera izaten da, eta eurak arduratzen dira taldeak aukeratu eta ekartzeaz.

Iaz herri afaria egin zenuten lehenengoz; zela joan zen?

Arrakasta handia izan zuen: 133 lagun elkartu ginen, eta giro bikaina sortu zen. Aurten ere hala izatea gura genuke.

Zeinek egiten du afaria?

Herritarrok. Entsalada emakume talde batek gertatuko du eta saiheskia, Periko Orobengoa eta bere taldetxoak. Bildotsa, oster, Gasteizen gertatuko digute. Gainera, ez da herritarrentzat bakarrik, kanpotik datozenak ere gustura hartuko ditugu. Bihar gauean da, frontoian; nagusiek 10 euro ordaindu beharko dute eta umeek, 6.

Otxandiarrak etortzen zaizkizue jaietara. Nondik dator ohitura hori?

Nik neuk ez dakit ondo. Aspaldiko kontua da; antza Otxandiotik gatz bila etortzen ziren gura, eta orduko bisita hura jasotzen dugu Andramari egunean.

Herri gehienetako jaiak egin dute behera eta Gatzagakoek ere bai, ez da?

Bai, horixe. Badakigu kanpokoan zain ezin garela egon, eta herri afariarekin herriko jendea erakarri gura dugu, geure artean girotzeko jaia.

Jaiak bukatzean ze balorazio egin gurako zenuke?

Herritarrok, bertakook, ederto pasatu dugula esan gurako nuke. Lehen esandako moduan, geuk girotu behar dugu herria, elkarrekin egonda eta ekitaldietan parte hartuta.



M.A.

Frontoiko pintadak ezabatuta

Hainbat pintada zeuden herriko frontoiaren horman. Batzuk aspaldi egindakoak -Espetxeak apurtu eta Presos, esaterako-, eta azkenak Fagorreko hainbat lagun aurkakoak. Azken horiek ezabatzea erabaki zuen Udalak, eta aspalditik zeudenak bertan utzi zituen, ez zirelako inoren aurkakoak. Abuztu hasieran, baina, ezabatuta agertu ziren, eta ez dakite nor izan zen egilea. Pintadak ezabatu bai -gainetik margotuta-, baina horma ez dago batere txukun, eta alkatearen esanetan zerbait egin beharrean daude: "Horma ez dugu zuriz margotu gura berriro pintadak egingo lituzketelako, baina zerbait egin gura dugu txukunago egon dadin".

> GARRAIOA

Taxi-busaren ordutegia zehaztu zain, aste bukaeretan autobusa pasatzea eskatu du Udalak

Bederatzi leku dituen taxi-busa laster helduko da herrira. Elgetan eta Gatzagan ibiliko da aipatutako taxi-busa, eta bi herrien artean zehaztu dute ordutegia. Hala ere, beste ordu bat gehitu gura dio Udalak ordutegiari, zerbitzua osatuagoa izan dadin, eta Aldundiari egunotan egin dio eskaera.

Ez da izan Gatzagako Udalak egindako eskaera bakarra, aste-buruetan herriko autobusa pasatzea ere aipatu diete eta Aldundiko ordezkari. "Astegunetan bezalaxe, Gasteizera joan-etorriak egiten dituen autobusen bat herriko pasatzea gurako genuke aste bukaeretan ere", azaldu digu Joxerra Perez alkateak. Eskaera onartuz gero, Pesa autobus enpresarekin adostu beharko du Aldundiak zerbitzua.



Ilusio handiarekin antolatu ditu jaiak Jon Sasiainek.

M.A.

Irailaren 4a:
097 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, irailaren 11a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitzake sari hauen irabazleak bat!

097 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Mila Elexpuru Arregi (Bergara)
- Iñigo Urtubi Egidazu (Arrasate)



098 zozketako sariak



DONOSTIAKO AQUARIUMA
bisitatzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidedun saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidedun kuota:
24 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENEN
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

SASKIBALOIA > JORGE GARBAJOSA, MUNDUKO TXAPELDUNA

Jorge Garbajosa: "Arrasaten egindako urtean oso jende jatorra ezagutu nuen"

Espainiako saskibaloia selekzioa izan berri da Japoniako Munduko Txapelketan onena. Tartean egon da Jorge Garbajosa, Urbina-Maltzagan jokatu zuen jokalaria. Torontora joateko prestaketetan harrapatu dugu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jorge Garbajosak (Torrejon de Ardoz, Madril, 1977) bide luzea egin du Munduko Txapelketan urrezko domina jantzi aurretik. Ikastetxean futboleko jokatzeko, gazte mailan jokatzeko. Sasoi hartan, baina, Gasteizko Taugresek hartu-eman zuen EBA kategoriara igo berri zen Arrasateko Urbina-Maltzagarekin, eta beste hiru jokalarirekin batera (Juan Pedro Cazorla, Iñaki Gomez eta Pedro Rodriguez), denboraldi batez Garbajosa utzita etorri zen Arrasatera (14 zenbakiduna alboko argazkian).

Hain zuzen ere, Iturripen jokatu zuen jokalaria bat munduko txapelketan izendatu berri dute; biharamunarekin harrapatu dugu Garbajosa: "Oso nekatuta amaitu dugu guztiok, txapelketa gogorra izan delako, eta ospakizunak ere ez dira makalak izan. Baina horretaz guztiaz gozatzen nabil, nahiz eta egia den guztiak gainezka egin digula".

BI HILABETE GOGOR LANEAN

Zoriondu eta gero, Munduko Txapelketaren gainean hasi gara berbetan: "Markagailuei begiratuta, badirudi Argentina izan zela guri aurre egiteko gauza izan zen talde bakarra, baina errealitatea bestelakoa da. Munduko Txapel-



URBINA-MALTZAGA 1995-96 denboraldiko erretratua. Goian, Bergaretxe, Samaniego, Arrue, Garbajosa, Sampetro, Mallabiabarrena, Harris, Garai, Azkarate. Makurtuta, Gutierrez, Gomez, Gamarra, Jorge Fernandez (Mister España izandakoa), Coca, Rodriguez eta Cazorla.

keta batean talde onenak egoten dira, eta Liga amaitu zenean lana gogor egin genuelako iritsi gara honaino. Gure helburua urrea zela esan genuenean batzuek zorotzat hartu gintuzten, baina gero erakutsi dugu ez geundela horren oker".

IBILBIDE LUZEA

Eta urrezko domina hori ondoren, atzera egin dugu begirada: Arrasaten egindako denboraldiarekin batera, Jorge Garbajosak zazpi urte egin zituen Gasteizen. Estatuko talde nagusien eskaintzak izan zituen, baina Trevisoko Benetton taldeak fitxatu zuen. Lau urte egin zituen Italian, bi Liga eta Kopa Txapelketa bat erdietsita. Eta, 2004-05 denboraldian Unicaja aukeratu zuen, Sergio Scarioloren eskutik.

Malagako taldean ere arrakasta izan du Garbajosak, eta horri esker fitxatu du Kanadako Toronto Raptors taldeak. Urte asko igaro badira ere, Arrasaten egin zuen urtera arte atzera egiteko eskatu diogu, 1995-96 denboraldira arte: "Ondo gogoratzen dut Arrasaten egindako urte hura, ez dut ahaztu. Urte gogorra izan zen, Urbina-Maltzagarekin jokatzearekin batera noiz-behinka Gasteizko taldearekin jokatzeko nuelako. Baina denboraldi oso aberasgarria izan zen, egun ACBn dauden taldeen kon-

tra jokatu genuelako igoera fasea. Horrekin batera, aldagelan jende jatorrarekin egin nuen topo, eta zuzendaritzako hainbat lagunekin ere harreman estua izan nuen. Gainera, Arrasate moduko herri batendako oso aberasgarria izan zen denboraldi hura, azken momentura arte saskibaloiko maila gorenean egoteko borrokan ibili ginelako".

BOST JOKALARI ONENEN ARTEAN

Urte haietan guztietan egindako lanagatik iritsi da Munduko Txapelketako bost jokalaria onenen

artean egotera: "Oso harro nago izendapen horregatik, asko pozten nauen zerbait da. Argi daukat, baina, saskibaloia taldejokoa dela, eta, azken batean, horrelako aipamen bat jasotzekoan zeresan handia izaten du taldeak berak egin duen lanak". Eta izendapen horrekin batera, Asturiasko Printzea saria ere jasoko du Espainiako saskibaloia selekzioak: "Lana izango dugu hori guztia digeritzen. Lehen esandako moduan, gozatze momentua da orain, eta baita egindako lorpenaz jabetzeko ere".

Deskantsua hartzeko astirik barik, Jorge Garbajosak dagoeneko buruan du erronka berria, NBA jokatzeko.

"ALDAKETA BEHAR DUT"

Lehenengo garaia atzean utzita, etorkizunaren gainean hasi gara berbetan: "Kanadara joateko male-tak egiten hasi naiz dagoeneko, eta egunotan gertatu den guztiaz jabetu eta gero, denboraldi berria prestatzen hasteko ordua iritsiko da. Erronka erabat ezberdina izango dut aurten, munduko txapelketa onenean jokatu dudalako, baina egia da buruak horrelako aldaketa bat eskatzen didala. Azken batean, hutsetik hasi behar-ko dut etapa berria, eta horrek motibatua egiten nau".

Garbajosa ez da NBARA bide zuzenetik iritsiko. Lehenago European arrakasta izan duten jokalarien bidea jarraitzea erabaki du, eta 28 urterekin, kontinente zaharrean gutxiak duten esperientziarekin iritsiko da Ameriketara, Kanadara. Hamai-ka urte igaro eta gero, dagoeneko ez da Arrasatera iritsi zen mutil koskorra; nahiz eta orduan erakutsi zuen naturaltasunarekin jarraitzen duen, inork ez du esango gazte berritsua zela, gazte berritsua dela.

Sasoi batean Iturripeko kantxa zapaldu zuenak munduko kantxa ezagunenak ditu zain.

ATZO ETA GAUR

Daukan jaurtiketa Italian landu zuen

Garbajosarekin jokatu zuen jokalaria batek esan digu hori, goiko erretratuan 11. zenbakia daraman lagoba Gamarra: "Gasteiztik etorri zirenen artean, gazteena zelako-edo, Garbajosa zen jatorrena. Bistan zegoen jokalaria ona zela, baina inork ez zukeen esango gaur den jokalaria izatera iritsiko zenik. Gaur egun daukan jaurtiketa onagatik iritsi da horraino, asko hobetu du-eta arlo hori. Eta, esango nuke Italian landu zuela hori. Hemen, behintzat, ez zuen horrela botatzen".



Garbajosa, lehen eta orain.

A.PRESS

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58



MONDRA Arrasateko taldeak bihar hasiko du denboraldia eta UDAk eta Aloñak, domekan. Argazkian, Bergara Hirian. GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Mondra, UDA eta Aloña: ligari ekiteko ordua

Ibarreko hiru taldeendako amaitu da aurre-denboraldiko lana; Liga hasiko dute bihar

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Mondra izango da Liga goiztiarren hasiko duen taldeetako bat. Hala, Gordobilen mutilek bihar, zapatua, jokatu dute Ligako lehenengo partidua, joan den urtean seigarren postuan amaitu zuen Trinterperen kontra (Don Bosco, 17:00). Aretxabaletak eta Aloña Mendik, berriz, domekan jokatu dute, etxean. Oñatik taldeak Berio hartuko du Azkoagainen (16:30), eta UDAk Pasaia izango du kontrario Ibarran (16:30). Oña-

tiarren lehenengo kontrarioak 13. postuan amaitu zuen iaz, eta 8.a izan zen Pasaia. Hain zuzen ere, joan den denboraldian sei talde horietatik inork ez zuen estutasunik igaro, baina aurten gauzak bestelakoak izan daitezke.

ETA AURTENGO HELBURUA?

Aretxabaletak eta Aloña Mendik joan den urtean erakutsitako mailari eutsi gura diote, eta Mondraren erronketako bat izango da Atxabalpen indartsuago izatea.

Etxean makala denak gutxi du aldeko. Gogoratu behar da, baina, aurten Preferentean joan den urtean baino bi talde gutxiago izango direla (18), eta Liga amaieran lau talde jaitsiko direla. Hala, anbizio handirik erakutsi aurretik, taldeek gurago dute Liga ondo hasi eta mailari eusteko beharrezkoak diren puntuak lehenbailehen erdietsi.

Ohorezko gazte eta kadete mailako txapelketak ere asteburuan hasiko dituzte. Hala, kadetetan Aretxabaleta-Arizmendik eta Aloñak jokatu duten partidua azpimarratuko dugu. Domekan, 11:45ean, Ibarran.

TXIRRINDULARITZA > SAN MIGEL LASTERKETA

San Migel jaien barruan lehenengo hitzordua, ziklismoa

Bihar egingo dute, 10:30ean, 48. San Migel lasterketa; domekan egin behar zuten golf txapelketa, berriz, atzeratu egin dute

X.U. > OÑATI

Aurtengo Oñatiko San Migel jaiak ere kirol hitzorduz beteta datoz. Hala, datorren asteburuan jokatu dituzte areto futboleko eta eskubaloiko Mikel Deuna sariak. Oraingo asteburuan, baina, ziklismoa izango da protagonista. Hala, bihar (10:30) egingo dute 48. San Migel saria. Gazte mailako lasterkariak izango dira bertan, baina bigarren mailako kadeteek ere esku hartu ahal izango dute. Horri esker, irteeran egongo dira Aloña Men-

di taldeko hainbat ziklista, klubak ez du-eta gazte mailako lasterkaririk. Oñatiarrekin batera, baina, Dorletako Amako eta Bergarako Sumofic taldeko ziklistak ere izango dira Oñatin. Hala, Pedro Irurtzunek onartu du Asier Peñabad bergarra dela ibarrekoen artean aurrean ibiltzeko aukera handien duena. Kontrario gogorak izango ditu, baina: "Caja Rural taldekoak indartsu ibiliko dira. Eta ezin ditugu ahaztu Julen Gonzalez, Xabier Olea, Urko Izagirre edo

Beñat Urain moduko lasterkari gazteak".

76 KILOMETRO

Ibilbideari dagokionez, biharko lasterketan ez da aldaketarik izango. Oñatitik Bergarako norabidea hartuko dute, Osintxuraino, eta handik Oñatira egingo dute berriro ere. Udana igo eta Legazpitik Deskargara egingo dute, Antzuolatik Oñatirako bidea hartzeko.

GOLF TXAPELKETA BERTAN BEHERA

Bestalde, domekan egin behar zuten Irelore golf eskolan txapelketa, baina belarra lehorregi dagoelako txapelketa atzeratzea erabaki dute. Seguruenik urrian jokatu dute txapelketa hori.

> MENDIA

Besaide Mendi Elkarateak hiru irteera antolatu ditu irailean egiteko; lehena, domekan

Oraingo domekan Hiru Basiliken Ibilbidea egingo dute Besaideko lagunak, Azpeititik Aztiriarraino doana. 07:00etan elkartuko dira Arrasaten, eta arratsaldeko lehenengo ordurako bueltan egotea espero dute. Hurrengo hitzordua, berriz, Besaideko Oroitzapen Egunean izango da, hilaren 17an. Aurten Elorrioko Erdella Mendi Elkarateak egingo ditu antolatzaile lanak, eta, urtero moduan, mendian hildako mendizaleak omenduko dituzte.

Eta, irailaren 24an egingo dute beste irteera bat, GR-9 barruan dagoen Zezenen Ibilbidea, hain zuzen. Ibilbide hori Azpeititik Lasurrera doana da. Irteera horietara apuntatzeko gerturatu aste barruan Besaidera, 19:30etik 20:30era.

ARGAZKILARITZA > LEHIAKETA

Kirol argazkilaritzaren gaineko lehiaketa Bergaran

Lanak datorren eguena, hilak 14, baino lehenago aurkeztu behar dira

ko du erretratuak ze tamaina izan behar duen.

Lanen atzealdean egilearen datuak jarri beharko dira eta datorren eguena da, hilak 14, argazkiak entregatzeko azken eguna.

X.U. > BERGARA

Pol-Pol mendi elkarateak lagunduta, Bergarako Kirol Zerbitzuek argazkilaritza lehiaketa antolatu dute. Euskal Herrian bizi den edonork har dezake esku lehiaketa horretan. Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan izan daitezke, eta laborategiko edozein teknika prozedura onartuko dute. Hori bai, kirol argazkiak izan behar dute.

Hain zuzen ere, erretratuak aurkezterakoan 40x50 zentimetroko kartoi mehea erabili beharko da, formatu bertikalean, baina norberak erabaki-

ERAKUSKETA EGINGO DUTE

Gero, Bergarako udaletxean jasotzen dituzten lanen artean txukunenak aukeratu eta erakusketa egingo dute. Eta, irailaren 22tik aurrera Bergarako Aroztegi aretoa egongo dira erretratuok ikusgai. Sari bana-keta, berriz, irailaren 29an egingo dute. Hala, lehenengo saria 180 euro izango da, bigarrena 150 euro eta hirugarrena 120 euro. Horrekin batera, trofeoak banatuko dituzte.

Lehiaketa horren gaineko informazio gehiago 943 76 30 90 telefono zenbakian duzue.



GOIENKARIA

Mendiko bizikleta irteera Gatzagan

Domekan egingo dute, Gatzagako jaien barruan, 4. mendiko bizikleta irteera. Bi ibilbide egingo dituzte, gaztetxoei zuzenduta bat, eta nagusiendako bestea. Txirrindulariak 09:30ean hasiko dira bizikletan ibiltzen, baina izena emateko komeni da lehenago joatea. 40 kilometro egingo dituzte Gatzaga inguruko parajeetan barrena.

DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **OMENALDIA**
Jokin Zaitegiri omenaldia egingo diote irailaren 21ean > 45



> **KIKE AMONARRIZ**
Mihiluze saioko aurkezleari elkarrizketa > 52

> **GORETTI FERNANDEZ**
Atletismoa atzean utzita, Hezkuntza Berezia ikasi du eta dagoeneko horretan lanean ibili da. Zeinuen Hizkuntza ere ikasi du gorrekin komunikatu ahal izateko > 50



AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIAK: MIKEL ARRAZOLA

ARGAZKI ERAKUSKETA

Baserritarren lana, iruditan

ERAKUSKETA

'Euskadi rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu' argazki erakusketa zabaldu dute Bergaran

SENTSIBILIZAZIOA

Lehen sektorearekiko sentsibilizazioa piztea du helburu udaletxean ikusgai den erakusketak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Euskadi rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu izenburuko argazki erakusketa inauguratu zuten eguaztenean Bergarako udaletxean. Lehen sektorearekiko sentsibilizazioa piztea du helburu erakusketak. Horretarako, Mikel Arrazola argazkilaria gasteztarrak nekazariei, abeltzainei edota arrantzaleei ateratako 50 argazki inguru bildu

dituzte erakusketan. Erakusketa ibiltaria maiatzaren 15ean jarri zuten abian Alegia Dulantzin eta Bergarako sei-garren parada du. Artziniegan, Tolosan, Ordizian eta Garain ere egon da ikusgai. Eguaztenean esandakoan arabera, etorkizunean baliteke Debagoieneko beste zenbait herritara ere erakusketa

(44. orrialdean jarraitzen du)

Baserritarren lana, iruditzen

(43. orrialdetik dator)

kusketa eramatea. Antolatzaileak pozik daude erakusketak orain arte izandako harrerarekin.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta Mendikoi fundazioak *Euskadi rural. Euskadiko baserri eta arrantza kontuak* liburua kaleratu zuten 2005eko azaroan. Hain zuzen ere, aipatutako liburua da Bergaran ikusgai dagoen erakusketaren ardatza. Nekazaritzan, abeltzaintzan edo arrantzan lan egiten duten gizon-emaumeak, hainbat enpresa handi eta txiki eta Euskal Herriko txokoak dira protagonista Arrazolak koloretan egindako argazkietan: besteak beste, Aramaion esnetarako behien ustiakuntza duten Roberto eta Jose Luis Lasaga anaien eta Arantzazuko Nikolas Segurola artzain frantziskotarraren irudiak ikus daitezke. Goian aipatutako liburuan Seguroaren hitzak ere badatoz: "Egun batzuetan 20 orduz lan egin behar izaten da. Hantxe egon beharra dago, ea jaio berriak nahasten ez diren. Ardi batzuek, erditu baino lehen, beste bildots batzuei



BERGARAN Argazkian, eguaztenez zabalduko erakusketaren inaugurazioko irudi bat.

GOIENKARIA

ematen diete esnea, ama txarrak dira ba latxak!".

ERREKONOZIMENDUA

Esan bezala, San Martin jaien inguruan antolatutako feria eta bestelako ospakizunak aitzaki hartuta, erakusketa Bergarara iritsi da. Eguaztenezko aurkezpe-

nean, Jaurlaritzako Landa Garapeneko zuzendaria den Juan Karlos Zuloaga, German Muruamendiarrak Bergarako Udaleko alkateordea, Lander Arregi Mendikoi erakunde zuzendaria, Karmen Iturbe Debagoieneko Mendi Nekazaritza elkarte zuzendaria eta Mikel Arrazola argazki-

laria izan ziren Bergaran.

German Muruamendiarrak baserritarren figura aldarrikatu zuen: "Erakusketaren helburuetako bat zera da: janariak eta edariak ekoizteaz gain, gure inguru eder hau mantendu eta aberasten dutela gure baserritarrek, gizartea horretaz jabetzea.

Lehen sektore aberatsa dugu eta produkzio aldetik gure indarra handiegia ez bada Debagoienean, kontsumitzaile bezala bai. Lehen sektorean egiten den lana pausotxo bat gorago eraman nahi izan dugu erakusketa honekin, gizartea sentsibilizatu nahirik". Lander Arregik baserritarren lana eskertzeko premia dagoela esan zuen: "Hortik erakusketaren izenburua. Azken baten, gero eta gutxiago dira eta gero eta lan gehiago egiten dute. Lan horrek errekonozimendua merezi du eta argazkiek hori adierazi nahi dute". Karmen Iturbek ere eskerak eman zizkien antolatzaileei eta Juan Karlos Zuloagak lehen sektorean izandako krisialdiek kontsumitzaileen artean sortutako mesfidantzak gainditzea ezinbestekoa dela adierazi zuen: "Gure herrian lehen sektorea sektore ekonomiko bat baino zerbait gehiago dela erakutsi nahi dugu. Sektore estrategikoa da, duen garrantziaz aparte, beste hainbat aktibo dituena".

Erakusketa irailaren 16ra arte dago zabalik udaletxeko osoko bilkuren aretoan: astelehetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Argazki erakusketaz gain, diaporama eta Xabier Akizuren hitzaldia eguaztenez

Oñatin jaiotakoa bada ere, bizi guztia Gasteizen eman du Mikel Arrazola argazkilariak. 25 urte inguru darama Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailerako lanean eta aurkezpen ekitaldian adierazi zuen bezala, horrek nekazal inguruak, itsasoa edo mahastietan egiten den lana gertutik ezagutzeko aukera eman dio: "Lehen sektorea barrutik ezagutzen dut eguneroko lana jarraitzeko aukera izan dudalako eta liburua egitea proposatu zidatenean horrek lasaitasun puntu bat eman zidan proiektuari aurre egin ahal izateko. Ilusio ikaragarria egin zidan liburua egiteak eta bultzatzaileei eskerrak eman nahi dizkiet, tamaina handiko egitasmoa delako. Helburu nagusia zera izan da: lehen sektorean isil-isilik baina gogor ari diren lana islatzea".

Bestalde, argazki erakusketarekin batera, eguaztenezko, hilaren 13rako, Xabier Akizuren hitzaldia iragarri dago Bergarako udaletxean. Biolurreko kideak *Baserraren eginkizuna gizartearen etorkizunean* hitzaldia egingo du eta eztabaidarako tarte ere izango da. Era berean, Goierriko Landa Garapen Elkarteak egindako diaporama ikusteko aukera izango da. Hitzordua, 19:00etan.



Mikel Arrazola argazkilaria, erakusketan ikusgai dagoen Bermeoko irudi baten ondoan.


EDU MENDIBIL

 <p>KIA MOTORS</p>  <p>KIA SORENTO BERRIA 170 zp</p> <p>Ezagutu ezazu!</p>	<p>Tecnocar</p> <p>Honda eta Kia banatzaile ofiziala</p>  <p>TECNOCAR GIPUZKOA Erakusketa eta tailerra Araba etorbidea z/g - Arrasate 943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38</p> <p>Adi! 0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04) HONDA ACCORD 2.4 i-VTEC (06) HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05) RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03) HONDA CRV 2.0 ES 4WD (00) *Prever plana barne.</p>	<p>HONDA The Power of Dreams</p> <p>Eta orain, nabigatzailea eta 5 urteko bermea</p>  <p>HONDA CRV Diesela i CTDI 0 km (26.900 €) Unitate mugatuak</p>  <p>HONDA CIVIC BERRIA 17.700 eurotik aurrera*</p>  <p>HONDA ACCORD BERRIA 22.400 eurotik aurrera*</p>
 <p>KIA CARNIVAL Azken 4 unitateak 23.900 € (DVD-a opari)</p>  <p>KIA SPORTAGE %12erainoko DESKONTUA</p>		

OMENALDIA > JOKIN ZAITEGI JAIO ZENeko 100. URTEURRENA

Jokin Zaitegiren omenezko ekitaldiak

Zaitegi jaio zeneko 100. urteurrena dela-eta, Udalak hilaren 21ean egingo ditu Arrasateko euskaltzalearen aldeko ekitaldiak



EZINBESTEKO EUSKALTZALEA Lan ugari egin zuen Zaitegik.

GOIENKARIA

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Aurten, Jokin Zaitegi euskaltzale arrasatearra jaio zeneko 100. urteurrena bete da. Horregatik, Arrasateko Udalak omenaldia egingo dio. Hilaren 21ean egingo dituzte ekitaldiok.

Jokin Zaitegi Arrasaten jaio zen, 1906an. Jesuita ordenatu zen eta Guatemalako erbestea bizi izan zuen. Handik *Euzko Gogoa* aldizkaria egiten aritu zen hainbat urtean. Lan handia egin zuen euskararen gainean.

ZAITEGIREN FIGURA ETA IZENA
Hilaren 21ean, ordubeteko ekitaldi publikoa egingo dute Arrasateko Udaleko osoko bilkura are-

toan, Zaitegiren figura eta izena gogoratzeko. Ekitaldira gonbidatu dituzte omenduaren familia, alkatea, Jaurlaritzako Kultura sailburu Miren Azkarate, Euskaltzaindiko zuzendaritzako ordezkariaren bat, Euskal Interpretari eta Itzultzaileen Elkarte-ko eta Euskal Idazleen Elkarte-ko ordezkariak eta gura dituzten herritar guztiak.

Ekitaldi horren ostean, Jokin Zaitegi bizi izan zeneko etxean (Erdiko kalean) plaka bat jarriko dute.

BESTELAKO EKIMENAK
Udalak antolatu dituen ekimenez gain, Arrasateko eta Euskal Herriko beste eragile batzuk ere badabilta Zaitegi gogoratzeko beste ekintza batzuk prestatzen.

MUSIKA > KONTZERTUAK OÑATIN

Suediako eta Madrilgo talde ezagunen emanaldiak

Egubakoitzean, Commando 9 mm eta zapatuan, Randyren punk eta hardcorea

I.B. > OÑATI


Aspaldian Oñatin rock emanaldi ugari egiten dabilta. Bada, asteburu honetan bi izango dira.

Gaur, egubakoitza, Atzeko kaleko jaiak direla-eta, punk kontzertua egingo dute. Doan izango da eta honako taldeak izango dira: Madrilgo Commando 9mm punk talde aitzindaria, Lazkaoko Brigada Criminal eta Oñatiko Drakes eta Krimen

musika talde gazteak. Kontzertua 22:30ean hasiko dute.

SUEDIAKO PUNK-HARDCOREA

Zapatuan gaztelekuan izango da musika entzuteko aukera, 22:30ean. Suediako Randy taldeak punk eta hardcore doinuak landuko ditu; Kataluniako Rabia Positivak ere ildo hori jorratuko du; eta Sharon Stoner oñatiarrek *3 mila bira* laneko kantuak joko dituzte.



PUNKA ETA ROCK-AND-ROLLA Commando 9 mm Madrilgo taldea.

GOIENKARIA

GURASO ESKOLA *Zuretzat, aita eta ama!*

Zuen seme-alaben heziketan sortzen zaizkizuen kezkak eta zailtasunak argitu, bideratu eta elkarbanatzeko.

3 talde osatuko dira seme-alaben adinaren arabera:

- 0-4 urte astelehenetan
- 5-9 urte asteazkenetan
- 10-14 urte astelehenetan

Ordutegia gehiengoak aukeratzen duena izango da
14:45 -16:15 edo 18:30 -20:00

Izen ematea: Irailak 22ra arte



Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan gurekin!

Arrasateko Udaleko prebentzio zerbitzua.

Tel.: 943252007

e-posta: prebentzio@arrasate-mondragon.net

BOLUNTARIOTZAKO OINARRIZKO IKASTAROA

Boluntario lanean dabilen edo hasteko interesa duen oroientzat

EDUKIAK

- Gaur eguneko errealitatearen azterketa. Munduaren egoera ezagutu.
- Motibazioak landu.
- Boluntarioaren definizioa.
- Komunikazio trebetasunak: Komunikazio estiloak, empatia, entzutea, gatazken konponketa,...
- Boluntariotza legea eta plana.
- Boluntariotza elkarte batzuen aurkezpena.

DATAK

Irailak 22, 29, 30
Urriak 20, 21

ORDUTEGIA

Ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 9:30-13:30

PREZIOA: Doan.

IZEN EMATEA: Irailak 16ra arte



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ETOR ZAITEZTE, MEREZI DU ETA!

IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa Masterreka. 180 m².
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m². + teilatu apia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Berria 66 m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 96 m². Ondo.
- Fraskozuri 104 m². Ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m². Ondo.
- Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.

Antzuola:

- Elkaren ondoan eraikitako 8 baita salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta. 60 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 79 m². Berrituko.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Mabiategi 80 m². Ondo.
- Madura 51 m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Arteka 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraskozuri 102 m². Ondo.
- Arizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Angiozar. Baseria salgai. Prezio interesgarria. 626 35 60 89.

Aretxabaleta. Duplexa salgai. 620 17 05 32.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. Hiru logela, bi bainugela, balkoia eta bi terraza. Garaje itxia. Urbanizazio itxian dago. 605 77 58 64.

Arrasate. Iturriotz kalea. 80 m². 3 gela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta despentsa. Oso eguzkitsua eta erdi jantzita. Prezio onean. 665 71 22 38.

Arrasate. Iturriotz kalean. Teilatuepa, 30 m², bi gela, sukaldea, bainugela. Oso eguzkitsua. Deitu 20:00etatik aurrera. 665 71 22 38.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Lau logela eta hiru komun. Altzariz jantzita dago. 659 44 76 75.

Bergara. Madura kalean, 52 m², 2 gela, guztiz berritua. 616 84 94 89.

Donostia. Mandasko Duke kalea. Ikasleentzako etxebizitza. Hiru logela. 900 euro. 609 27 60 47.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza alokagai daukat ikasleendako Urbe auzoan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 943 71 46 27.

Arrasate. Hiru logelako etxea errentan. Unibertsitate ger-tu. 655 72 14 80.

Donostia. Etxea ematen dut errentan 2006-07 ikasturtera-ko. 685 73 34 45.

Donostia. Ikasleendako pisua ematen dut errentan. Konstituzio plazan. 943 78 05 24.

Oñati. Etxebizitza alokatzen da Oñatiko plazatik gertu (Zubibarrri kalean). 57 m². Sukaldea, bi logela, komuna eta egongela. 656 72 10 35.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxea osatzeko prest. Hobe neskak. 696 02 68 30.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Emakume alar-gunak etxea osatzeko neska bat gura du. Telefonoa: 943 79 79 09.

Aretxabaletan edo Arrasaten. Danier ikasle batek gela bat behar du. Bulego orduetan deitu. Agurtzane edo Ibone. 943 79 57 40.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko lagun bat behar dugu. Erdialdean dago. Zerkaosteta kalean. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza. Bero-gailu zentrala ere bai. 669 28 05 30 edo 665 09 09 76.

Bergara. Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Telefonoa: 606 06 33 59 eta 653 71 48 65.

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80
665 72 24 46

BERGARA

Duplex berria eta garaje itxia salgai.

699 49 14 14

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Ibargarai kalean. Neurriak: 7,50x2,80. 22.000 euro. 678 43 31 07.

203. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Garaje itxia eta berria errentan ematen da Iturri zuri kalean. 15 m² gutxi gorabehera. Gaez deitu. 945 44 51 97.

Oñati. Garaje itxia alokatzen da Oñatin. Autoa aparkatzeko erabiliko dutenek soilik deitu. Lokala nahi dutenek, ez deitu. 615 75 35 34.

ESKORIATZA

Sukaldaria behar da.

637 39 02 12

ARRASATE

Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.

618 76 34 40
605 76 08 29

3/ LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Saldu edo errentan. Denda izandakoa. 943 79 41 92.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Pertsona bat behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 605 77 05 05 edo 943 79 70 29.

Debagoiena. Publizitate kartelak banatzeko pertsona bat behar da. Kati. 945 13 55 30.

ARRASATE

Sukaldean lan egiteko pertsona bat behar da.

617 60 84 45
680 67 22 93

ARRASATE

Etxetresna elektrikoak saltzen dituen denda batek saltzailea behar du.

943 77 00 34

Oñati. Goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. 653 72 54 40.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Gertu etxeko lanak egiteko. 618 81 71 83.

Arrasate. Emakume euskaldun batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke, arratsalde. 659 82 72 18.

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Egunez edo gaez. 943 08 12 80.

Arrasate. Umeak zaintzeko gertu nago, goizetan edo arratsaldean. Esperientzia daukat. 686 74 51 59.

BERGARA

Depor tabernan zerbitzaria behar da.

629 26 88 51
943 76 01 51

ARRASATE

Etxetresna elektrikoak saltzen dituen denda batek saltzailea behar du.

943 77 00 34

Bergara, Arrasate, Eibar. Gertu pertsona nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientziaduna eta Geriatria ikasitakoa. 650 62 12 94.

Bergara. Eskarmentudun neska bat etxeko lanak egiteko gertu. 680 16 02 03.

Debagoiena. Esperientziaduna garbiketala lanekin eta nagusiak zaintzeko prest. 618 81 71 83.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo haurrak eta zaharrak zaintzen lan egingo nuke. Ana. 676 55 15 46.

Debagoiena. Garbiketarak, nagusiak edo umeak zaindu, zerbitzari... Orduka, etxeko edo kanpoko langile moduan. Esperientzia eta informea. 690 84 72 92.

ARRASATE

Jatetxe batean, zerbitzaria behar da. Astelehenerdik ostirale- ra. Deitu 17:00etatik aurrera.

615 75 98 40

BERGARA

Irailaren 2an Santa Marina elizan Canon 70/200, F4 objektiboa hartu zuenari bueltatzea eskatzen zaio. Bueltatzea sarituko da.

943 76 30 33

Neska etxeak eta atariak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 676 55 15 46.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Neska euskalduna behar da bi umeri eskola partikularrek emateko. 619 08 81 40.

Oñati. DBHko 3. eta 4. maila-tako matematika ikasketak jasotzeko nahi ditut. Astean bi edo hiru egunetan. Telefonoa: 645 89 62 56.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Fiat Bravo HGT autoa saltzen da. SS-AW matrikula dauka. 150 ZP. 20 v eta bost zilindro. Telefonoa: 943 76 15 76 edo 600 56 07 08.

520 EXC motorra salgai. 2000. urtekoa. Abiarazteko sistema elektriko. Matrikulatua. Transmisio kit berria ere bai. 4.500 euro. Telefonoa: 679 24 89 72.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Artzain txakur arrazako bi txakurkume ematen ditut. 699 79 69 56 edo 943 76 35 58.

704. BESTELAKOAK

Txakurra edukitzeko txabola edo lokal baten bila nabil Aramaio inguruan. Telefonoa: 666 74 05 96.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Hektarea bateko pinudia saltzen dira Bergaran. Telefonoa: 678 72 75 72.

Tronpeta. bat saltzen dut oso egoera onean. Telefonoa: 943 78 70 52.

808. BESTELAKOAK

Autoa. Sorluzetik (Eibar-Elgoibar) Arrasateraino goizero 06:00etarako joateko autobila konpartitzeko laguna behar dut. Aidor. 943 75 16

txatxilipurdi

Txatxilipurdi Elkarte.

Antzuolako gaztelekuan asteburuetan lan egiteko jendea behar da.

Baldintzak:

- Orduetgia: Larunbatetan, 9-11 eta 5-8 Igandeetan, 5-9
- Bi asteburu lan eta bat jai
- Lehenbailehen hasteko

Eskoriatzako gaztelekuan asteburuetan lan egiteko jendea behar da.

Baldintzak:

- Orduetgia: Ostiraletan, 5-8,30 Larunbat eta Igandeetan, 4,30-8,30

Interesatuok bidali curriculuma honako helbideetara Txatxilipurdi. Pablo Uranga 6, behea. 943 79 54 46. idazkaritza@txatxilipurdi.com

Arrasaten kokatutako komunikazio enpresa batek Diseinatzaile grafikoa behar du.

Ezagutu beharrekoak:

- FreeHand.
- Photoshop.
- QuarkXPress.

Kontuan hartuko dira:

Webgintzan, CSS edo estilo orriekin diseinatzen jakitea.

Ezinbestekoa da:

Antzeko lanetan eskarmentua izatea. Euskaraz jakitea.

Curriculumak bidaltzeko:

132 posta-kutxa
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
("Diseinatzaile grafikoa" erreferentzia jarri)

Curriculumak jasotzeko azken eguna:

2006ko irailaren 13a.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak

KAZETARIAK

behar ditu lan-poltsa osatzeko

Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

Baloratuko da:

- Kazetari titulua izatea.
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Kamera aurrean aritzeko dohainak edukitzea.

Bidali curriculuma helbide honetara:

- Goiena Komunikazio Zerbitzuak
- Nafarroa etorbidea 2.
- 20500 ARRASATE
- admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:

- 2006ko irailaren 19a

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

hildakoak

- **Pedro Lopez Ruiz.** Arrasaten, abuztuaren 30ean. 55 urte.
- **Juan Irazabal Gorosabel.** Oñatin, abuztuaren 31n. 51 urte.
- **Jose Artzamendi Iza.** Arrasaten, irailaren 1ean. 80 urte.
- **Arantxa Odriozola Odriozola.** Oñatin, irailaren 2an. 78 urte.
- **Juan Gisasola Araiztegi.** Bergaran, irailaren 2an. 72 urte.
- **Ildefonso Gonzalez Damean.** Arrasaten, irailaren 3an. 84 urte.
- **Pilar Arando Uribe.** Aretxabaletan, irailaren 4an. 73 urte.
- **Jose Ignacio Larrañaga Garate.** Oñatin, irailaren 4an. 90 urte.
- **Valentin Castelo Fernandez.** Arrasaten, irailaren 4an. 80 urte.
- **Rafael De la Cruz Gonzalez.** Arrasaten, irailaren 4an. 64 urte.
- **Isabel Rajado Benitez.** Bergaran, irailaren 4an. 43 urte.
- **Maria Goenaga Elortza.** Oñatin, irailaren 5ean. 93 urte.
- **Carmen Garai Lazpiur.** Bergaran, irailaren 5ean. 87 urte.
- **Arantxa Antxia Galdos.** Aretxabaletan, irailaren 6an. 74 urte.



Laura Arantzabal eta **Emilio Rubio** elgetarrek abuztuaren 29an bete zituzten 25 urte ezkontuta. Familiakoen partetik beste horrenbeste urte ere zorionez bizi ditzazuela.



Julia Atorrasagastik eta **Migel Arantzabalek** abuztuaren 25ean 50 urte bete zituzten ezkontuta. Jarraitu horrela urte askoan. Familiakoen partetik zorionak.

ESKELA
Juanito Irazabal Gorosabel

Oñatin hil zen 2006eko irailaren 1ean, 51 urte zituela.

Ustekabean joan zara, ez adiorik, ez agurrik, geroarte baizik. Gogoan izango zaitugu



Zure lagunak.
Oñatin, 2006ko irailaren 8an.



Juan Luis Merino eta **Mari Carmen Pavon** arrasatearrak ezkondu zirela 25 urte beteko dira irailaren 12an. Irailaren 9an familikoekin ospatuko dute. Aurretik bidaia Italiara egin dute. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.




Ruben aretxabaletarra eta **Lorea** bergararra datorren irailaren 9an, zapatuan, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Eztei bidaian EEBBetara eta Mexikora joango dira. Zorionak bioi etxeko guztien partetik.

URTEURRENA

Manuel Arana Ingidua

Arrasaten, 2005eko abuztuaren 4an hil zen

Urte bat pasa da gure ondotik joan zinenetik, baina inoiz ez zara joango gure bihotzetik.



Etxekoak
Arrasaten, 2006ko irailaren 8an

URTEURRENA

Timoteo Guridi Iturbe

Antzuolan hil zen 2005eko irailaren 9an, 76 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:30etan, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Luis M. Azkondo Zubiarre

Bergaran hil zen 2005eko abuztuaren 21ean.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus Barruso Gallo

Bergaran hil zen 2005eko abuztuaren 20an, 74 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Carmen Laskurain Ugalde

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gabino Polanco Basoa

Lehenengo urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Gure aitita maitea, zerura begiratu eta hortxe zaudena. Disdira gehien egiten duena sekulan itzaliko ez dena. Gero arte



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdian baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



ESKER ONA

Saturnino Arregi Etxabe

Arrasaten hil zen 2006eko abuztuaren 15ean, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko irailaren 8an.

URTEURRENA

Angelita Gantxegi Urisabel

Jose Maria Garikanoren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko irailaren 10ean, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Alaitasuna	Jirak	Azaleko adiskide
	Gizarteari dagokiona	Zotz, ziri	Lurretik altxatu
	Iruzurra, engainua		
	Arabako herria		
Guraize	IRUDIAN		
Lanabesa	Intsektu izena		
		Huts, akats	
		Izaera on	
Elkarte finantzario			Bigarren musika nota
Galderak egiten			Suari dariona
			Ez eme
Nor		Juntagailua	
Loaldi (bizkaieraz)		Gauss	
		Uneko egunean	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Modestoren osasuna

Hurbildu da Modesto ambulatortira. Medikuak auskultatu eta:

- Ez duzu sasoi makala, Modesto! Esaidazu, zenbat urte ditu zure aitak?

- 97. Eta nahiko luke gazte askok eskopeta berak bezain ongi kargatuta edukitzea. Astero egiten du tiro.

- Tira, tira,... eta aitona zenbat urte ditu?

- Aitona? 118. Eta indarrean oraindik. Egin kontu... datorren astean ezkontzekotan da.

- 118 urte eta oraindik ezkondu egin nahi al du?


- Nahi ez baina... ezkondu egin behar!

sudokua

6					8		
		3	6	1	9		
4			2		3		
9	7	4	6		5		
	8					1	
		1	3	8		2	7
	6		5				4
	5	4	1	7			
		9					1

hieroglifoa

Jeneral euskaldun baten sorterrria



hizki salda

Iparraldeko bost herri

B	I	A	R	Z	X	U	E	S
I	R	I	S	A	R	R	I	X
D	T	E	O	U	R	R	I	Z
A	Z	K	X	R	A	G	O	I
R	A	J	Z	O	B	N	P	R
R	U	A	O	Ñ	K	E	S	X
A	I	H	L	I	A	R	R	M
I	X	S	O	H	Ü	T	A	Ñ
T	E	S	K	A	X	O	A	B

soluzioak



R	U	A	G	O	V	E	B	I
A	T	E	N	E	Z	E	Z	A
A	V	A	Z	D	E	L	G	A
E	R	E	S	T	R	U	S	T
R	E	R	O	K	E	A	R	E
I	L	A	P	A	R	I	A	A
A	I	R	I	Z	I	R	I	A
L	A	L	Z	O	S			
E	B	P						

I	S	Z	4	8	6	6	3	7
8	9	6	7	6	1	9	5	2
8	6	6	5	3	9	7	4	1
2	7	4	6	2	8	3	5	4
9	6	1	2	4	1	6	8	3
3	6	7	2	4	6	1	5	8
6	9	3	7	9	2	5	8	4
5	9	1	6	4	6	1	9	8
2	4	8	4	5	7	1	3	6

Jeroglifikoak: Zegama

B	I	A	R	Z	X	U	E	S
I	R	I	S	A	R	R	I	X
D	T	E	O	U	R	R	I	Z
A	Z	K	X	R	A	G	O	I
R	A	J	Z	O	B	N	P	R
R	U	A	O	Ñ	K	E	S	X
A	I	H	L	I	A	R	R	M
I	X	S	O	H	Ü	T	A	Ñ
T	E	S	K	A	X	O	A	B

bono fotoa



Zer sortu zuten 1924ko maiatzean aurrez aurre daukazu Elgetako etxe horretan?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobezibar

Super BM IFA

Super BM emandako
50 euroko erosketaxartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Colhogar komuneko papera
24 erroilu

3,75 € 624 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Ines Iturricastillorendako izan da erosketaxartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Kurtzebarri.



Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?
Har ezazu une bat...
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak
izango dituzte.

Arkautz zure etxea da.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagoiena.net

Lanbide profilak

Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go maila

- Behe tentsioko instalazio elektrikoaren laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

2. maila

- Industri mekanikoko laguntzailea


Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA

Irailean

9:00etatik 12:30etara

Non: Debagoieneko Lanbide Hastapeneko egoitza.
Nafarroa Etorbidea 19 Pk: 237 20500 Arrasate
Tel. 943792890 Fax. 943793212
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com



LANBIDE HASTAPENA

2006-2007
IKASTURTEA



Goretti Fernandez > Hezkuntza Bereziko irakaslea

"Nirekin lehiatu zirenak telebistan ikusita, kirola utzi izana oroitzen dut"

Goretti Fernandez antzuolarrak gaztetxotan marka asko egin zituen atletismoan. Gaur egun ere kirola egiten jarraitzen du, gorputzak eskatzen diolako, baina ez du lehiatu gura izaten. Bestalde, Hezkuntza Berezia ikasi du eta dagoeneko horretan lanean ibili da. Espezializazioaren bidean, Zeinuen Hizkuntza ere ikasi du gorrekin komunikatzeko.

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA

Goretti ezaguna da Antzuolan, gazteguneko arduraduna delako, eta gaztetxotan Atletismoan marka asko hautsi zituelako. Aspaldian Hezkuntza Berezian dihardu.

Zer izan gure zenuen heldutan?

Inoiz ez dut oso garbi izan. Kirola beti eduki dut oso gustuko eta hortik bideratutako zerbait ikasi gura nuen.

Handik urtetara Irakasle ikasketak egin zenituen...

Bai, andereño izatea beti izan dut gustuko eta umeak ere gustatzen zaizkit. Hasi nintzen Kirol irakasle ikasketak egiten Gasteizen, baina utzi egin nuen, ez zelako uste nuena. Horren ostean, Plastikoa eta Kautxugintza modulua egin nuen, ikasturtea ez galtzarren.

Azkenean animatu egin nintzen Hezkuntza Berezia egiten. Ahizpa gorra da eta etxean behin baino gehiagotan aholkatu zidaten hori ikasteko. Arlo horrek errespetu handia ematen zidan, baina egia esan, oso gustura nago.

Hortaz, orain tarteka irakasle lanean zabilta. Zu zer moduko ikaslea zinen?

Oso ikasle ona nintzen eta oso formala, gainera. Hala esango dizute nire irakasle izandakoek. Eta oraindik ez naiz okertu. (Barreak)

Betidanik gustatu zaizu kirola egitea?

Bai, oso txikitik hasi nintzen atletismoan. Eskolan ere kirol dezente egiten genuen. Horrez gain, orain dela lau bat urte bizikletan ibiltzen hasi nintzen, eta mendira ere sarri joaten naiz.

Zer dela-eta hasi zinen atletismoa egiten?

Ahizpak eta lagunak bultzatuta. Askotan eurak ikustera joaten ginen eta azkenean gu ere hasi ginen. Sasoi baten jende ugari ibili ginen, 35 bat-edo, baina azkenean lauzpabost lagun gelditu ginen. Entrenatzera Donostia-ra joan behar izaten genuen, eta horrek alferkeria ematen zigun.

Jakin dudanez, hainbat marka lortu zenituen...

Bai, egia da. Luzera-jauzia eta jauzi hirukoitza egiten ibili nintzen. Jauzi hirukoitzean Espainiako Txapelketa irabazi nuen, eta Euskadikoa eta Gipuzkoakoa bizpahiru aldiz. Aspaldi utzi nuen, oso gaztetxotan.



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 23 urte. **Zaletasunak:** Kirola egitea, batez ere, eta musika entzutea. **Bete duzun amets bat?** Ikasketak bukatzea. Fina naiz ikasketekin, baina banuen gogoak bukatzeko. **Erraza da parrandak eta ikasketak bateratzea?** Bai, oso parranda-zalea ez nai-

zelako. Gehienetan kirola egitea gurago izaten dut, eta gauetan ez naiz askorik irteten. **Inoiz diskriminatu sentitu zara emakumezkoa izateagatik?** Agian egon da halakorik, baina ez daukat gogoan. **Kirolari bat?** Josune Bereziartu.

Ez zinen penaz gelditu?

Apur bat bai, baina Donostia-ra joateko eskaintza egin zidaten eta ez neukan horretarako gogorik. Oso Antzuolakoa eta etxezalea naiz, eta gurago nuen herrian gelditu. Gerora batzuetan pentsatu dut atletismoan jarraituz gero nora helduko nintzatekeen.

Olinpiadak egoten direnean gogoan izango duzu hori...

Bai; behin baino gehiagotan telebistan ikusten ditut nirekin lehiatu ibili zirenak kirolariak. Hala-koetan pentsatzen dut: ni ere hor egongo nintzen?

Kirola egiten jarraitzen duzu?

Bai, bizikletan-eta ibiltzen naiz, baina ez dut lehiatu gura izaten. Horrekin eskarmentatuta bukatu nuen. Kirola beti egin izan dudana gauza bat da eta on egiten dit. Egiten ez dudanean horren hutsunea igartzen dut.

Gaia aldatuz, Zeinuen Hizkuntza ikasi berri duzu...

Ahizpak beti ezpainak irakurri dizkigu, baina zeinuen hizkuntza erabilia berarendako askoz ulergarriagoa da. Aransgi eskolan ikastaro batzuk egin nituen eta horren ostean Gasteizen hiru ikasturte egin nituen. Oso esperientzia ona izan da. Gainera, nik etxean praktikatzeko aukera izan dut. Egin ez ezean galdu egiten da-eta.

Bestalde, Irakasle ikasketak bukatu berri dituzu eta dagoeneko lanean ibili zara...

Bai, hirugarren mailan Aspace elkartearen praktikak egin nituen. Horren ostean, deitu egin zidaten udan Saloura joateko, talde baten arduradun jarduteko. Hiru talde koordinatzen ibili nintzen. Asko ikasi nuen.

Gazteagoekin ere ibiltzen zara lanean, ezta?

Bai, orain dela bi urte herrian gaztegunea zabaldu zuten 12 eta 14 urte bitartekoendako, eta hasieratik arduradun lanean nabil. Asteburuetan zabaltzen dugu eta hiru begiraleok txandatu egiten gara hiru asteburutik bat jai hartzeko.

Zer asmo daukazu orain?

Elkarte baten edo bestela ikastetxe baten lan egiteko. Gurago nuke ikastetxeetan aritu. Prest egongo nintzateke lanera kanpora joateko, baldin eta urrun ez bada eta asteburuetan Antzuolara bueltatu banaiteke.

berriak

> PROGRAMAZIOA

'Gatza eta berakatz' eta '16 mm' saioak irailan GOITBn

Gatza eta berakatz sukaldaritzako saioa Goiena Telebista-programaziora itzuliko da irailan. Horrela, sukaldaritzako saio bi izango ditu ibarreko telebistak, Ttipi-Ttipak ekoiztutako *Eltze beroa* eta GOITBk eginiko *Gatza eta berakatz*.

Era berean, zinemarik ere ez da faltako GOITBn. Amagoia Lasagabaster eta Josu Txintxurretaren *16mm* saioa itzuliko da pantailetara.

> PUBLIZITATEA

Bergarako Paulaner garagardotegiaren iragarkia GOITBn

Ikasturte berria abiatu du Goiena Telebistak, berrikuntza ugarirekin. Iragarki eta saio berriak ikusteko aukera izango da irailetik aurrera. Horietako iragarki bat izango da Bergarako Paulaner garagardotegiak egin duena.

Ekainean ireki zituen atek Paulaner garagardotegiak eta GOIENKARIA-n zein Goiena Telebistan kanpaina egitea erabaki du. GOITBn emateko iragarki polita egin dute.

> ARRASATE IRRATIA

Guatemalan eta Nikaraguan zehar Amaia Goitiarekin

Astean egin digu bisita Amaia Goitia oñatiarrak. Guatemalan eta Nikaraguan zehar ibili da hainbat hilabetetan. Urrian abiatu zen beste bi lagunekin batera eta, agindu zigun moduan, itzuli bezain pronto, irratira etorri da bizitakoak kontatzera.

Asteko gainbegiratu-n izango duzue, beste hainbat elkarrizketarekin batera, Goitiak kontatutakoak berriz ere entzungai.

> ARRASATE IRRATIA

Ikasturte hasiera berbera 'Asteko gaia' tartean

Datorren asteko *Asteko gaia* tartean, ikasturte hasiera landuko dugu. Horrela, bada, gai bera hainbat ikuspuntutatik aztertze asmotan, esate baterako ikasgela batera hurbilduko gara lehenengo eskola egunen gainean galdezka.

Aurtengo ikasgaietako aldaketa bat Pluton planetarik ez dela izango da, eta horren gainean ere jardungo dugu astronomia irakasle eta liburu argitaletxe bateko ordezkariarekin.

'HARMAILATIK' > ASTELEHENA, 21:15 / 22:15

Preferenteko taldeen Liga hasiera 'Harmailatik' saioan

Aloña Mendik eta Aretxabaletako UDAK etxean hasiko dute Liga. Mondrak, berriz, Trintxerpen

GOIENKARIA > ARRASATE

Futbol kontuak izango dira nagusi *Harmailatik* kirol saioan. Asteburuan hasiko da denboraldi ofiziala preferente mailan, eta Aloña Mendik eta UDAK etxean jokatu dituzte partiduak. Oñatiarrek Berio hartuko dute Azkoagainen eta aretxabaletarrek Pasaia taldea Ibarren. Bi partidu horien gaineko erreportaje zabala eskainiko du Julen Iriondo kazetari oñatiarrak aurkezten duen saioak.

Mondrak, oster, Trintxerpen zelaian hasiko du 2006/07 denboraldia.



HARMAILATIK Futbol kontuak berriro ere nagusi.

GOIENKARIA

'IZAN ZIREN' SAIO BERRIA > ZAPATUA, 15:15

Iñaki Leturia kazetariaren 'Izan ziren' programa berria estreinatuko du GOITBk

GOIENKARIA > BERGARA

"Borges idazleari irakurri nion behin hiltzen den pertsona orok eramaten duela istorio errepika ezin bat eta betiko galtzen dela". Abiapuntu horrekin, Iñaki Leturia kazetariak *Izan ziren* programa berria egitea erabaki

zuen. Bere helburua zen testigantza horiek guztiak jasotzea eta hedatzea. Eskarmentu handiko kazetaria da Iñaki Leturia. Urteak egin zituen *Bertatik Bertara* saioan eta ETBko beste zenbait saiotan. Gaur Goierri Telebistan dihardu

zenbait kolaborazio eta programa egiten. GOITBk Zapatuan estreinatuko du horietako bat. *Izan ziren* saioa adineko pertsonen testigantzetan oinarrituta dago. Aspaldiko bizimodu, ohitura eta kontuak jaso ditu Leturiak. Kazetari goierriarrek dioenez, "gehien harritu nauena da adinean aurrera ongi eta osasuntsu iritsi diren gehienak umore onekoak direla". Espainiako gerrako kontuak, industrializazioa, nekazaritza giroa... Horiek guztiak jorratuko ditu Leturiak GOITBn, zapatuan, 15:15ean.

telebegi

Unai Loidi

Okasioa

Faszikulutan saltzen diren bildumen iragarkiekin eta *Gran Hermano*-ren beste edizio batekin hasi da aurten ere iraila. Eta hori ikusteko ez da ordu asko pasatu behar telebista aurrean. Baina telebista-kontsumoaren inguruko datuak ere iritsi dira hil berriarekin batera. Ezohiko telebista kateak (digitalak, kable bidezkoak, tematikoak...) gero eta gehiago ikusten direla estatuan, eta abuztuan %10era heldu direla, inoizko kuotarik altuenera.

Ikus-entzunezkoen panorama berrian, etxeko mandaren botoietan ia-ia ez zaigu kate gehiago kabitzen, eta egoera honekin euskarazko kateak izan daitezkeela galtzaile iruditzen zait. Lehendik ere txikiak izan, eta txikiago bihurtuko dira audientzia faltan. Futbolaren datuek ere ez dute orain balioko ETB-1en emaitzak borobiltzeko. Baina irakurketa positiboa ere izan dezake honek. Aspaldi ikusitako errepikapenen errepikapenak eta dantza jaialdiak alora utzi eta programazioan bide berriak urratzen hasteko okasioa izan daiteke hau, ausartagoak izateko unea. Esaten erraza, egiten zaila.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Marta Bermejo, Gurutze Gorriko langilea; bidaien tartean, Amaia Goitiarekin, Guatemalan eta Nikaraguan zehar; Goio Eskibel bikarioa; Pello Zabalarekin udako datuak aztergai...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Egurdia eta zerbitzuak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albisteak. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 MKT musika saioa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Zapatua, 9

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza. 13:45 Harmailatik. G-II mendira espedizioa. 14:15 Klipak. Musika taldeen bideo-klipak. 14:45 Berbaire. 15:15 Izan ziren. Iñaki Leturia kazetariak aurkeztutako saio berria. Adineko pertsonen testigantzetan oinarritutako saioa. 15:45 Erreportajea: suhiltzaileak. 16:45 MKT musika saioa. 15:15 Elkartasun bideak. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma. 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire: Mahaiingurua. 22:15 Elkartasun bideak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportajea. 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 10

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparorratza. 12:00 Erreportajea. 13:00 Gatza eta berakatz. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klipak. 14:15 Marrazki bizidunak. 15:15 MKT. 15:45 Ilunpean. 16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Eltze beroa. 17:30 Marrazki bizidunak. 18:45 Klipak. 19:15 Iparorratza. 19:45 Berbaire. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 16 mm. 21:30 Behazulo. 22:00 Izan ziren. Iñaki Leturia kazetariaren saio berria. Adineko pertsonen testigantzetan oinarritutako. 22:30 Harmailatik. 23:00 Teknopolis. 23:30 Emisio amaiera.

Astehena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreportajea. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klipak eta MKT saioa. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:00 Izan ziren. 21:15 Harmailatik: Preferente mailako futbol taldeen liga hasiera. Aloña Mendik eta UDAK etxean hasiko dute denboraldia. Berio eta Pasaia izango dira gure ibarreko taldeen aurkariak. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:00 Gatza eta berakatz. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Klipak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbarka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:00 Gatza eta berakatz. 21:15 16 mm. Amagoia Lasagabaster eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoizten duten film laburren saioa. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:00 Izan ziren. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16 mm. 16:15 Klipak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustrai. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:00 Izan ziren. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Erreportajea. 22:45 Albisteak. 23:15 Harmailatik. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Eguena, 14

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. Julen Iriondo aurkezten duen kirol saioa. 14:15 Klipak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustrai. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:00 Gatza eta berakatz. GOITBk ekoiztutako sukaldaritzako saioa. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Kike Amonarriz > ETBko *Mihiluze* saioaren aurkezle eta zuzendaria

"Guretzat erronka handia izango da ordu horretan lehiatzea beste kateekin"

Urriari abiatuko da 'Mihiluze' saio berria: egunero emango dute 21:30ean, ordu erdiz

Kike Amonarrizek eta Ilaski Serranok aurkeztuko dute eta hiru bikote lehiatuko dira saio bakoitzean

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Badator *Mihiluze*-ren bigarren aroa. Berrituta etorri ere. Eduki berriak, dekoratu berriak... eta eguneroko maiztasuna, astean behingoaren orde. Aurreko denboraldian ETB1eko arrakasta nagusietako bat izan dena astelehenerdik egunera emitituko da urritik aurrera, 21:30ean, ordu erdiz.

Mihiluze eguneroko bihurtuko da urritik aurrera.

Bai, orain egunero izango gaituzue pantaila aurrean. Lehen, ordu eta erdiz emititzen genuen astean behin. Lehiaketa zen, baina era berean, gaueko *show* eran egina zen, publiko askorekin platoon. Orain ere publikoak izango du tokia, baina txikiagoa, programa bilduagoa izango da, orokorrean.

Ilaski Serranok eta biok segituko duzue aurkezle lanetan. Eta Asisko Urmenetak?

Programak gaueko *show* ukitu hori galdu egingo du eta formatu berriarekin atal hori osatzen zuten zatiak desagertu egingo dira: Asiskoren atala, Niko Lizeagaren *Goiko* pertsonaia, lehiaketaren antzezpen proba eta baita epaimahaia ere. Asisko Urmenetak, hala ere, erakutsi du telebistarako animalia ere badela eta beste hainbat arlotan bezala telebistan ere primeran moldatzen dela.



Eskarmentu handikoa da Kike Amonarriz pantailaren aurrean; izan ere, umorezko saio piloa egin ditu ETBn.

ETB

ETBk apustu gogorra egin du saioa eguneroko bihurtzearekin, ezta?

Bai, ez da ordutegi erraza eta guretzat ere erronka handia da ordu horretan lehiatzea beste kateekin. Nolanahi ere, aurreko denboraldian ere apustu handia izan zen, beste kateetan lehiaketarik ez zegoenean, gurea bezalako lehiaketa bat txertatzea pro-

"Oso programa duina egitea lortu zuen 'Bertatik bertara'-ko lan-taldeak; oso gertuko sentitu izan ditugu beti"

"Saioak egunero 1.000 euro jarriko ditu jokoan eta sei proba izango dira"

gramazioan. Badirudi produktarekin gustura daudela eta lortutako audientzia mailak ere lagundu duela ETBk eguneroko bihurtzeko saioa.

Saio mitiko batek, Bertatik bertara-k hain justu ere, lagutako hutsunea betetzera dator Mihiluze.

Bai, haren orduan emango den heinean. Bertatik bertara-ko lantaldeek oso programa duina egitea lortu zuten eta oso gertuko sentitu izan ditugu beti. Errespetu handia ematen digu horrek, eta ahaleginduko gara haiek utzi dizkiguten ikusleak errespetuz eta merezi bezala tratatzen.

Zer berritasun ekarriko du Mihiluze-k?

Nagusiak bi: bata, egunero emango dela; bestea, aurrerantzean bikoteak lehiatuko direla, eta

gramazioan. Badirudi produktarekin gustura daudela eta lortutako audientzia mailak ere lagundu duela ETBk eguneroko bihurtzeko saioa.

Euskal Telebistan umorezko hamaika saio egindakoa

Mihiluze-ren aurretik, ETBn hainbat saiotan jardundakoa: *Hitz eta Pitz*, *Hau da A.U!*, *Beni eta Marini*, *Balinda*, *Txiskola*, *Sikofonia*, *Bai zera!*... Baina soziolinguita ere bada laster 45 betetzera doan tolosar hau eta euskararen erabilerak, gazteen artean batez ere, kezka eta interesa sortzen dio: "Haurrak eta gazteak dira hizkuntza normalizazio prozesuaren motor, eta euskaraz gehien egiten dutenak. Zer gertatzen da, ordea? Ezagupenean aurrerapenik handiena ere adin horietan eman dela, eta beraz, ezagutzatik erabilerarako tarterik handiena ere adin horietan dagoela".

ez hirukoteak. Lehiaren eta umorearen arteko uztarketa izanik, parte hartzaile bizkorak, ausartak, eta drogoak behar ditugu. Proben artean, jada etxeko bihurtu diren klasikoei eutsiko diegu: *Tribuaren berbak*, *Poto-kumeak*, *Esamesak*... eta beste proba berri batzuk ere ikusiko ditugu.

Lehiaketan parte hartu nahi duenak zer egin behar du?

Parte hartu nahi dutenek edo publiko moduan etorri nahi dutenek 943 01 17 80 telefonora deitu edo *mihiluze@eitb.com* helbidera idatzi besterik ez dute egin behar.

Sariak zelakoak izango dira?

Egunero 1.000 euro jarriko ditugu jokoan. Sei proba izango dira programako. Lehen hiru probetan puntu gutxien irabazten dituen bikotea kanporatu egingo dugu. Bosgarren probara puntu gehienekin iristen denak puntuen araberrako dirua irabaziko du, eta beste gutzia zakura joango da. Zakuan dagoen dirua egunero jarriko da jokoan seigarren proban.

Noiz hasiko zarete emititzen?

Urriaren 2an, baina datorren astean egingo ditugu saio pilotu batzuk eta 19tik aurrera benetakoak grabatzen hasiko gara.

Nori zuzendua dago Mihiluze?

Familia guztiarendako lehiaketa da, etxeko guztiak batera ikusteko modukoa eta, gainera, jendeak etxetik lehiaketan parte hartzea nahi dugu; ikusle soil izateaz gain lehiakide ere izatea.

Telebistarik ikusten du Kike Amonarrizek?

Ikusi beharko nukeena baino gutxiago, eta jeneralean berandu samar, etxeko lanak egin, familiarekin solasean aritu eta etxerako uzten ditudanak amaitu eta gero. Telesailak, debeteak... *Wazemank* jakina, *Martin*... Gustuko ditut ere umorezko albistegi itxurako horiek: Eva Hacherena, Buenafuente-rena edo *Vaya semana*.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/BZ-sistemas	/ezkutuorly	/guztizeder	/multiopicas	/udalatz
/argi-plastik	/dragon-oriental	/gallastegi	/irudisport	/ohiak	/udalaitz
/arregi	/ganesha	/ganesha	/korozabaleta	/okipark	/urdeki
/atai	/dukiena	/garaia	/maulanda	/vitoria	/markiegi
/azkarate	/ego	/gorkagarai	/mayte	/pando	/urbieta
/joseba	/elejalde	/gorkatxi	/merkeopari	/richimaier	


Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmf.com.

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekuruzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETxea MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

PSIKOTERAPEUTA INTEGRATZAILEA - ANA GALLASTEGI

Bergara (astelehenetan) / San Martin Plaza 3 - 4d / 699 42 68 11

Donostia / Larramendi 2 solairuartera / 943 45 65 56

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerrias 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

Irailak 8-15

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Kontzertua



OÑATI

> Randy punk-rock talde suediarrek kontzertua egingo du gaztelekuan

Randy taldeak bihar, zapatua, egingo du kontzertua, 22:30ean. Batez ere, *Randy the Band* diskoko doinuak joko dituzte. Melodia eta agresibitatea bateratzen dituzte. Kataluniako Rabia Positiva eta Oñatiko Sharon Stonerrek ere joko dute.

Jaialdia



ELGETA

> Lambretta eta Vespa motorzaleen bazkarian parte hartzeko aukera

Lambretta eta Vespa motorren zaleek kontzentrazioa egingo dute hilaren 24an Elgetan. Besteak beste, bazkaria egingo dute, eta izenematea zabalik dago 943 76 80 22 zenbakian. Bergara, Ubera, Angiozar eta Asentziara ibilaldia ere egingo dute.

Kontzertua



ARRASATE

> Kepa Junkerak 'Hin' diskoa aurkeztuko du Amaia antzokian

Kepa Junkerak *Hin* izeneko diskoa aurkeztuko du hilaren 16an, Amaia antzokian. Txartelak salgai daude dagoeneko Servikutxa kutzazainetan, 943 00 12 00 telefonoan eta www.kutxa.net webgunean.

argazkiak@goiena.com helbidera bidali behar dira, edo Goienaren egoitzaren batera.

Argazkiak eta argibideak: www.goiena.net/blogak/argazkiak.

Antzerkia

ELGETA

> 'Star trip' antzezlanara egingo dute Espaloia antzokian

Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du Espaloia antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan, ohiko salneurrian.

Antzerkia hilaren 22an, egubakoitza, izango da.

BERGARA

> Kiki, Koko eta Moko pailazoek emanaldia egingo dute

Kiki, Koko eta Moko pailazoek emanaldia antolatuko du Jardun euskara elkarteak gaurko, egubakoitza.

Munibe plazan izango da, 18:00etan.

Ikuskizunak

BERGARA

> Baserriaren gaineko diapositiba emanaldia izango da

Baserriaren eginkizuna gizartearen etorkizunean izenburua duen diapositiba emanaldia egingo du Xabier Akizuk.

Irailaren 13an, Bergarako Udal Osoko Bilkuren aretoan, 19:00etan.

ELGETA

> 'Bideak' lana estreinatuko du Aukeran dantza taldeak

Aukeran dantza taldeak *Bideak* lana estreinatuko du. Debagoieneko estreinaldia izango da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia hilaren 29an, egubakoitza, 22:30ean.

Sarrerak salgai daude Espaloia antzokian bertan.

Erakusketak

ARRASATE

> Kooperatibismoaren gaineko eskulturen maketak

Balore kooperatiboaren gaineko eskultura lehiaketa deitu zuen Arrasateko Udalak. Aurkeztu diren lanen maketak ikusteko aukera izango da.

Monterronen, irailaren 12tik 22ra, 18:00-20:00.

ARRASATE

> Eskolako Agenda 21 proiektuaren gaineko erakusketa

Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean, energia landu zuten herriko ikasleek joan den ikasturtean. Orduan sortutako hainbat material erakusketan ipiniko dute.

Harresi aretoan, hilaren 11tik 25era.

Musika

ARRASATE

> 3.60 aretoko egitaraua datoen egunotarako

Gaur, egubakoitza, The Damned taldea egitekoa zen kontzertua bertan behera geratu da. Bihar, zapatua, Mansilla-rock-en emanaldia izango da 03:00etan.

Datorren asteburuan, bideoklip emanaldia, eta Synchronicity, Mahaster River eta Xemark eta Aiert taldeen kontzertuak izango dira.

The Damned ikusteko sarrerak erosi dituztenei ohiko salmenta-lekuan emango diete dirua bueltan.

OÑATI

> Bi rock kontzertu izango dira asteburuan Atzeko Kalen

Honako kontzertuak izango dira asteburuan: Comando 9 mm, Brigada Criminal, The Drakes eta Krimen (gaur, egubakoitza); eta Royal Canal eta Mahaster River (etzi, domeka).

Egubakoitzeko kontzertua, 22:30ean; domekakoa, 20:00etan.

ARRASATE

> Denial rock taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza

Arrasate eta Aretxabaletako Denial taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Uribarri-Erguin auzoko jaietan. *Phobia* diskoko abestiak joko dituzte.

23:00etan hasiko da kontzertua.

Jaiak

OÑATI

> Atzeko kaleko jaiak ospatuko dituzte asteburu osoan

Honako ekintzak ospatuko dituzte, besteak beste: gaur, egubakoitza, jai hasiera ekitaldia, 16:00etan, eta zinta

lasterketa, umeendako jolasak, auzo-poteoa eta kontzertua; bihar, zapatua, Manolo Irizarren omenezko salda-jana, zezentxoak eta poniak, txorimaloak, triki-poteoa eta erromeria; eta etzi, domeka, etxafuegoak, mus txapelketa, txorimaloak eta kontzertua. Hilaren 8tik 10era bitartean.

ARRASATE

> Uribarri-Erguin auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Ekintza hauek daude aukeran, beste batzuen artean: gaur, egubakoitza, auzoko hildakoen aldeko meza eta rock kontzertua; bihar, zapatua, jolasparkea, luntxa, pilota partiduak eta erromeria, eta etzi, domeka, pilota partiduak, herri kirolak, Gorriti eta bere abereak eta erromeria.

Jai hasiera ekitaldia gaur, egubakoitza, 19:00etan izango da.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik

Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontak-tua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara edo danbaka@danbaka.com helbidera.

Argibideak: www.danbaka.com.

ARAMAIO

> Postal lehiaketa antolatu du Txirritola euskara elkarteak

Udako oporretako postalen lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak. Irailaren 15era arte parte har daiteke,

postalak kultura etxera bidalita, Nardeaga kalera. Saria da nekazal turismo baten asteburua.

Irailaren 15era arte dago zabalik.

DEBAGOIENA

> 'Gomendatzen dizut...' lehiaketan parte har daiteke

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako Gomendatzen dizut... gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren gaineko aholkuak eta, ahal bada, argazkiak ere eskatzen dituzte.

Mugaeguna, irailaren 28a. Argibideak: www.aizue.com.

DEBAGOIENA

> Goienaren udako argazki lehiaketa zabalik dago

Udako argazki argitaragabeekin parte har daiteke, koloretan zein zuri-beltzean. Lanak

PROPOSAMENA

BERGARA

> San Martin Agirre jaietako azoka egingo dute bihar, zapatua

San Martin Agirre jaien barnean, azoka egingo dute bihar, zapatua. Hala, barazki, fruta, gazta eta lore azoka eta lehiaketa izango da San Martin plazan. Goiz osoan, Jardun elkarte trikitilarien kalejira (10:30), Eusko Labela duten hegaluze-dastatzea (11:30), eta lehiaketako sari banaketa (13:30) izango dira. Ospakizun gehiago izango dira gero, eta San Martin eguna hilaren 16an ospatuko dute.

Azoka eta lehiaketa 10:00etan hasiko dira.



nire aukera



Txema Abarrategi
Mendizalea eta Txirritolakoa
Aramaio

"Asteburu lasaia pasatzeko Baztan oso aproposa da"

Baztan eskualde ezin aproposagoa da asteburu lasaia pasatzeko. Neurri guztietako ibilaldiak dituzu bertan aukeran. Guk umeezin egiteko modukoe-tara jotzen dugu. Mendi kas-koetatik eta inguruetatik luzexegoak antola daitezke: Autza, Burga, Alkurruntz, Saioa eta nik bereziki maite dudana Irubelakaskoa izan litezke batzuk.

Auzo eta herrietan frontoi ugari dago. Elizondan kale girotxoa egoten da eta kontra-puntu polita izaten da mendi-ko osteratxoa egin ondoren.

Mendi gustukoena, zein?

Kopla zaharrear dago erantzuna: *Anbotok daukon arte zutunik burue, herria izango da geure gogokue...*

Irakurri duzun azken liburua?

Besteak beste, Iñaki Egañaren *Tratado de brujería vasca* eta Ramiro Pinillaren trilogia irakurri ditut.

Aramaio aisialdia zelan ikusten duzu?

Ibiltzea eta naturari erreparatzea atsegin zaionak badu asebetetzeko aukerarik.

Eguraldi beroa ala hotza?

Abestiak dioen bezala, izotz ondoko eguzkia.

Zein abeslari entzuten ez zara inoiz aspertzeko?

Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak ez naute momentura arte aspertu.

Garraibide gustukoena?

Autoa da gehien erabiltzen dudana, baina zerbait pentsatzen hasi beharko dugu herria autoz estali gura ez badugu.

Zinema

ARAMAIO HERRIKO PLAZA

Plan de vuelo: desaparecida
Zapatua: 21:30.

ARRASATE MONTERRON PARKEA

Devuélveme mi suerte
Egubakoitza: 22:30.

ELGETA ESPALLOIA ANTZOKIA

Omagh
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Poseidón
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR UNZAGA

La joven del agua
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

RIALTO

Alatriste
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Alatriste
17:00, 19:45, 22:30.

Pisando fuerte
17:30, 20:00, 22:30.

Jóvenes oportunidades
17:30, 20:00, 22:30.

Garfield 2
17:00, 18:40.

Skizo
17:30, 20:00, 22:30.

El intruso
20:15, 22:30.

Próximo Oriente
20:15, 22:30.

Piratas del Caribe 2
17:00.

Monster house
17:00, 18:45.

La joven del agua
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

United 93
17:30, 20:00, 22:30.

Arena en los bolsillos
18:00, 20:15, 22:30.

Una historia de Brooklyn
17:30, 20:00, 22:30.

Algo parecido a la velocidad
18:00, 20:15, 22:30.

La isla de hierro
18:00, 20:15, 22:30.

Ciudad sin ley
20:00.

Desayuno en Plutón
17:30, 20:00, 22:30.

La noche de los girasoles
17:30, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Arena en los bolsillos
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Alatriste
16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

Cars
16:00.

El mito
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Locos por el sexo
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Garfield 2
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Superman, el regreso
19:00, 23:00.

A la deriva
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Piratas del Caribe 2
17:00, 20:00, 23:00.

Poseidón
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alatriste
12:15, 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.

Monster house
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Stay alive
12:15, 17:00, 18:50, 20:40, 22:30, 00:20.

Corrupción en Miami
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

El mito
12:15, 15:40, 17:55.

El código Da Vinci
12:15, 16:45.

Piratas del Caribe 2
12:15, 16:00, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:45.

Cars

12:15, 16:15.

Garfield 2

12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

La joven del agua

12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Ant bully

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

La noche de los girasoles

19:45, 22:15, 00:45.

Bandidas

20:05, 22:05, 00:05.

Skizo

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Locos por el sexo

18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

A la deriva

12:15, 16:25, 18:25.

Poseidón

20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Alatriste
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Monster house
12:10, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Cars
12:00, 17:00.

Ciudad sin ley
12:10, 16:05, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

La joven del agua
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Garfield 2
12:15, 16:20, 18:10, 20:00, 22:00, 00:30.

Corrupción en Miami
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

Ant bully
12:00, 16:20, 18:10, 22:10, 00:30.

Maleficio
19:30, 22:15, 00:30.

Piratas del Caribe 2
12:00, 16:25, 19:15, 22:10, 00:10.

Poseidón
20:15, 22:20, 00:45.

Supernacho
12:15, 16:15, 18:20, 20:25.

Bandidas
12:00, 16:10, 18:10.

Clerks 2
12:10, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.

La sombra de la sospecha
22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.



Alatriste ***

Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.

Aktoreak: Viggo Mortensen, Ariadna Gil, Elena Anaya, Unax Ugalde.
Espainia, 2006.
147 min. Abenturak.

Alatriste gustu onez egitako ekoizpen handia da. Baliabide eder asko erabili dira: argazkia, dekoratuak, argiak, filmaketa egin den leku zoragarriak, jantziak, musika, eta abar; horiek guztiek istorioari eta pertsonaiei indarra emateko, eta garai eta gizarte bateko islapena -XVII. mendeko Espainiarena, hain zuzen ere- egiteko. Filma ez da ikuskizun hutsa. Díaz Yanesek ederki daki filmatzen eta bere ukitu pertsonala ematen die irudi guztiei: kamera mugimenduak oso politak dira, gerrateak eta sortzen diren ezpata-duelua errealismo handikoak dira, eta amodio eszenek (Ariadna Gilek eta Elena Anayak interpretazio bikainak egiten dituzte) tonu eta intentsitate berezia dute.

Dena den, filmak badu arazo bat: Díaz Yanesek Perez Reverttek pertsonaiari buruz idatzitako bost liburua erabiltzen ditu bere *Alatriste* filmikoa egiteko. Hau dela eta, gauza asko kontatu nahi ditu eta hori lortzeko elipsiak eta denboran jauzi handiak ematen ditu, pertsonaiak agertu eta desagertu egiten dira, gertakizunak bat-batean eskaintzen zaizkigu trantsizio edo lotura eszenarik erabili gabe, eta horrela, sakabanaketa sentsazioa sortzen da. *Alatriste* eszenetan edo pasarteetan zati-tuta dagoela ematen du: eszena bakoitzak indarra du, baina filmak bere osotasunean ez du eszena horiek indibidualki lortzen duten intentsitate bera lortzen. Hala eta guztiz, Díaz Yanesek erakusten digu posible dela interes handiko ekoizpen ikusgarriak egitea.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

United 93

AEB, 2006. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Christian Clemenson, Trish Gates, Polly Adams. 90 min. Drama.

2001eko irailaren 11n bahitutako laugarren hegazkina estez gertatu zena da film honetako gaia. Hegazkin horrek lurra jo zuen Pensilvanian, eta uste dute bidaiariak bahitzaileen aurka matxinatu egin zirela.

La sombra de la sospecha

AEB, 2006. Zuzendaria: Clark Johnson. Aktoreak: Michael Douglas, Kiefer Sutherland, Kim Basinger. 108 min. Thrillerra.

Pete Garrison AEBtako Zerbitzu Sekretuko kidea da, prestigio handikoa presidentearen bizitza salbatu zuenetik. Orain, Lehen Dama zaintzeaz arduratzen da. Bitartean, lehen bere lagun onena zenarengandik urrunduta dago orain.

Locos por el sexo

Espainia, 2006. Zuzendaria: Javier Rebollo. Aktoreak: Jordi Vilches, Karra Elejalde, Inma del Moral. 96 min. Komedia.

Nono izenekozko gazte eskizofrenikoa sinistuta dago armamentu goraldia gelditzeko jaio dela. Beti bakarrik bizi izan da amarekin, baina Santo Job psikiatrikoan sartzen denean, Ramon-ek adiskidetasuna zer den irakatsiko dio.

Monster house

AEB, 2006. Zuzendaria: Gil Kenan. Aktoreak: Kathleen Turner, Fred Willard, Catherine O'Hara.

93 min. Animazioa, beldurrezkoa. Hiru ume dira protagonistak. Inork ez die sinisten, baina eurek badakite bizilagunaren etxea ez dela nolatanahiko etxea. Munstroa da, eta umeez auzoa salbatu beharko dute munstro izugarri horrengandik.

Super Nacho

AEB, 2006. Zuzendaria: Jared Hess. Aktoreak: Jack Black, Ana de la Reguera, Hector Jimenez. 100 min. Komedia.

Ignacio - Nacho deitzen diote lagunek da filmeko protagonista. Apaiz mexikarra da, eta borroka librean lan egiten du guztien ezkutura, umezurtz-erxe baterako dirua ateratzeko.

Desayuno en Plutón

Irlanda-Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Neil Jordan. Aktoreak: Cillian Murphy, Liam Neeson, Stephen Rea, Brendan Gleeson. 135 min. Drama, komedia.

Patrick Braden-ek Irlandako bere herrizkatik alde egiten du eta Londrerera joaten da. Han, kabareteko abeslari travesti moduan dihardu 60ko eta 70ko hamarkadetan.

Devuélveme mi suerte

AEB, 2006. Zuzendaria: Donald Petrie. Aktoreak: Lindsay Lohan, Chris Pine, Falzon Love. 93 min. Komedia dramatikoa.

Ashley Albright zorte oneko neska da, bizitzako gauza on guztiak erraz-erraz iritsi zaizkio... *Jake* ezagutu eta muxu batek gauzak aldatzen dituen arte.

C.R.A.Z.Y.

Kanada, 2005. Zuzendaria: Jean Marc Vallée. Aktoreak: Alex Gravel, Pierre-Luc Brillant, Maxime Tremblay. 127 min. Drama, komedia.

1960ko abenduaren 25an jaiozen da Zachary Beaulieu, bost anai-arrebatik laugarrena. Familiak bizimodu lasaia

du: ama oso maitakorra da, eta aita, pixka bat zaputza, baina seme-alabez harro. Filmak kontatzen du zelan Zachary-k bere izaera izkurtuan gortzen duen aita ez nahigabetezko.

Bandidas

Frantzia-Mexiko-AEB, 2006. Zuzendaria: Espen Sandberg, Joachim Roenning. Aktoreak: Salma Hayek, Penelope Cruz, J.M. Negrí. 93 min. Abenturak.

Sara Sandoval aristokrata mexikarra da, Europan hezitakoa. *Maria Alvarez*, berriz, nekazari txiro baten alaba da. Bi emakumeek elkar ezagutu eta bizimoduz zeharo aldatuko dute.

Garfield 2

AEB, 2006. Zuzendaria: Tim Hill. Aktoreak: Breckin Meyer, Jennifer Love Hewitt, Billy Connolly. 78 min. Komedia.

Garfield, AEBtako katu kuttuna, Europan doa, Odie bakurrekin batera. Atlantikoa zeharkatzen du jabeari, Jon Arbuckle-ri, ezustekoa emateko. Jon Londresen dago Liz Wilson albaite-riari berarekin ezkontzeko eskatzeko.

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006-09-30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

Alatristeren lagun oñatiarra

IÑIGO BALBOA Unax Ugalde aktore gasteztarrak Iñigo Balboa oñatiarraren rola egiten du filmean

OÑATI 1845ean sartu zen Oñati Gipuzkoan, filmean 1622an Gipuzkoa barruan zela agertzen bada ere

ARMAGINTZA Arma gehienak hemen egiten ziren sasoi hartan, Jose Antonio Azpiazu historialariaren arabera

EDU MENDIBIL > BERGARA

Alatristeren filmaren estreinaldiak sekulako ikusmina piztu du. Izan ere, Arturo Perez Revertek Alatristeren gainean idatzitako eleberrietan oinarritutako filma Espainiako zinemaren aspaldiko apusturik handiena da. 24 milioi euro gastatu dute Alatristeren gorabeherak filmatzen, eta igarri egin da hori filmaren promozioan. Diaz Yanesen filmean aktore ezagunek hartzen dute parte: Viggo Mortensen *izarra*-rekin batera, Javier Camara, Juan Etxanobe, Eduard Fernandez, Ariadna Gil eta Unax Ugalde.

Hain zuzen ere, Unax Ugalde gasteztarrak Iñigo Balboa oñatiarraren rola egiten du. Lope Balboa Iñigoren aita Alatristeren ondoan borrokatutakoa da, eta Flandesko gerran hilko da, 1621ean. Ondorioz, Ana Balboa Iñigoren arreba gutun bat idatziko dio Alatristeri, bere anaia-aren kargu egiteko eskatuz, aita zenaren azken borondateari jarraituz. Alatristeren lagun leial bilakatuko da Iñigo Balboa.

OÑATI, GIPUZKOA?

Aipatutako gutuna 1622an data-tuta dago eta Ana Balboak horrela amaitzen du gutuna: *Oñate, Guipuzcoa*. Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrarengana jo dugu datuaren egiazkotasuna frogatzeko: "Ez litzateke erreferentzia egokia izango, garai hartan, juridikoki, Oñati ez zelako Gipuzkoa. Bai, ordea, sozialki eta ekonomikoki. 1845ean sartu zen Oñati Gipuzkoa barruan erabat, Gebaratar kondeek indarra galdu zutenean".

Picas vascas en Flandes liburuaren egilea da Azpiazu: "Arma gehienak hemen egiten ziren. Elorrio eta Oñati famatuak ziren 5 metro inguruko lantzak egiten. Ezpatak Arrasateko altzairuarekin egiten ziren... Lope de Vegaren bertsoak hala zioen: *Vencedora espada/de Mondragón tu acero/y en Toledo templada*. Baina forja ere hemen egiten zen... Eta soldadu asko ateratzen ziren Oñatitik eta ingurutik. Pentsa, *Iglesia, mar o servicio real* esaten zen orduan...".



IÑIGO BALBOA Unax Ugalde da filmeko protagonistetako bat, Iñigo Balboa oñatiarraren rola eginez.

ahobero

"Kontxan ezin zara fidatu azken unera arte. Gutxienez, arraunaren onerako, domekan ez dezala irabazi hamalau gaixo dituen ontziak"

Jose Luis Korta > Castro taldeko entrenatzailea

Arraunaren mundua nahastuta dabil aspaldian eta Jose Luis Korta tartean dabilenean itsasoa gehienetan ez da bare egoten.

iturri onetik

Gesalibarren gaineko liburua kaleratuko du Arrasate Argitan kultur elkarteak

Arrasate Argitan kultur elkarteak Gesalibar auzoaren gaineko liburua prestatzen dihardu. Liburua urrirako gertu izango da. Bereziki Gesalibarreko auzotarrendako eta arrasatearrendako egindako liburua izango da, euskaraz, eta argazkiek protagonismo berezia izango dute.

Aurretik Arrasate iruditzen edo Oñati iruditzen liburuak kaleratu ditu Arrasate Argitan elkarteak.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa


Ikasturte politikoa

Abuztuak ez du utzi emaitza apartekorik, Batasuna legeztatze eta presoak hurbiltze aurreikuspenetan. Blokeoa aipatu ere aipatzen da ezker abertzalearen aldetik, Espainiako gobernuak kontrakoa adierazten duen bitartean.

Balego eta balitz, hauteskundeetarako mugimenduak hasi dira: EAren gerri kolpea 'printzipioz', Batasunaren gerri tentea legeetan kabitzeko, EB eta Aralarren elkar ferekak gerribueltan, eta Nafarroan dabilen gerri dantza agintea eskualdatzeko. Guztiak toki bila, maiatzeko argazkian.

Ni gustura nengoke, aldaketak aurreikusten baitira. Ez nahi nituzkeen guztiak, baina bai aspaldiko handienak. Nengoke, diot, aldaketak ikusi bitartean sufritzen duenik ez balego. Preso eta senitartekoez ari naiz, noski.

ai, ene!



New York hiria miniaturan, jolaserako

Irailaren 11 hurbiltzen denean, New York hiria dabil guztion ahotan. Artista batek *lego* piezekin egin du bere hiri kutuna.

www.elkartu.net/blogak/zazpi



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51